

Goienkaria

2008ko apirilaren 11 > Egubakoitza > VIII. urtea > 327 zenbakia > Doan banatzekoa

www.goiena.net

"Globalizazioaren
migrazio
prozesuei
buruz jardungo
dugu udako
ikastaroan"

Carlos Lista
Abokatua eta
soziologoa > 09



G2a

Ez dok-Badok
amairu jardunaldia,
Oñatin > 43-44

BERGARA
Euskara bultzatzeko hitzarmena
sinatuko dute 81 elkartek > 25

ARAMAIO
Udalak egurrarekin energia sortzeko
aukera aztertzen dihardu > 38

KULTURA
Ruper Ordorikak 'Hamar t'erdietan'
lan berria kaleratu du > 45

OGASUNA > ERRENTA AITORPENA

Hilaren 18tik ekainaren 25era da aitorpena egiteko epealdia

374.000 Foru Aldundiak,
Gipuzkoan aurten 374.000
errenta aitorpen inguru
egitea aurreikusten du

BULEGOAK Debagoienean
zerga-bulegoa bakarra dago,
Bergaran. 8.000 errentatik gora
egingo direla uste dute

AUTO-LIKIDAZIOA Datorren
astelehenean zabalduko dute
auto-likidazio proposamenak
onartzen hasteko epea > 02-03

ARRASATE > POLITIKA

PSE-EEK eta EAJK mozio bateratua

Mozioarekin bat
egiten ez duten
hautetsien dimisioa
eskatuko dute > 18

EUSKARA > HITZARMENA

Euskararen alde Udalak eta Kutxa

Ibarreko zortzi udalek eta
Kutxak euskararen erabilera
sustatzeko hitzarmena sinatu
dute. Hitzarmenaren arabe-
ra, Kutxak ibarrean dituen 13
bulegoetako langileek hartu
dute konpromisoa bezeroei
lehen hitza euskaraz egiteko,
besteak beste. Konpromisoen
zaintza egiteko Jarraipen
Batzordea ere eratu dute. > 06

AZPIEGITURAK > AHT

Desjabetzeak hastear Eskoriatzan

Desjabetzeak egin
aurreko aktak
sinatzeko hitzorduak
deitu dituzte > 06

Mundumira jaiak natura eta musika bultzatuko ditu aurten

Eguaztenean aurkeztu zuten
Bergaran aurten ekainaren 6,
7 eta 8an ospatuko den Mun-
dumira, munduko kulturen
festa. Aurten musikaren eta
naturaren aldeko apustua
egin dutela esan dute antola-
tzaileek eta Debagoienaren
irudia Euskal Herrira zabal-
du nahi dutela. Horretarako,
ekitaldi sorta zabala antola-
tu dute. Tartean dira, beste-
ak beste, Alpha Blondy reg-
gae talde ezaguna. > 04



AURKEZPENA Euskal Herria aldirikako eta Debagoieneko Mankomunitateko ordezkariak kartelarekin.

J.Z.

AURKIBIDEA

Debagoiena > 04-08
Elkarrizketa > 09
Iritzia > 10-11
Gutunak > 12
Herriak > 15-39
Kirola > 40-42
Kultura > 45
Saikatuak > 46
Eskelak > 47
Denbora-pasa > 48
Gazteak > 50
Komunikazioa > 51
Telebista-Irratia > 52
Non-zer > 54-55

ARGI-PLASTIK

Leihoen fabrikazioa



- PVC
- ALUMINIOA
- ERREZEL HORMAK
- RPT ALUMINIOA
- AROTEGI MIXTOA

Zigarrola 1, 8. Pabilioia • Tel./ Faxa: 943 77 11 30 • Tel.: 943 79 62 18
20500 ARRASATE

Erakusketa aldaketagatik...

Deskontu
bereziak



Koltxoi dendak

bede®

Gure denbora zure atsedena da

Zarugalde 25 / ARRASATE Tel.: 943 77 18 35 • Arrizuri 7 / BERGARA Tel.: 943 76 25 91

OGASUNA > ERRENTA AITORPENA

Datorren egubakoitzean hasiko da 2007ko errenta kanpaina

EKAINAREN 25 Errenta aitortpenak aurkezteko epea hilaren 18an hasiko da eta datorren ekainaren 25ean bukatuko da

GIPUZKOAN 374.000 bat aitortpen egingo direla aurreikusi du Gipuzkoako Diputazioak; 283.000 aitortpenetan dirua itzuli beharko du erakundeak

MIRIAN BITERI > BERGARA

2007ko zerga ekitaldiko kanpainari datorren egubakoitzean emango dio hasiera Gipuzkoako Foru Aldundiak. Errenta aitortpen aurkezteko epea datorren egubakoitzean, apirilaren 18an, hasiko da eta ekainaren 25ean amaituko da.

Horrez gain, badira kontuan hartu beharreko beste hainbat data: auto-likidazio proposamenak onartzeko epea apirilaren 14an zabalduko da, datorren astelehenean, eta maiatzaren 9ra bitartean luzatuko da; eta errenta mekanizaturako hitzordua hilaren 17tik ekainaren 15era eskatu ahal izango da.

ZORTZI TEKNIKARI BERGARAN

Joan zen urtean Gipuzkoako Ogasunak Bergaran duen bulegoan 8.315 errenta aitortpen mekanizatu egin ziren. Bulego horretako arduradun Miren Pozuetak jakinarazi duenez, "aurtengo kanpainako datuak antzekoak izatea espero dugu". Bulegoa astelehenetik zapatura, 08:00etatik 14:00etara egongo da zabalik, eta

Bergarako zerga-bulegoan astelehenetik zapatura egin ahal izango dira aitortpen mekanizatuak; 08:00etatik 14:00etara

Auto-likidazio proposamena da zergadunen artean harrera onena duena. Dagoeneko hasi da Diputazioa proposamenak etxeetara bidaltzen

beraz, ordutegi horretan errenta aitortpena egiteko aukera izango dela azaldu du. Zortzi teknikarik jardungo dute zeregin horretan ekainaren 25era arte. Horiez gain, koordinazio lanak egiten dituen pertsona bat izango da Bergarako bulegoan. Prestaketa lanak direla eta, eta formazio ikastaroekin lanpetu samar dabil egunotan talde hori.

Hori guztia Bergarako bulegoari dagokio. Baina, jakina denez, errenta aitortpena egiteko beste bide batzuk ere badaude, hala nola, norberaren finantza-entitatearekin edo Internet bidez.

Horren harira, aurtengo errenta kanpainari begira, Gipuzkoako Foru Aldundiak informazio orokorragoa eskaini du. Aurtun, guztira, 374.000 errenta aitortpen inguru egingo direla uste du erakundeak. Kopuru horretatik, 283.000 aitortpenetan Diputazioak zergadunei dirua itzuli beharko diela aurreikusten da. Hala, 322.566 milioi euro itzuli beharko dituela aipatu du. Gainontzeko 91.500 aitortpenetan herritarrek izango dira Diputazioari dirua eman beharko diotenak. Hortik 177.422 milioi euro jasotzea espero duela jakinarazi du Gipuzkoako Foru Aldundiak.

AUTO-LIKIDAZIOA ERABILIENA

Errenta aitortpenak aurkezteko hainbat modalitate daude. Gipuzkoako Ogasun eta Finantza Departamentutik azpimarratu dute zergadunen artean, auto-likidazioaren modalitateak oso harrera ona duela. Gehien erabiltzen dena auto-likidazio proposamenarena da. Dagoeneko hasi dira proposamenak zergadunen etxeetara bidaltzen. Aurtun, guztira, 176.011 proposamen bida-



BERGARAKO ZERGA-BULEGOA Teknikariak prestaketa lanak eta formazio ikastaroak egiten

liki ditu; alegia, errenta aitortpen guztien %47. Horietatik, 135.744 zergadunen aldekoak izango dira eta 40.276 foru erakundeari ordaindu beharrekoak.

Proposamena zuzena bada eta zergadunak onartu nahi badu, 902 100 040 telefono zenbakira deitu beharko du; Internet bidez ere egin ahal izango du, NIF eta proposamenak dakarren pasahitza sartuz.

Auto-likidazio proposamena onartzen ez duenak errenta aitortpena egin beharko du, beste modalitate bat aukeratuz. Joan zen urtean, Diputazioak 159.105 proposamen bidali zituen eta 131.071 onartu ziren. Alegia, bidalitakoen %82,4.

Bestetik, errenta mekanizatuaren modalitateak aukeratu dezake zergadunak. Alegia, Foru Ogasuneko teknikarietako batek

AURTENGO KANPAINAREN BERRIKUNTZAK

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren (PFEZ) erregulazio berria jarri da indarrean aurtengo ekitaldian. Hona hemen beritasun batzuk:

> AURREZKIEN TRIBUTAZIOA Aurrezki tributazio berria dago. Higitarrien kapitalen, patrimonio etekinen eta etxebizitzaren errentamendu errenten zergen ordainketa %18koa da. Dibidenduetan sartzen direnek ere 1.500 euroko zerga-salbuespena dute.

> MENDEKOTASUNA Kenkari altuagoak dituzte ezinduek edo adineko pertsonak bere kargura dituztenek.

> ALOKAIURUA Alokairuan dagoenari lehendik zuten kenkaria mantendu zaio;

alokatu duenak, berriz, ez du inongo kenkaririk.

> ETXEBIZITZA Ohiko etxebizitzaren inbertsioagatik izandako kenkariak aldatzen dira. Inbertsioaren eta interesen kuota %18ra murrizten da; familia ugariendako eta 35 urtetik beherakoendako, %23. Urteko kenkarian 2.160 euroko muga sartu da; 2.760 aurreko bi kasuetan. Kreditu fiskala 36.000 eurokoa da zergadun bakoitzeko.

> AUTO-LIKIDAZIOA Dokumentazio gutxiago aurkeztu behar da. Partikularrek aitortpena internetez aurkeztu dezakete geroago frogagiriak bulegoetara ekarri gabe. Zerga informazioa On Linen azaltzen diren datuak erabiltzen dira.

Errenta kanpainaren bilakaera

ITZULPENAK	2005	2006	2007*
Itzulpen kopurua	270.917	273.833	283.500
Itzuli beharrekoa ehunekotan	%76,8	%75,3	%75,6
Batezbesteko kopurua (€)	1.008	1.050	1.138
Itzulpenak guztira (milaka)	273.088	287.675	322.566

ITZULPENAK	2005	2006	2007*
Bildutakoen kopurua	82.034	89.861	91.500
Jaso beharrekoa ehunekotan	%23,2	%24,7	%24,4
Batezbesteko kopurua	1.627	1.990	1.939
Bildutakoa guztira	133.504	178.852	177.422

* Aurreikuspena

ITURRIA: GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA



ibili dira asteotan.

MIRIAN BITERI

Ahaideengatik kenkariak daude, 500 eta 1.600 euro artekoak; ezintasunagatik eta pertsonak mende izateagatik 700 eta 1.500 euro arteko kenkariak daude

Orokorrean, Gipuzkoan bizi direnek eta zergari lotuta dauden etekinak jasotzen dituztenek egin behar dute errenta aitortpena. Baina, salbuespenak daude

goa da". Errenta mekanizatuak astelehenetik zapatara bitartean egin ahal izango dira esandako bulegoan, 08:00etatik 14:00etara. Ekainaren 15ean amaitzen da hitzordua eskatzeko epea.

AURKEZTU BEHARREKOA

Herritarrek ondorengo dokumentazioa aurkeztu beharko dute bulegoetan: sarreraren, gastuen, murrizketen eta kenkarien ziurtagiria eta titularraren kontu korrontearen 20 digituak.

Horrez gain, disketean edo paperean ere egin daiteke, Ogasuneko egoitza nagusian, zerga-

bulegoetan edo finantza-erakundeetan. Internetek ere errenta egiteko aukera eskaintzen du, han azaltzen diren bideak jarraituz. Kasu horietan, norberak egin behar du errenta aitortpena.

Kenkarien kasuan, Diputazioak aipatu du aurtengo kanpainan 210.000 bat gipuzkoarrek familiagatik, 146 milioiko kenkariak izango dituztela; etxebizitzagatik, 144.000 zergadunek 150 milioikoak eta 220.000 lagunek 510 milioikoak.

Familia kenkarien gainean, gogoratu beharra dago seme-alabak nahiz mende izandako pertsonengatik kenkariak daudela. Lehenengo umeagatik 500 euroko kenkaria aurreikusita dago; bigarrenagatik 600; hirugarrenagatik 1.000; laugarrenagatik 1.200 eta ondorengoengatik 1.600 euro. Horrez gain, sei urtetik beherako seme-alabak dituztenek 300 euroko kenkaria izango dute. Norberaren kargura dituzten pertsonengatik 700 eta 1.500 euro arteko kenkariak dira, mendeotasun mailaren arabera.

NORK AURKEZTU BEHAR DU?

Bestalde, esan beharra dago Gipuzkoan bizi diren eta zergari lotuta dauden etekinak jasotzen dituzten herritarrek daudela errenta aitortpena egitera derrigortuta. Alegia, lanaren etekinak, kapital higigarrien etekinak, ondasun higiezinaren alokairutik izandako etekinak edo ondasun horien titularitateak emandakoak, jarduera ekonomikoaren etekinak, ondare irabazi eta galerak eta errenta eragozpenak sartzen dira azken horren barnean.

Hala ere, salbuespenak daude. Zergadunak ez daude behartuta zergaren auto-likidazioa aurkeztera lotutako errenten jatorria honako hau denean: kapitalaren etekin gordinak, salbuespenak barne, eta ondare irabaziak, batera hartuta horien urteko kopuru gordinak 1.600 eurokoa baino handiagoa ez denean; lanaren etekin gordinak, urteko 9.000 euroko mugapean banakako tributazioan; eta 9.000 eurotik gorako eta 20.000 euro bitarteko lan etekin gordinak urtean, bana aitortzekotan. Baina, erregelamenduz arautzen diren egoera jakin batzuetan behartuta egongo dira zergadunak. Esaterako, 2007 jardunaldian kontratu bat baino gehiago nahiz kontratua berri edo luzatu duena derrigortuta egongo da errenta aitortpena egitera.

aitortpena egiten lagunduko duena. Gipuzkoa guztian, hamaika bulego daude; horien artean, Bergarako Ogasun bulegoa. Modalitate hori egiteko, hitzordua eska-

tu behar da aurrez, telefonoz edo Internet bidez. NAN zenbakia eskatuko zaie erabiltzaileei hitzordua eskatzerakoan. Bergarako bulegoko arduradunak

Internet erabiltzeko deia egin du. "Telefonoz egin nahi duenak jakin behar du programa informatiko bat aterako zaiola. Internetez asko errazagoa eta azkarra-

ARRETARAKO HIRU ZERBITZU

Arreta telefonikoa, telematikoa eta aurrekoa

Gipuzkoako Foru Aldundiak hiru arreta zerbitzu eskaintzen ditu kontsultak egin ahal izateko. Telefonoz egin nahi duenak, 902 100 040 zenbakira deitu beharko du, astelehenetik egubakoitzera bitartean, 08:00etatik 15:00etara. Telefono zenbaki hori erabili daiteke, besteak beste, auto-likidazioa proposamena onartzeko edo mekanizatu egiteko hitzordua eskatzeko. Esandako tramite horiek Internetez ere egin daitezke. Horretarako, www.gipuzkoa.net/ogasuna webgunera sartu beharra dago. Hirugarren arreta zerbitzu bat ere badago: aurrez aurrekoa. Debagoien-darrek Bergaran dute zerga-bulegoa.

ARAMAIO

Errenta aitortpena Internetez egiteko kurtsoa

Arabian ere joan zen urteko ekitaldiko kanpainarekin bueltaka dabil hango Diputazioa. Hori aprobetxatuz, errenta aitortpena Internetez egiteko ikastaroa antolatu dute Aramaion. Apirilak 14an, astelehena, emango dute RentaRed izeneko ikastaroa. Kurtsoa 16:00etatik 18:00etara bitartean izango da, herriko KZgunean. Alegia, Nardeaga kaleko 36 zenbakian.

Interesatuak udaletxean eman behar dute izena. Pertsona kopurua mugatua da eta kurtsoa doakoa da. Arabako Foru Aldundiak eta KZgunea telezentroak antolatzen dute ekitaldi hori.

MULTIOPTICAS

1.A ZERBITZU OPTIKOETAN

www.multiopticagipuzkoa.com

kalitate berdineko

2x1

betaurreko progresiboetan

Kristalak barne

2

konbinatu

MULTIOPTICAS

J. Carlos Guerra 1 Tel. 943 79 29 95 ARRASATE	Ibargarai 16 Tel. 943 76 15 75 BERGARA	C/ Nueva 15 - GROS Tel. 943 32 66 49 DONOSTIA	Bidebarrieta 2 Tel. 943 20 05 22 EIBAR	Koldo Mitxelena, 7 Tel. 943 51 78 11 ERRETERIA	Mendibil M. G. Tel. 943 63 99 01 IRUN	J.M. Barandiaran Enp. Tel. 943 88 99 88 ORDIZIA	San Frantzisko 23 Tel. 943 69 84 70 TOLOSA
--	---	--	---	---	--	--	---

MUNDUMIRA > 2008KO AURKEZPENEA

Debagoiena Euskal Herrira zabaldu nahi dute Mundumira jaialdiarekin

Hainbat berrikuntza dago, besteak beste Bergarako Lokatza taldeak antolatutako mendi bizikleta ibilbideak

Lau ardatzen gainean antolatu dute jaia: kalea; mendia, natura eta bidaiak; bost kontinenteak eta gizarte ekimena

JASONE ZABALA > BERGARA

Mundumira 2008, ekainak 6, 7 eta 8an ospatuko den munduko kulturen festaren aurkezpena egin dute asteon. Aurtengoa laugarren ekitaldia izango da; aurrez, Arrasaten, Oñatin eta Aretxabaletan ospatu ondoren.

Aurtengo Mundumira ere, aurreko urteetan egin den bezala, kaleak musikaz eta kolorez beteriko festa bilakatzeko helburuarekin antolatu dute. Horretarako jardueren ekitaldi zabalak prestatu dute, oinarritzkoak diren lau ardatzen inguruan: kalea; bost kontinenteetako musika; mendia, natura eta bidaiak eta gizarte ekimena.

Eguaztenean egindako aurkezpenean, besteak beste, Euskal Herria aldizkariko Kike Zinkunegi, Mankomunitateko Turismo Saileko buru Oxel Erostarbe eta Bergarako Kultura zinegotzi Enara Minguez izan ziren egitarauaren nondik norakoak azaltzen. Erostarbek besteak beste aipatu zuen, Debagoieneko irudia Euskal Herrira zabaltzea eta aldi berean eskualdeko turismo eta kultur eskaintza indartzea direla Mundumira jai honen helburuak.

Egitaraua ekainaren 6an hasiko den arren, ekainaren 5ean, dagoeneko, ekitaldi bat egingo da: *Shambala, la puerta secreta de la paz* dokumentala ikusteko aukera egingo da, eta Tibeteko monje batzuk bakearen gaineko *mandala* bat egingo dute.

EGITARAU ZABALA

Aurtengo egitaraua zabala izango da, eta eskenatoki nagusia Bergarako kaleak izango dira.

Horrela ekitaldi ezberdinen dako hainbat gune egokituko dituzte: San Martin plaza, Aranzadi ikastolako patioa, Fraisko-zuri plaza, Domingo Irala plaza udaletxeko osoko bilkuren aretoa, Aroztegi erakusketa aretoa...



MUSIKA Alpha Blondy taldea Bergaran egongo da aurtengo Mundumiran.

GOIENKARIA

DATUA

5

KONTINENTE

Bost kontinente ezberdinetako musika, antzerkia eta beste hainbat ekitaldi izango dira. Holanda, Irak, Marfil kostea, Egipto, Brasil eta beste leku askotako kulturak.

Ekainaren 6an egongo diren ekitaldi guztien asko daude azpimarratzeko: asteburu guztian zehar egongo den autokarabaren kontzentrazioa; film laburren zikloa; mendi eta bidaiak azoka; marrazki lehiaketa; *Himalaya, la puerta hacia Shambala* erakusketara bisitaldi gidatua; Balkanetako Tandarica Orkestar taldearen ikuskizuna; Koldo Aldazen eskutik, *Nepal Maite* bideo emanaldia; Patxi Usobiagaren bideo emanaldia; Noma-dak Tx taldearen ikuskizun berria; Salam! taldearen kalejira, eta Revolutionary Brothers eta Alpha Blondy taldeen reggae soinuak.

Ekainaren 7an, berriz, besteak beste, egongo dira: mendi irteerak; mendi eta bidaiak azoka; zirkoko eskola txiki ibiltaria; munduko zapoak dastatzeko gunea; *Nomadak* ikuskizuna Oreka Tx

ESANAK

"Kamiseten salmentarekin jasotzen dugun dirua GKEei laguntzeko erabiliko dugu"

Kike Zinkunegi > Euskal Herria aldizkariko kidea

taldearen eskutik; Egiptoko Kairoko Derbitxeak taldearen animazioa; Artea teatro taldearen eskutik musika kalejira *Los Nabil* lanarekin; Irak-etik The Baghdad Ensemble taldeak musika klasiko arabiarrak; bizikleta ibilbideak; eskalada txapelketa; Bra-

"Debagoieneko irudia Euskal Herrira zabaltzea da aurtengo Mundumirako helburuetako bat"

Oxel Erostarbe > Mankomunitateko Turismo Saileko burua

sileko Laboratorio de Samba taldearen ikuskizuna, Alkora perkusio konpainiaren emanaldia eta Eskoriatzan, XII. Nekazaritza, Abeltzaintza eta Artisautza azoka. Gauean, berriz, musika San Martin plazan: Holandako Tasha's World, Kataluniako 08001 eta

Madrileko Dj Floro. Ekainak 8an, Mundumirako azken egunean ere egongo da zer ikusi: ibilaldiak; mendi eta bidaiak azoka; Bergarako trikitixa eskolak alaitutako kalejira; batuka erritmoak San Martin plazan; gazta lehiaketa, artisautza feria, eta Greziako Asikides taldearen emanaldia.

Aurreko edizioekin alderatuz, eta berrikuntza bezala, Bergarako Lokatza taldeak antolatutako bizikletaz egin beharreko mendi ibilbideak izango dira. Bi mailatako irteerak izango dira: alde batetik, haur eta gurasoendako ibilbideak, eta bigarren maila batean, esperientzia gehiago dutenendako ibilbideak. Bestalde, gizarte ekintza eta gobernu kanpoko erakundeek (GKE) ere toki berezia izango dute jai honetan.

KAMISETAK SALDUKO DITUZTE

Aurten ere kamisetak jarriko dituzte salgai, eta Kike Zinkunegi adierazi digun bezala: "Ternua markarekin adostasun batera heldu gara eta beraren laguntzaz, kamisetak aterako ditugu aurten ere. Mundumira jai aurretik jarriko dira salgai herrietako hainbat puntutan, nahi duenak erosteko aukera izan dezan. Bertan jasotako dirua GKEei laguntzeko izango da eta baita ere proiektu solidario ezberdinak garatzen dihardutenendako".

MUNDUMIRAREN LAU ARDATZAK

> KALEA:

Jarduren ardatza izango da. Bergarako kaleetan artisautza eta gastronomia azokak, eta Munduko Janarien Jaima izango dira, besteak beste.

> BOST KONTINENTEETAKO MUSIKAK:

Kontzertuak, kalejirak eta formatu txikiko ekitaldiak. Nabarmentzeko taldeak: Boli Kostako Alpha Blondy reggae taldea eta Oreka TX.

> MENDIA, NATURA ETA BIDAIAK:

Mendi-ibilbideen IV. azoka, ikusentzunezkoen emanaldiak, argazki erakusketak... Eskualdea ezagutzeko eskaintza zabala. Horrez gain, eskalada txapelketa ere egingo da.

> GIZARTE EKIMENA:

Gobernu Kanpoko Erakundeen partaidetza izango da Mundumira jaialdiaren berezitasuna.

ZERBITZUAK > ONA TXARTELA

Osasun Txartel Indibidualaren ordezkiko ONA agiria eska daiteke

Arrasate, Aretxabaleta eta Eskoriatzako KZguneetan tramita daiteke, oraingoz

Osakidetzarekin ez ezik, administrazioekin hainbat gestio egiteko aukera emango du

LEIRE KORTABARRIA > BERGARA

Arrasateko, Aretxabaletako eta Eskoriatzako KZguneetan dagoeneko eska daiteke ONA (Osasun Nortasun Agiria) txartela. Gaur egungo Osakidetzako onuradunek erabiltzen duten Osasun Txartel Indibiduala ordezkatu du txartel berriak bost urtean.

ADMINISTRATIOEKIN HARREMANA

ONAREN bidez, Osakidetzako hainbat zerbitzu kudeatu ahal izango dira: adibidez, medikuarekin hitzordua *on-line* adostea, mediku aldaketa eskatzea, bigarren mediku baten iritzia eskatzea... Baina administrazio publikoekin beste askotariko tramiteak ere egin ahal izango dira ONA erabilita: esaterako, Foru Aldundiarekin, errenta aitortpena; Estatuko administrazioarekin, gidabaimeneko puntuak kontsultatu; edo norbere udalarekin hainbat izapide egin.

Txartel berriak Izenpe erakunde publikoak -Eusko Jaurlaritzak eta EAEko hiru Foru Aldundiek osatua- onartutako sinadura elektronikoa, itsasontzien jokia, gertutasun antena, barra kodea eta banda magnetikoa dauzka.



KZGUNA Oraingoz, ibarreko hiru KZgunetan tramita daiteke ONA, tartean, Arrasatekoan (irudian).

IKER BARANDIARAN

ESKAERA EGITEKO MODUA

ONA txartela 16 urtetik gorako edozeinek eska dezake, doan. Oraingoz, aipatutako hiru herrietako KZguneetan eska daiteke, baina Izenpe elkarte publikoak kanpaina hasi du bost urtean EAE osoan ONA zabaltzeko eta gaurko Osasun Txartel Indibiduala ordezkatzeko.

ONA eskatzeko, KZgunera joan eta Nortasun Agiria aurkeztu behar da. KZguneak eskaera tramitatuko du, eta handik gutxira Izenpe elkarteak posta bidez bidaliko dizkio eskatzaileari txartelaren gakoak (PIN eta PUK kodeak) posta bidez. Dago-kionean, eskatzaileak txartela jaso ahal izango du KZgunean, Nortasun Agiria eta Izenpek bidali dion gutuna aurkeztuta.

ONA-REKIN ZER EGIN DAITEKEEN

> OSASUNEKO ZERBITZUAK

Osakidetzako: medikuarekin hitzordua gorde, mediku aldaketa eskatu, bigarren mediku baten iritzia, asistentzia-espeditentak... (www.osanet.net).

> EUSKO JAURLARITZA

Kontratazio-baldintzen orriak, enpresen erregistroa eta sailkapena... (www.euskadi.net).

> FORU ALDUNDIA

Errenta aitortpena, autolikidazioak, datu fiskalak, iradokizunak, fakturen kontsulta...

> UDALA

Kiroldegietan sartu, udal liburutegien katalogoak kontsultatu eta

liburuak erreserbatu, errolda-egiaztagiriak lortu...

> BESTELAKOAK

Gidabaimenaren puntuak kontsultatu, laneko bitzita, erroldako datuak begiratu, banketxeekin harremanetan jarri...



ONA txartel bat.

TXOMIN MADINA

> EUSKAL PRESOK

Bertan behera utzi du gose greba Xabier Arregi bergararrak

Xabier Arregi bergararrak eta beste hamar preso euskal presok bertan behera utzi dute apirilaren 1ean hasitako gose greba. Fontcalenteko (Alacant) espetxeko segurtasun zuzendariordeak presoek egindako hainbat eskaera onartu ditu, besteak beste, gizonezkoak patiora batera irtetea, eta emakumeek ekin-tzetara sarrera izatea. Dena den, euskal presoek esan dute beraien egoeraren bilakaera ikusiko dutela erabaki berria hartu aurretik.

Bestalde, Parisko Apelazio Epaitegiak Marisol Iparra-girre eskoriatzarra estraditatzeko baimena eman du. Hala, 1985ean Laudioko Guardia Zibilaren etxearen aurka egindako atentatuagatik epaituko dute.

> OSASUNA

Debagoieneko ospitaleak aldizkari berria kaleratu du

Debagoieneko ospitaleak bere azpiegituran eta zerbitzuetan dauden aurrerapausoak zabaltzeko helburuarekin *Berriak* izeneko aldizkaria kaleratu du.

Aldizkariak bi helburu ditu: alde batetik, ospitaleko langileei informazioa ematea, eta, beste alde batetik, ibarreko biztanleengana hurbiltzea. *Berriak* izeneko aldizkaria hiruhilabetekaria da, eta besteak beste, ospitalean, osasun zentroetan, farmazietan eta udal zerbitzuetan eskura daiteke. Era berean, ospitaleko webgunean zintzilikatuta dago pdf formatuan.

Apirileko alean Digestio-Aparatuaren gaineko erreportajea argitaratu dute, besteak beste.



LASAGABASTER

www.lasagabaster.com

Zerkaosteta 1 eta 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55

EUSKARA > HITZARMENA

Kutxak euskararen erabilera sustatuko du Debagoieneko hamahiru bulegoetan

Horretarako hitzarmena sinatu zuten martitzenean, alkateek eta Kutxako ordezkariak

Konpromisoen zaintza egiteko, urtean behin bilduko den Jarraipen Batzordea eratuko dute

MIREIA BIKUÑA > ARRASATE

Ibarreko hamahiru bulegoetan euskararen erabilera sustatzeko hitzarmena sinatu zuten martitzenean, Kutxak eta Debagoieneko zortzi udalek. Kulturaren egingako sinatze-ekitaldian parte hartu zuten Marta Madinabeitia, Kutxa-Mendebaldeko Zuzendari Komertzialak, eta Arrasateko, Oñatiko, Eskoriatzako, Aretxabaleako, Antzuolako, Elgetako eta Leintz Gatzagako alkateak. Bergarako alkatearen izenean, Enara Minguez zinegotziak sinatu zuen hitzarmena.

Hitzarmenak dio Kutxako langileek lehen hitza euskaraz egingo dietela bezeroei. Bestalde, produktu berria kontratatzerakoan doan bezeroari eskaintza euskaraz egingo diote. Kutxak urtean zehar ematen dituen zerbitzu bereziak, errenta aitortpenaren kanpaina, besteak beste, euskaraz izan daitezzen beharrezkoak diren baliabideak jarriko ditu. Era berean, herri bakoitzeko sukurtsaletan idatzitako dokumentuetan euskarari lehentasuna emango diote.



HITZARMENA Argazkian, sinadura ekitaldian parte hartu zuten Debagoieneko alkateak eta Kutxako ordezkariak.

MIREIA BIKUÑA

ESANAK

"Hainbat urte daramatzagu normalizazio lanean, eta horren lekuko dira gure ibarreko herri gehienetan martxan dauden hitzarmenak"

Ino Galparsoro > Arrasateko alkatea

Horren harira, konpromiso huek guztien zaintza egiteko, urtean behin bilduko den Jarraipen Batzordea sortuko dute hitzarmena sinatu duten aldeek.

AURRERA PAUSOA

Hitzarmena sinatu zuten alkateen ordezkari moduan hitza hartu zuen Arrasateko alkate Ino Galparsorok. Sinatutako hitzarmena, Debagoienak euskararen erabilera sustatzeko duen kezkararen barruan "aurrera pauso" bat dela esan zuen. Bestalde, Foru Aldundiko Euskara Zuzendari

Esti Alkorta azaldu zuen akordioa sartzeko delako Foru Aldundiak, Kutxak eta EUDELe 2007ko apirilean lortutako akordioaren barnean.

Kutxako Giza Baliabideen Zuzendari Carlos Ruizek esan zuen Kutxarendako "inportante-

enabezeraok" direla. Horren harira, bezeroekin duten hartu-emanetan euskararen presentzia ugaltzen ahaleginduko direla esan zuen: "Kutxak esfortzu bereziak egingo ditu bulegoan egiten diren lan mota guztietan euskara erabiltzeko".

AZPIEGITURAK > ABIADURA HANDIKO TRENA

Apirilaren 15ean ekingo diote Eskoriatzan AHTren aurretiazko akten altxapenei

AHT Gelditu! Elkarlanak mobilizazioak deitu ditu hilaren 15ean, goizez eta arratsaldez, ekimen horren aurrean

M.B. > ESKORIATZA

Abiadura Handiko Trenak Eskoriatzan eragingo dituen kaltetuak datorren astean daude deituta, desjabetzen aurretiazko aktak sinatzeko. Hilaren 15etik 17ra bitartean daude eginga hitzor-

duak. Akten altxapena ez da horretan amaituko; Aramaion maiatzeko dago jarrita hitzordua.

Onbide.org elkarteko presidente Juan Karlos Belokik esan duenez, Eskoriatzan 43 kaltetu daude. Legutio-Eskoriatza tarteko bigarren azpi-eremuak 16 lurjabeei eragiten die; 33 bat lursail hartuko ditu trenak. Eskoriatza-Aramaio tartean 76 lursailetan banatutako 45 hektarea inguru, eta Aramaio 16 hektarea hartuko ditu. Eskoriatzako 37 eta Aramaio 15 kaltetu daude hor.

AHT Gelditu! Elkarlanak mobilizazioak deitu ditu ekimen horren aurrean. Hilaren 15ean,

martitzena, Eskoriatzako udal-txeparean kontzentrazioa egingo dute, 09:00etan. Arratsaldean, berriz, manifestazioa abiatuko da Herriko Plazatik, 19:00etan.

ARABAKO TARTEAK SOILIK

Aramaion, bestalde, kaltetuek oraindik ez dute jakinarazpena jaso. Belokiren ustez, maiatza hasieran izango da han desjabetzen aurretiazko akten altxapena. Eskoriatza-Aramaio tartean gain, Aramaio-Arrasate eta Arrasate-Elorrioko hainbat eremuren desjabetzen aurretiazko akten sinadura ere emango da. Baina soilik Arabako lurretan.

WWW.MONDRAGON.EDU/PREST

PREST

MONDRAGON UNIBERTSITATEA

2008
berrikuntza urtea
año de la innovación

EMAKUMEAK > BILGUNE FEMINISTA

Jardunaldiak aurkeztu ditu Bilgune Feministak

Arrasateko Bilgune Feministak aste bukaeran Portugaleten izango diren Euskal Herriko jardunaldi feministak aurkeztu ditu asteon

M. ARREGI/M.BITERI > ARRASATE
Arrasateko Bilgune Feministak aste bukaeran Portugaleten egingo diren Euskal Herriko jardunaldi feministen berri eman zuen joan zen martitzenean Kulturaren. Debagoiengan dagoen Bilgune Feminista bakarria da Arrasatekoa.

Taldea orain dela gutxi sortu zen eta asteotakoa egindako lehenengo agerraldia izan da. Bost lagunek dihardute orain. Lehenik eta behin herriko egoera aztertu dutela eta lehenetsiak zehaztu dituztela aipatu du taldeko kide Iraitz Agirrek. Hala, lehen lana diskurtso feminista plazaratzea izango dela azpimarratu du. Gainera, "etorkizunean emakume eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko gakoa hezkuntzan dagoela uste dugu", adierazi du.

JARDUNALDIAK

Agirrek esan duenez, *Feministok eraldaketarako borrokan* leloa dute jardunaldiek eta Bilgune Feminista dagoen herri guztietan aurkeztu dituzte. Horren harira, Portugaletarako prestatutako egitaraua azaldu du. Ekimenak zapatuan hasiko dira EHUko eskolan



KIDEAK Ezkerretik, Ane Arenaza, Maite Urzain eta Iraitz Agirre. ANABEL DOMINGUEZ

nautikoan. Jardunaldien aurkezpenaren ostean, *Emakumeok herrian eta munduan* ardatzaren inguruko eztabaidak eta tailerrak izango dira goiz partean. Bazkaldu ostean, *Emakumeok*

sexu indarkeriari aurre eginez izeneko atalaz jardungo dute. Tailerrak ere egongo dira.

Ondoren, manifestazioa egingo da Bilboko kaleetatik. Martxa 20:00etan abiatuko da Plaza Zirkularretik. Eguna Errekalde auzoko Kukutza gaztetxean amaituko da. Domeka goizean, *Emakumeok, gure identitateak eta gure gorputz intsumituak* ardatza hartuta, hainbat ponentzien aurkezpena eta eztabaida izango da Portugaleteko eskola nautikoan. Tailerrak ere ez dira faltako.

Jardunaldi horien gaineko informazio gehiago jaso nahi duenak, www.jardunaldifeministak.org webgunera jo dezake.

ESANAK

"Etorkizunean emakume eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko gakoa hezkuntzan dagoela uste dugu"

Iraitz Agirre > Bilgune Feminista



TOPAGUEA

Aitor Izagirre arrasatearra da Topaguneko diruzain berria

Aitor Izagirre arrasatearra, Txatxilipurdiko kidea, Topagunea euskara elkarten federazioko diruzain izendatu zuten zapatuan, urteko batzar nagusian, eta Bergaran bizi den Elena Laka eibartarra, GOIENKARIAko kolaboratzailea, bokal izendatu zuten (eskumatik hasita, bigarrena eta hirugarrena dira). Joseba Llano arabarra eta, ordezko moduan, Karlos Gonzalez deustuarra sartu ziren zuzendaritza batzordera. Jasone Mendizabal arrasatearra (ezkerretik bigarrena) batzorde horretan jarraitzen du.

kontsumoa



Familien zorpetetak eragina du jada eraikuntza sektorean. GOIENKARIA

Familien zorpetzea igo egin da hipoteka altuen ondorioz

NEREA MENOR > BERGARA

Zor osoaren hiru eurotik bi etxebizitzaren erosketara bideratzen ditu familia bakoitzak. Interes tipoak igo egin dira, ondorioz, etxeko errenta jaitsi egin da. Arlo higiezinaren egoerak hipoteken igoera eragin du. Hipotekaren gastuak osatzen du familia baten zor totalaren %74a. Hain kopuru altua izanda, ulertzekoa da familien zorpeketa.

Egoera honek aurrera jarraitzen badu, datorren urtean milaka langile kanporatzeko arriskua dagoela jakinarazi dute eraikitzaileek. Enpresetako nagusiek krisiari aurre egiteko hainbat proposamen aurkeztu dizkiete arduradun politikoei. Besteak beste, BEZA jaitea. Entitate finantzarioen kolaborazioa ere eskatzen dute eta pisuen erosketa sustatzeko kanpainak.

Euskal Autonomi Erkidegoari dagokionez, erabilitako etxebizitzaren prezioa %3,7 jaitsi da eta Nafarroan %2,53. Kantabrian, ostera, %4,67 igo dira prezioak.



Langabetuen %82k arazo larriak ditu lana aurkitzeko

Ia bi milioi eta erdi langabetu daude estatuan eta %82k zailtasunak ditu lanpostua aurkitzeko. Egoera larriagoa da Katalunia, Extremadura, Errioxa eta Murtziako langabetuentzat, erdiak baino gehiagok lana aurkitzeko aukera gutxi baititu. Honi aurre egiteko, Gobernuak egitasmo bat atera du, Heziketa Okupazionalerako egitarau bat. Hainbat profesional egongo dira lanean eta hauen xedea izango da beraien ardurapean dauden langabetuak bergizarteratzea.



Hileta kostuen batezbestekoa 2000 eurora igo da

Hileta baten batezbesteko prezioa 2000 eurokoa da. %90 igo da azkeneko 10 urteetan. Hileta zerbitzu garestienak, Madrilekoak dira eta merkeenak, Bartzelonakoak. Hala ere, prezioak asko aldatzen dira probintzia nahiz hiri bereko ehorztetxeen arabera. Aztertutako 18 probintzietatik 13tan, zerbitzu garestien eta merkeen artean 800 euroko aldea zegoen probintzia berean. Gainera, kontuan eduki behar da kostu hauetan ez dela behin behineko hilotza baten prezioa sartzen.

gure artekoak

DOBLO MALIBU > Familia gazteei eta, batez ere, gazteei zuzendutako autoa da Doblo Malibua. Diseinu aldetik aldaketak izan ditu barnealdean eta kanpoaldean. Hala, furgoneta itxura atzean utzi du Doblo Malibu berriak.

Carlos Ruiz > Kanpanzar kontseziolarioko arduraduna

"Limite gabeko espazioa dauka Doblo Malibu autoak"

ARANTZAZU EZKIBEL > ARRASATE

"Limite gabeko espazioa sortzea izan da Fiaten helburua", azpimarratu gura izan du Carlos Ruiz Kanpanzar etxeko arduradunak. Autoak furgoneta itxura alde batera utzi eta turismo itxura hartu du. Diseinu aldetik, aldaketak izan ditu bai kanpoaldean eta baita barnealdean ere. "Autoaren aurrealdean eta atzerako ispi-letan izan ditu aldaketak autoak, batez ere", gaineratu du Ruizek. Gainera, aluminiozko hagnak ditu, turismoek bezala.

ATZEALDEAN, IRRISTAILU-ATEAK

Bost eserleku ditu autoak, baina, aukeran, zazpi plazatak ere izan daiteke. Atzealdeko eserlekuak batu egin daitezke; hala, maletategi zabala geratzen da. Atzealdeko ateak irristailu-ateak dira: "Gainera, krokadura berezia dute eta atea ez da bakarrik ixten. Segurtasuna bermatzen da horrela", azaldu du Ruizek. Modu horretan, autoa alda pa behera dagoenean, ateak ez dira bakarrik ixten.

DIESELEZKO AUKERA BI

Motorrari dagokionez, bi dieselzko aukera daude: 105 zaldi potentziakoa eta 120 zaldi potentziakoa. Aldaketa kaxa ere bost martxatutakoa da.



Carlos Ruiz Doblo Malibu autoaren aurrean.

A.E.

Doblo Malibu 1.9 120 ZP

Prezioa	17.186 eurotik aurrera
Luzera	4,25 metro
Zabalera	1,72 metro
Maletategia	750/3000 litro ⁽¹⁾
Kontsumoa	4,9 litro /100 km ⁽²⁾
Abiadura	177 km/h ⁽³⁾
CO2 isurketak	160 g/km

(1) Gehienezko edukiera
(2) Batez besteko kontsumoa, hiri barrukoa eta errepideko kontuan hartuta
(3) Gehienezko abiadura

Autoa jende gazteari zuzenduta dago: "Gaur egun horrelako autoak asko erabiltzen dira mendira edo eskiatzera joateko. Izan ere, espazio aldetik aukera zabala eskaintzen dute", dio Ruizek.

Bestalde, familiei zuzendutako autoa ere badela esan du Kanpanzar etxeko arduradunak: "Ume txikiekin bidaiatzeko egokia da, espazio asko dagoelako horien eserlekuak jartzeko".

Espazio aldetik, furgonetan ezaugarri berberak ditu baina turismo bat da. Hau da, errepidean 120km/h abiadura hartu dezake, beste turismoek bezala.

etxeko leihotik



Leire Kortabarria

GOIENKARIAko Herriak saileko arduraduna

Herria, gu jaio ginen lekuaren antza duena...

Bateren batek esan zuen, eta ondo esan ere, norbere herriak jaio zen herriaren antza duen leku bat izaten bukatzen duela, denborarekin. Jaioterriaren gaineko esan horrekin akordatzen naiz nirean, Oñatin, etengabeko hirigintza lanen emaitza berri bat ikusten dudana bakoitzean; orain azkeneko, San Martinen egiten dabiltzan auzoa eta dagoeneko bizileku eta pasealeku den Ugarkalde auzunea ikusi ditudanean. Horiek bi adibide berrienak dira, baina, jakina, beste asko egon dira azken urteotan, eta gehiago etorriko dira: instalazio berriak, lehen herriaren azken mugak ziren lurretan altxatutako auzoak, zerbitzuak, lokalak, kaleak, errepideak...

Dena ziklikoa da bizitzan, eta herriak ere, izaki bizidun legez, aldatzen joaten dira. Zer edo zer aldatzen joaten ez bada, hilda dagoen seinale. Horregatik, nahiz eta barru-barruan gizakiok beldurra diogun aldaketari, ezinbesteko prozesua da, eta gure herrien kasuan ere hala da, nahiz eta horretarako gure umezaroko paisaiak eta gure oroitzapenen testigu izan diren lekuak galdu. Herriak bizi izateko dira, hori bai, betiere, ondo bizi izateko, hortaz, garapena ez dadila izan *garapenismoa*; aldiz, herriaren izaerarekin bat etor dadila.

> **Aldaketaz dihardu-danez, egunotan (eta noiz arte?) berbagai da tranbia. Erakundeek berriz esan dute egingo dela; baina benetan behar dugu? Soluzio merkeago eta sinpleagoak daudelakoan nago.**

> **Berritasunen beldur izatea adinako txarra da larregiko zalea izatea. Sakelako telefonoak oso praktikoak dira, baina ni gogaituta nago kalean, autobusean, kultur etxean... txirrin digital hori entzuteaz.**

"Gure herriak ere, bizidun direnez, aldatzen joaten dira; ezinbestekoa da"

begi-bistan



Erloju-termometroa konpondu dute azkenean! (Oñati) 2008/04/03


Argazkia: Ohiana Elortza.
Testua: Mireia Bikuña.

San Lorenzo auzoan dagoen erloju-termometroa konpondu zuten eguaztenean. Baina, martitzen arte termometroak 88 gradu zuzeldela adierazten zuen; eta ordua aldatu barik zuen.

Har ezazu parte:

Argazkia eta azalpentxoak bidali honako helbidera: goienkaria@goiena.com

izen propioak



Gorka Arejolaleiba
SASKIBALOI
JOKALARIA



Miguel Lazpiur
CONFEBASKEKO
PRESIDENTEA



Ritxar Fernandez
KORRIKALARIA

Kadete mailako MUko jokalaria arrasatearrak irabazi egin zuen Pauko txapelketa Gipuzkoako selekzioarekin. Jokatzen du. Finalean Toulouseko taldea menderatu zuten, 51-38 irabazita. Gainera, hiruko jaurtiketan txapelketan bigarren bukatu zuen.

Confebask patronaleko presidentea Miguel Lazpiur bergararra, Espainiako Enpresaburuen Elkarte (CEO) presidenteorde izendatuko zuten atzo. Patronalak hitzetan "euskal enpresaburuen interesen alde egiteko duen lanarengatik aukeratu dugu".

Giokela Antxintxiketan taldeko korrikalaria hirugarren tokian sailkatu zen Bartzelonako Cursa Bombers lasterketan. Harekin batera igo ziren podiumera Chema Martinez eta Martin Berlangas. Guztira 1.300 korrikalari lehiatu ziren 10 kilometroko proban.

Carlos Lista (Argentina, 1949) abokatua, irailaz geroztik, Oñatiko Lege-Soziologiako Nazioarteko Erakundeko zuzendari zientifikoa da. Soziologiako maisutza ikasketak egin zituen. Kordobako (Argentina) Unibertsitatean soziologia juridikoa irakasten du, eta 2008-2009 ikasturtean bukatu arte egongo da zuzendari zientifiko lanak egiten Oñatiko unibertsitatean.

Carlos Lista > Lege-Soziologiako Nazioarteko Erakundeko Zuzendari Zientifikoa

"Globalizazioaren migrazio prozesuei buruz jardungo dugu udako ikastaroan"

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

Oñatiko Lege-Soziologiako Nazioarteko Erakundean 2007-2008 ikasturteko masterra bukatu berri dute; eta, dagoeneko, hasi dituzte mintegiak. Carlos Listarekin egin dugu berba haren lanaren inguruan, eta unibertsitatean antolatzen diren mintegi eta ikastaroei buruz.

Irailean hasi zinen zuzendari zientifiko lanak egiten Oñatin. Nola iritsi ziren?

Zuzendari zientifikoa aukeratzeko hautaketa prozesua egiten dute: hau da, hautagaiak aurkezten dira, eta Lege-Soziologiako Nazioarteko Erakundeko (LSNE) kideek aukeratzen dute zuzendaria.

Ni, Kordobako (Argentina) Unibertsitatean soziologia juridikoko irakaslea naiz. Hortaz, zuzendari zientifikoa izateko aukeraz berba egin zidaten. Proposamena gustatu zitzaidan, eta nire curriculum aurkeztu nuen. Hamaikagarren zuzendaria naiz. Irailean hasi nintzen lanean, eta bi urte egongo naiz Oñatin, hain zuzen ere, 2008-2009 ikasturtea bukatu arte.

Zazpi hilabete pasa dira dagoeneko. Nolako balorazioa egiten duzu orain arte egindako lanaz?

Oso gustura nago, zazpi hilabeteotako lanarekin. Oñatin bizi naiz, unibertsitateko ikasleekin egoitza, Antia Jauregian, hain justu ere. Dena den, Oñati ezagutzen nuen aurretik, hainbat mintegitan parte hartu dut-eta. Egia esan, ez nuen uste zuzendari zientifikoa izango nintzenik. Gainera, lan honek, Euskal Herriko hainbat txoko ezagutzeko aukera eman dit.

Bestalde, erakundeko langileen lana azpimarratu nahiko nuke, lan oso ona egiten dute-eta.

Zuzendari zientifikoaz gain, zuzendari administratiboa ere badago.

Bai, hala da. Zuzendari administratiboa Jose Antonio Goyenaga da, eta, besteak beste, diru kontuetaz eta ikasleekin egoitzaz arduratzen da.

Hortaz, zein da zuzendari zientifikoaren lana?

Arlo akademikoa antolatzea da nire lana. Horren barruan beste hainbat arlo daude.

Alde batetik, masterra koordinatzen dut, hori antolatzeko ardura duen Susana Arreserekin.



Argazkian, Carlos Lista unibertsitateko klaustroan.

MIREIA BIKUÑA

Besteak beste, irakasleak eta ikasleak aukeratzen laguntzen diot koordinatzaileari.

Bestalde, LSNEn egiten ditugun masterrak antolatzen oso goiz hasten gara; adibidez, ia lotuta dugu 2008-2009 ikasturteko masterra.

Ikasturte honetako masterra apirilaren 3an bukatu genuen. Ikasleak Oñatin egoten dira irailetik martxora arte. Orain, bakoitzak bere herrialdean, tesia landu beharko du, hain zuzen, apirilatik irailera arte.

Uztailera arte egingo dituzuen mintegiak antolatzea zure lana da?

Bai, hala da. Uztailera arte 13 mintegi egingo ditugu, ingelesez eta gazteleraz. Mintegietako koordinatzaileak, Euskal Herriaz gain, etorriko dira, besteak beste, Argentinatik, AEBtik, Alemaniatik, Frantziatik eta Italiatik.

Horren harira, ikerketa talde ezberdinek hainbat gai proposatzen dizkigute. Hortaz, gure

MINTEGIAK
"Mintegietarako gaiak ikerketa taldeek egiten dizkiguten proposamenen artean aukeratzen ditugu"

LIBURUTEGIA
"Lege soziologiari buruzko kontsultak egiteko oso aproposa da unibertsitatean dugun liburutegia"

BISITAK
"Masterretako irakasle izateko aukerak dituzten pertsonak gonbidatzen ditugu bisitak egitera"

lana da aukeraketa egitea. Iaz, adibidez, 32 gai proposatu zizkiguten, eta guk 13 aukeratu genituen.

Uztailera gainera udako ikastaroa egingo duzue.

Ekainaren 30etik uztailaren 4ra egingo dugu udako ikastaroa, eta ni izango naiz koordinatzaile nagusia. Globalizazioaren barruan, migrazio prozesuei buruz jardungo dugu lau egunean zehar.

Hainbat hitzaldi eta mahai inguru izango ditugu. Hasierako ekitaldian, Eusko Jaurlaritzako Justizia sailburuorde Josu Sagastik, eta Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubideen zuzendari Jon Landak parte hartuko dute. Gainera, Oñatiko alkate Lourdes Idoiak ere parte hartuko du. Era berean, udako ikastaroaren irekiera hitzaldia Roberto Marrok egingo du.

Udako ikastaroaren amaiera ekitaldia Miramar Jauregian egingo dugu.

Bestalde, ikastarora datozenekin bisita gidatuak egingo ditugu Oñatin. Dena dela, udako ikastaroaren, mintegien edo eskaintzen ditugun gainontzeko zerbitzuen gaineko informazio zehatzagoa, www.iisj.es webgunean dago.

Liburutegi espezialdua duzue Lege-Soziologiako Nazioarteko Erakundean.

Bai. 16.000 liburu ditugu bertan. Gainera, 35.000 artikulua ditugu, 134 aldizkari, eta, datu besean, 72.300 erreferentzia. Zalantza barik, lege soziologiari buruzko kontsultetarako toki aproposa da. Hala, erabiltzaile asko ditu. Horren harira, zuzendari zientifikoaren lana da, liburutegia zaindu eta eguneratu, liburu berriak erosit.

Bi argitalpen egiten dituzue, ingelesez bata, eta gazteleraz bestea.

Ingelesezko argitalpena Hart editorialarekin egiten dugu, eta gaztelerazkoa, Dykinson editorialarekin. Azken honetan, ni naiz argitaratzaile nagusietako bat, eta bietan, mintegietan landutako gaiak argitaratzen ditugu.

Bestalde, ikasle ohiek, online bidez egiten duten Sortuz aldizkaria dugu.

Bisitak ere antolatzen dituzue.

Masterretako irakasle izateko aukerak dituzten pertsonak gonbidatzen ditugu bisitak egitera. Hala, masterrak irauten duen bitartean irakasleekin eta ikasleekin hartu-eman zuzena izaten dute. Bestalde, bisitariak beraiekin lana egiten dute, besteak beste, gure liburutegia erabiltziz. Bisita sistema honek erantzuna ona izan du erabiltzaileen artean.

Ikerketa lana egiten duten pertsonen egonaldi beka eskatu ditzakete. Zertarako balio dute?

Beka horiekin eskaintzen duguna da doaneko egonaldia Antia Jauregian. Gainera, bulego bat uzten diegu beraiekin lana egin ahal izateko, eta liburutegia erabiltzeko aukera dute. Egonaldi beka doktoretza egiten dihardutenek eskatzen dute.

Bestalde, LNSEK bi beka ematen ditu: alde batetik, 1998. urtetik Chiba beka, eta, beste alde batetik, 2007. urtetik Juan Zelaia beka.



zabalik

Javier Marcos

Sarean

Globalizazioaren ikonoa da Internet. Mugarik gabeko gune zabala eta izugarria. Magia. Klik! Eta mundua eskura. Aluzinantea! Ia denetik egin leike Interneten: egunkariak irakurri (mundu osokoak), lagunak egin, kontzertuetarako sarrekar lortu, entziklopediak edo hiztegiak kontsultatu, banketxe-tako transferentziak, musika ikasi, enkanteetan parte hartu, pelikulak jaitsi, telefonoz hitz egin, bideoak ikusi,... Edozein gauza!

Lehen zelan biziko ginen Internet barik? Eta hemendik 10 urtera, abiadura honetan segituz gero, zer egin ahal izango dugu Interneten bidez? Auskalo!

Egungo datuak. Gipuzkoarrok geroz eta txoratuagoak gauden Internetekin, Gipuzkoako diputazioak egindako azterketaren artean %46a da sarearen erabiltzailea, (orain dela 10 urteko datua bikoiztuz) eta horien artean %30ak uste du Internet eta informazio teknologiak "klabeak" direla bere eguneroko bizimoduan. 25 urtez azpikoen artean %83a da sarearen erabiltzailea da.

Hona hemen beste datu interesgarri bat, Eustat institutuak emandakoa, hain justu: webgune bisitatuena, Erkidegoko top tena: *elcorreodigital.com, diariovasco.com, marca.es, hotmail.com, messenger.msn.es, kutxa.net, euskadi.net, youtube.com, eta bbk.es eta elpais.es.*

Mehatsuak. Aukerak dira nagusi, garbi. Baina arriskuren bat ere bada tartean. Erabilpenean egon leike handiena. Esate baterako, sarean kateatuta gelditzea, handik irten ezinda. Kasu asko omen dago, geroz eta gehiago. Edukiekin ere kontuz ibili beharra dago, denetik dagoen tokian mugak behar izaten dira eta. Babes-sarerik ba al da interneten? KZgunetik buelta bat egitera noa!

"Gipuzkoarrok geroz eta txoratuago gauden Internetekin"

"Aukerak dira nagusi, garbi. Baina arriskurik ere bada tartean. Erabileran egon leike handiena"

Goienkaria

Argiraratzaila Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkarteak • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
Lehendakaria Estepan Plazaola Zuzendari nagusia Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate Erredaktore burua Monika Belastegi Saitetako arduradunak Leire Kortabarria (Herriak), Xabi Urtzelai (Kirola), Alex Azkarate (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea) Erredaktorea Ubane Madera, Iker Barandiaran, Mirari Altube, Mirian Biteri, Larratiz Zeberio, Arritxu Barruso, Jasone Zabala, Mireia Bikuña, Arantzazu Ezkibel, Irati Agirreazaldegi, Oihana Elortza, Jokin Bereziartua Oinarritzko diseinua Golo Arana Maketazioa Imanol Soriano, Oxel Arrieta Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martín, Itxaso Bereziar, Aintzane Murumendiarrak Testuen zuzenketa Sergio Azkarate Harpidetza eta banaketa Marta Leturia Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Bereziar, Iratxe Bengoa.

EGOITZA NAGUSIA

BERGARA 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.com

ORDEZKARITZAK

ARRASATE 20500 Otarola Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 00
Posta-e: arrasate@goiena.com

ARETXABALETA 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com

Harpidetza Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com
Lege Gordailua: NA-3329/2000 • ISSN: 1577-1210 • Tirada: 19.400 ale • Difusioa: 19.056 ale.



OID erakundeak
ikuskatutako astekaria

LAGUNTZAILEAK



Eusko
Jauriritza



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Arrasateko
Udala



Begarako
Udala



Oñatiko
Udala



Aretxabaletako
Udala



Eskoriatzako
Udala



Antzuolako
Udala



Aramaioko
Udala



Elgetako
Udala



Leintz Gatzagako
Udala

herritarrak galdezka

BERGARAKO URBANOAREN ORDUTEGIA

Begarako, Labegaraieta auzoko irakurle batek egindako galdera da honako hau: Ze ordutegi dauka eta ze geldialdi egiten ditu urbanoak?

Bada Udalean azaldu dutenez, bi ibilbide ditu urbanoak: San Lorentzo edo San Juanetik egindako irteerak eta Labegaraietik edo Olabarrenatik egindakoak.

Lehenengo ibilbideari dagokionez, honako ordutegia du: 07:00, 07:55, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:40, 13:30, 14:10, 16:00, 16:40, 17:20, 18:00, 19:00, 19:40, 20:20. Eta geralekuak: Gasolindegia, San Martin eskola, azoka, Miguel Altuna, Ibargarai (Ertzaintzatik gertu), San Antonio, Martoko, Zubiaurre, Ozaeta eta Labegaraieta (Zabala ondoan).

Labegaraieta edo Olabarrenatik abiatzen den urbanoaren ordutegia, berriz, honakoa da: 07:20, 08:30, 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:50, 14:25, 16:20, 17:00, 17:35, 18:25, 19:20, 20:00 eta 20:30. Eta geralekuak: Labega-

raieta (Zabala ondoan), Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoloia, San Pedro, Burdiñate, Infernokua, Zubieta eta San Lorentzo auzoa.

Prezioari dagokionez euro bat balio du bidaia bakoitzak. Bestalde, ordutegia eta geralekuak kontsultatu nahi dituenak jakin dezala astero GOIENKARIAn argitaratuta ateratzen dela zerrenda. Aldizkariaren 16. orrian, hain justu ere.

Galdera egiteko:

Zerbaitetaz arduratuta bazaude eta gai horren gaineko informazio gehiago jaso nahi baduzu, bidaliguz galdera eta geu jarriko gara harremanetan dagoionarekin. Galdera egiteko bideak:

- Telefonoz: 943 25 05 05
- Faxez: 943 25 05 12
- Postaz: Goienkaria. Irizar jauregia. Barrenkalea 33. 20570 Bergara.
- Posta elektronikoz: goienkaria@goiena.com

HIRU HAUNDIXEK HIRU EGUNETAN, MENDI MARTXA Arrasateko irakurle batek deitu du galdetzeko ea Hiru haundixek hiru egunetan mendi martxarako izenematea oraindik ere zabaldik dagoen.

Bai, oraindik ere zabalik dago. Hain justu ere, apirilaren 23an bukatuko da izena emateko epea. Gainera, kontuan izan behar da partehartzaile kopurua mugatua dela; 40 laguneko, hain zuzen ere. Hortaz, konen da interesatuek lehenbailehen ematea izena. Hori egin daiteke bi modutan: batetik, 943 77 12 28 edo 943 71 21 17 zenbakietara deituta; bestetik, *aed@aedelkarte.com* helbidera idatzita

Ibilaldi hori AED euskara elkarteak antolatu du, iaz egin zuen bezala eta maiatzaren leian, 2an eta 3an izango da.

Ibilbideari dagokionez, iazkoaren berbra izango da. Lehenengo etapen egingo dute: Zaldondo-Aizkorri-Leintz Gatzaga. Bigarrean: Leintz gatzaga-Anboto-Otxandio eta hirugarrenean, Otxandio-Gorbea-Murua.

marraskiz

Alex Ugalde



Antitesia (1)

Pello Zabala
<http://berria.info/blogak/pello>

Tesia bota eta gero, antitesia izan ohi da pasagunea, zubi nahiz zurubi, sintesi biribilera iristeko. Antitesiari nahi nioke heldu, luze-zabal baitator *Sobre temporas y predicciones* lan oparaon.

Sarrera gisara dioskute, "koarta-temporei azkenaldian ematen zaien merezibako ospea dela eta, (espléndido rendimiento como sistema de predicción estacional), meteorología magia dela zabaltzeko

arriskua dagoela". Eta ezin dela hala izan, zeren: "La meteorología realiza predicciones a partir de principios físicos básicos, formulados mediante ecuaciones complejas que se resuelven en ordenadores de última generación. La sociedad dedica grandes cantidades de dinero a mantener centros de predicción numérica, sensores meteorológicos en superficie, barcos oceanográficos, boyas, radio-sondeos verticales, satélites y otros sistemas de medida". Horren denaren aurrekontua ez da txantxetako, ez. Kontu serioa da. Atzerriko behar larrienerako eskatu ohi den

% 0,7 besterik ez balitz ere, gustura hartuko genuke *koarta-tempora* eta beste, gure zaharren jakitate ahaztua biltzen saiatzen garenok.

Ez dut uste inork zalantzan ipintzen duenik meteorología ofizialaren ekarria. Ondo prestatuta dago, lan ona, eta zabala, eta ongi zabaldua egiten du. Hobera iritsiko dela uste dut eta halaxe opa diot. Halere, iragarpen laburregia lortu du, orainartikoan, egun gutxitarako, alegia. Zalantzak, iragarpenen epea luzatzeko orduan ikusten dizkiot. Oraingoz ez da gauza. Joan den urtean, urtearen hasieran,

plazara

Debagoiena izan da Gipuzkoan, nekazaritza arloan beherakada izan duen lehenengo bailara. Industrializazioak gurean izan

duen indarraren ondorioz eman da hori Mari Carmen Iturberen esanetan. Gaur egun bailarako biztanleondako landa eremua "arnas

leku" eta "aisi leku" dela azaltzen du Iturbek. Baina zer gertatzen da baserritarrekin eta eremuotako biztanleekin?

Mari Carmen Iturbe *

Nekazaritzaren etorkizunari buruz

Gure landa inguruneak ezaugarri bat baino gehiago baditu ere, bada bat azpimarratu daitekeena: ezezaguna izatea. Eskualdean bizi den jende askok, eta zer esanik ez Gipuzkoako bizilagunek, ez dute gure landa ingurunea ezagutzen.

Eskualde hau izan da Gipuzkoa mailan nekazaritza arloan gain-beherakada hasi zuen lehen. Industrializazioak indar handia du eskualde honetan, eta beste zenbait eskualdeetan baino indar handiagoz garatu da.

Eskualde maldatsua izateak alde batetik, eta industriaren erakargarritasunak eta indarrak bestetik, nekazal aktibitatea asko murriztea ekarri dute, datu kezagarrietaraino iritsiz. Zentzu honetan, Debagoieneko landa eremuan, baserri munduan, deskapitalizazio prozesu larri bat gertatu dela esatea, ez da gezurrik esatea, nahiz eta gogorra egiten den aitortzea.

Dena den, eta ibai ertzak urbanizatu badira ere eta malda askotan pinu eta basoak indarra hartu badu ere, Debagoieneko landa eremua bizirik dago, landa eremuak askok pentsatzen ez duten moduko garrantzia jokatzen du. Eskualde honetan, lur eremu handiak baserritarrek eta landa eremuko biztanleek gestionatzen dituzte, hemen ere aplikatu dezakegu portzentajearen jokoa, biztanleen %9ak lurraldearen %90a gestionatu eta zaintzen dute eta gainera gizartearentzako gain kosturik gabe. Bide nagusietatik irten eta mendi txuloetatik gora hasiz



MIKEL ARROIABE

gero, eskualde honen paraje zoragarriak bistaraten dira.

Landa auzo edo eremu horietan, baserritarra da protagonista, bere ezaugarriak aldatuz joan diren arren. Baserritarren %2ak bakarrik du nekazaritza ogibide; edo bestaldera esanda, baserritarren %98ak, baserriz kanpoko ogibidea du. Portzentaje hau, lehen aipaturiko beherakadaren adierazle bada ere, gainpotentzial baten adierazle ere bada, oraindik ere lurrari eta baserri munduko aktibitate eta izaerari lotutako jende ugari dagoenaren adierazle da.

Lehen sektorearen barruan, ez dago azpisektore bat bestetik gehiegi nabarmentzen

"Baserritarrek "jaki goxo ekoizle" eta "inguru zaintzaile" jarrai dezaten haien bizi baldintzak hobetu behar dira"

"Orain ere baditugu hainbat mamu gure atzean, AHTa esaterako. Eta zama handiena baserritarren gain doa"

denik; naiz eta basogintza eta pinudiek indar dezente duten. Nekazaritza ogibide hartuko duenik ia ez dago (dedikazio asko, inbertsio handiak,...), eta ausartzen direnak berebiziko zailtasunetatik aparte, beste muga handi batekin aurkitzen dira: etekina lortzeko moduko prezioetan salduko litzatekeen lur eskasia.

Landa eremua, eskualde honetako biztanleriarentzat "arnas leku" eta "aisi leku" da eta etorkizunera begira, paper hau indartuz doa. Baina baserritarrek eta landa guneko biztanleek "jaki goxo ekoizle" eta "inguru zaintzaile" paper horretan jarrai dezaten, beraien bizi baldintzak eta zerbitzuak hobetzeko ahaleginean jarraitu beharko da. Gizarateak badu zer esana guzti honetan; bera da baserritarren izerdiaren onuradun handiena eta gure etorkizuna gizarateak hartzen duen norabidearen arabera izango da.

Orain ere baditugu hainbat mamu gure atzean, AHT, ..., eta zama handiena berriro baserritarren gain doa. Jarduerarekin jarraitzea nahi duenak lur barik geratzen da, ordaintzen zaio dirutxo bat eta ez da aurreikusitako dirutan ordaindu ordez beste lur batez permutatzea, hori baserritarren trebezian eta merkatu librearen esku geratzen da, jaso duzun diruaz joan zaitez lurra erostera..., horrela aurrera egin ezinean geratzen gara.

*Mari Carmen Iturbe, Deba Garaia elkarte arduraduna da

zer deritzozu?

www.goiena.net

Gustatu zaizu MCCren irudi berria?

BAI	%70
EZ	%30

> EZ GEHIEGI

Ez. Koloreak ez zaizkit batere gustatu. Iruditzen zait ez daudela ondo aukeratuta, bata bestearekin ez doazela ondo. Bestalde, kooperatiba hitza kentzearekin ere ez nago oso konforme.

Iñaki

> BAI

Lehenengo irudia gustuko nuen, baina oraingoa ere ez dut txarto ikusten. Izenarekin ditut nik zalantza gehiago. Lehenkoa konplexua iruditzen zitzaidan, baina oraingoa sinplegia. Mondragon bakarrik esatea gutxitxo iruditzen zait.

Aitor

> IZEN EGOKIA

Niri ere gustatu zait izena. Iruditzen zait mundu osoan lantegiak dituen enpresak izan behar duela edozeinek ulertu eta esan ahal izateko moduko izena eta gainera, jatorriarekin lotuko duena. Eta Mondragon izenak bi baldintzok ondo baino hobeto betetzen ditu.

Amaita

DATORREN ASTEKOA: Nola berpiztuko zenituzke zure herriko jaiak?

Eman zure iritzia www.goiena.net atarian. Datorren astean argitaratuko ditugu hemen erantzun interesgarrienak.

-top

Britainia Handitik zabaldu zuten "udagi roeroa omen zetorrela, aspaldiko urteetako beroena". Aspaldiko freskoena egokitu zitzaigun. Aurten isilik gelditu ote diren, nago.

Ikurrak

Luis Aranberri 'Amatiño'
<http://eibar.org/blogak/amatiño>

Abertzaleatasuna mundura ateratzen eta hizkuntzak ikasten konpontzen dela esaten duten mundubako elebarrak sarri gutxietsi izaten dituzte inoren herri-

ikurrak eta sinboloak, huskeria horiek gizarate atzerako eta zaharkituen aldarri folkloriko samarrak direlakoan.

Baina, esanak esan, banderak, ikurrak, pendoiak, zutohiak eta harmarriak, inoren asmakizunak izatekotan, handiki eta jauntxoak dira, euren burua unibertsal eta kosmopolitatzat dutenenak. (...)

Bokazioz, botere militarren seinale dira banderak eta ez, jatorriz behintzat, herriarimaren adierazgarri. Ezein eraikinetan banderak zabalik ikusiez gero, errazago izango da udala ospitalea baino, normalago koartela museoa

baino, samurrago komisaldegia kulturetxea baino.

Animaliek txiza egiten dute lurraldea markatzeko eta gizakiok, jabego-ikurrak eta seinaleak jartzen ikasi genuen. Nazio handiek banderak ezartzen dituzte euren boterea gogorarazteko, eta nazio txikiak beste horrenbeste egiten saiatzen dira... haiek baino gutxiago ez izateko besterik ez.

Ez dirudi gaurko gizarate banderazale amorratua denik. Baina, zer gerta ere, edozein banderari gerta dakiokkeen trantzerik lotsagarriena derrigorrez jarri beharra da.

koplak

Manex Agirre

Plazer txikiak

Koplen bitartez jarri nahi nuke plazer txikiei begira: (errima pobre samarra dute baina sintzeroak dira).

Ortutik jaso berriak diren mallukiak probatzea udaberriko eguzkitara maindireak zabaltzea.

Ruperren disko berria erosi ta kotxean entzutea zortzi urtekin ikusitako filma berriz ikustea.

Betiko zuritoaren ordez Kriantza bat edatea aspaldi ikusi gabeari bisita bat egitea.

Igande goiza larunbataren abiaduraz hastea ta larunbata ingandearen barealdira jeitea.

Helburu handi, zoragarriak alferrik bilatzen hasi... Hobe txikiak pilatu eta banan bana gozarazi.

Itsu-itsuan eta entzungor aurrera doan AHT-a

Judith Arriolabengoa,
Oihana Eriz eta Garazi Eriz
(Aramaioko AHT Gelditu Elkarlana)
Aramaioko

Abiadura Handiko Trenari buruzko informazio eza ikaragarria izan da hasiera-hasieratik. Hainbat ikerketa egin dira (Euskal Herriko Unibertsitateak, Eusko Jaurlaritzak...) eta horien arabera, herritarren gehiengo zabal batek ez du inolako informaziorik jaso edo informazio eskasa jaso du.

Bestalde, herrietan antolatutako diren hitzaldi informatiboetan parte hartzerak gonbidatu zaie proiektu erraldoi honen bultzatzaileei (Eusko Jaurlaritzak), baina gure sorpresarako ez dira azaldu. Zergatik? Hain mesedegarria eta hainbeste abantaila baditu zergatik ez dute aurpegiarik ematen? Edo defendaezinak diren gezurrak ote dira?

Behin eta berriz eskatu da AHTri buruzko eztabaida zabala eta herritarren iritzia jasotzea, baina beraien interes falta ikusita, azkenik herri ekimenek bultzatu behar izan dituzte galdeketa zenbait herritan. Itxura denez, jendearen iritzia beldurra zaio. Adibide argia da Aramaioko

kasua. Oztopoak oztopo herrian inkesta egitea lortu zen, 657 aramaiorrek eskatu-ta. Herritarren %54ak hartu zuen parte eta %97ak astakeria honi ezezko borobila esan zion. Badirudi hau ez zaiela batere gustatu eta orain Aramaioko alkatea auzipetu dute prebarkazioa, desobediencia eta ondasun publikoak bidegabe erabiltzea akusatuz. Hau guztia herritarren nahia betetzeagatik. Hau ez al da alkatearen egin beharra?

Proiektu honekin ados ez gaudenoi kriminalizatzen saiatzen dira, eta itsu-itsuan eta entzungor aurrera jarraitu nahi dute. Eskoriatzan, apirilaren 15, 16, 17an eta Aramaion, maiatzaren 6, 7, 8 eta 13an, lursailen desjabetzeak egin nahi dituzte, atzera bueltarik ez dituzten kalteak eta zentzurik ez duten ikaragarriko obrei hasiera emateko.

AHT geldiaraztea eskatzen duten ahotsak gero eta anitzagoak dira, eta gero eta ozenago entzun daitezke. AHT gelditu orain!

Egin kontu

Elena Sandoval
Aretxabaleta

Aurtengo martxoaren 9a baino lehen propagandaz josi gintuzten politikariek. Horrela, gure etxeetako postontziak, paper bidezko propagandaz bete zituzten.

Hauteskunde bat eta beste bat pasa, etxean zenbat paper alferrik jasotzen dugun ohartuta, benetako neurketa bat egitea otu zitzaidan.

Horrela, sukaldeko pisua hartu eta hauteskundeetako propaganda guztia bildu ondoren, nire ikerketa hasi nuen. Paper gehien bidali zutenetik hasiko dut zerrenda. Hauek dira emaitzak: EAJ (50 gramo), PP (47 gramo), EA eta PSOE (bakoitzak 29 gramo), EB (27 gramo), Aralar (19 gramo) eta azkenik Ezker abertzalea (14 gramo). Beste hautesleek ez zuten ezer bidali. Guztira, 215 gramo paperetan.

Bakoitzak egin ditzala kontuak norberaren herriko etxebizitzak zenbatuz. Edo, errazago izan dadin, norberaren etxe-blokeko ateak zenbatu eta biderkatu 215 gramo horientatik. Horrela, ideia txiki bat egin dezakegu hauteskunde hauetan zenbat kilo paper erabili diren, kaleetakoak zenbatu gabe. Hau dena, gure diruarekin eta gure herriko zuhaitzen kontu. Gero, Agenda 21 aurrera atera behar dugu; papera, ura e.a. luze bat aurreztu. Noski, hau ere herritarren esku gelditzen da. Bestela, begiratu besterik ez dago, birziklapenari buruzko informazioa herritarroi helarazteko egiten diren liburuxken tamaina, erabiltzen den paper mota eta erabiltako koloretako tinta guztia.

Beste baten, beharbada dendetako propagandari

buruzko ikerketa bat egitea komeniko litzateke. Herritar asko kokoteraino gaude horrenbeste paperez. Ikustea besterik ez dago, geroz eta etxe gehiagotan propagandarako postontzia kanpoan nola jarri den.

Egin kontu. Nik behintzat, badaezpada, dena edukiontzi urdinera botako dut.

Kulturateko langileei, esker onez

Maitane Mate
Arrasate

Gaur egun, askotan entzuten dut ez dela literaturarik irakurtzen. Baina nire inguruan errealitatea bestelakoa da. Arrasaten, esaterako, Kulturatek antolatzen dituen literatura solasaldietara irakurle talde handi bat joaten da, eta hiletik hileria handitzen ari da, gainera.

Talde horretako kide batzuek euskarazko liburua irakurtzen dute; beste batzuek erdarazkoa, eta beste zenbaitek biak irakurtzen dituzte.

Kulturateko (herriko liburutegia) langileen arduragatik ez balitz, hau guztia ezinezkoa litzateke. Beren ahaleginari esker, Rikardo Arregi eta Iban Zaldua aritzen dira gidari lanetan, biak idazle eta solasaldi buru ezin hobekak.

Eskertzekoa da, halaber, hilero irakurri behar dugun

liburua guztiok eskura eduki dezagun Kulturateko arduradunek egiten duten ahalegina. Batzuetan idazlea bera ere gonbidatzen dute, eta irakurri dugun liburua sakonago aztertzeko aukera ematen digute.

Hau horrela izanda, inguruan ez bada gehiago irakurtzen ez da Kulturateko arduradunak saiatzen ez direlako, gauero gure ohe ondora ipuintxo bat irakurtzera etortzea besterik ez zaie falta-eta.

Berbak eta emaitzak

Gorka Rodriguez
Arrasate

Herculesi irabazi ostean, gertuago dauka Realak lehen mailara igotzea; baina urrun dago, oraindik, igoera. Eta ligaren azken zatian gaudenean entrenatzailea aldatzea oso erabaki arrisku-tsua da. Badiolak hartutako azken erabakia ez zait gustatu: Eizmendi kendu eta Lillo ipini.

Ez daukat ezer Lilloren aurka, baina ez dut uste entrenatzaile egokiena denik egoera honetarako. Futboleak emaitzak agintzen du eta entrenatzaile baten curriculumean lortutako garaipenek. Berba asko eta ondo egiteak ez du entrenatzaile bat hobe egiten. Tamalez, Lillo berba asko egiten duenetakoa da, emaitza kaskarrak lortu arren...

IRAKURLEAREN GUTUNAK Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 50 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. GOIENKARIAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.



Barrenkalea 33
20570 BERGARA



Telefonoa:
943 25 05 05



Faxa:
943 25 05 12



Posta elektronikoa:
goienkaria@goiena.com

FAGOR ARRASATE KOOP. E.



OHIKO BATZAR NAGUSIA DEIALDIA

DATA: 2008ko apirilaren 18an, ostirala.
ORDUA: Arratsaldeko 3-retan lehen deian, eta 3 t'erdietan bigarren batez.
TOKIA: Gesalbarreko "Aita Menni" Gaixotegiaren Batzar Aretuan, Arrasate.

EGUNEKO AZTERGAIK

- 1- Aktak onartzeari buruzko informe eta erabakia.
- 2- Memoriaren irakurketa eta onarpena.
 - 2.1.- 2007ko gestioari buruzko akordioa.
 - 2.2.- 2008ko Gestio Plana onartzea
- 3- "Mondragon Industriako automatizazioa" dibisioari eta Fagor Taldeari buruzko txostenak.
- 4- 2007ko kontuen eta balantzeen azterketa.
- 5- 2007ko emaitzen banaketa.
- 6- Erregimen ekonomikoari buruzko xedapen estatutarioak.
- 7- Barne erregelamenduko 68. artikulua aplikazioaren inguruko 1/2005 arauaren indarraldia 2009ko martxoak 31 bitartera zabaltzea.
- 8- Errektore Kontseiluaren komunikazioak. Fagor Taldearen berregokitze eta indartzeko proiektua.
- 9- Kooperatibako kontu aztertzailen izendapena.
- 10- Kontseilu Soziala berritzea.
- 11- Fagorreko Batzar Orokorrerako ordezkarien hautapena.
- 12- Eskariak eta itaunak.

Arrasate, 2008ko apirila
Fagor Arrasateko lehendakaria

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

**Hedabide guztietarako
telefono berria eta bakarra
943 25 05 05**



Goienkaria

Goienkaria



Goiena.net

Eskaintza honek 2008ko apirilaren 10etik 19ra balio du Urteurrenako sustapenean

AMAREN EGUNA

URTEURRENAREN

Guk betetzen ditugu 38 urte baina opariak zuk eramango dituzu



Oliba-olioa, **OLILAN**,
arina (0,4º) edo
gogorra (1º), 1 litro

3

**URTEURRENEKO
PUNTUAK**



Milioika txartel saritu daude
eta ehunka produktu
preziorik onenean!

Eta gainera 5 VOLVO
C30 Flexifuel auto eta
5 bidai munduari bira
emateko 2 lagunentzat
Zozketatuko ditugu!

2,39€

Gainera, maiatzaren 4ra arte
**Amaren
eguna**



EROSKI

zurekin

debagoienako ikastolak euskal herriaren etorkizuna ereiten

**Eskerrik asko gugan jarri
duzuen konfiantzazatik**



**TXANTXIKU
IKASTOLA**
943 78 12 04
www.txantxikuikastola.net



ARANZADI
ikastola
943 76 90 71
www.aranzadiikastola.org



Arizmendi
ikastola
902 11 20 25
www.arizmendi.ikastola.net

Herriak

Arrasate > 18-23 Bergara > 24-29 Aretxabaleta > 31-32 Oñati > 33
Eskoriatza > 34-35 Antzuola > 36 Aramaio > 37 Elgeta > 38 Leintz Gatzaga > 39



> **ARRASATE**
Biteri plaza hobetu gura du Udalak, erabilera eta itxura aldetik > 18



> **ARETXABALETA**
Kultura etxea kudeatu gura du herritar talde batek > 32



> **ESKORIATZA**
Dorletatik pasatu beharko dute Bolibarrera doazen gidariek > 34



> **ELGETA**
Herri Krosa egingo dute etzi 8 eta 12 urte bitarteko umeek > 37



ARIKETA Hainbat lagun kirol etxean ariketa egiten; laster, Zainduz-en egoitzan egin ahal izango dute.

MIRARI ALTUBE

ARETXABALETA > UDAL KIROL ZERBITZUA

Zainduz zentroa izango da behin-behineko kirol instalazio publikoa

KIROL ETXEA

Herriko kirol etxe berria egin bitartean, Zainduz-en egin ahal izango da kirola

UDAL INSTALAZIOA

Udalak Zainduz-en lokala erosi du, eta bi urtean emango du han kirol zerbitzua

LEIRE KORTABARRIA > ARETXABALETA
Aretxabaletako kirol etxe berria egiteko obrak abuztuan hasiko dira. Hala ere, aretxabaletarrak ez dira geratuko kirola egiteko instalaziorik gabe, izan ere, Udalak Ilargi plazan dagoen Zainduz fitness zentroa erostea erabaki du, kirol instalazio publiko gisa erabiltzeko obrek irauten duten bitartean.

Udalak martxoaren 31ko ohiko osoko bilkuran onartu zituen, aho batez, Zainduz erosteko hitzarmena eta baldintzak. 2008ko udal aurrekontua egiterakoan, aurreikusitako zuten lokal hori erostea, eta 355.000 euro bideratu zituzten horretarako; gainerako diru kopurua datorren urteko aurrekontuan sartuko dute.

Inazio Garro Aretxabaletako alkatearen esanetan, "ikusten zen gutxienez bi urtean aretxa-

baletarrek ez zutela izango inongo kirol instalaziorik, eta hori konpontzeko erabaki da Zainduz-en lokala erostea". Ekimen horrekin, Udalaren nahia da "Aretxabaletako abonatuak instalazio txukun eta duin batzuk izan ditzaten kirol jarduerak egiteko".

INTSONORIZAZIO LANAK

Udalak ekain bukaerarako, berandu jota, hartuko du lokal haren eta hango ondasunen jabetza. Ordura arte, Zainduz-en lanean jarraituko dute; behin-behineko kiroldegi gisa erabiltzen denean, gaur egun kirol etxean diharduten langileek jardungo dute han.

Bestalde, ateak ireki aurretik, uztailean eta abuztuan, lokalaren zati batzuk intsonorizatzeko lanak egingo dituzte, izan ere,

lokal ondoan bizi diren herritar batzuk zarataz kezatu ziren bere egunean.

IGERILEKURIK EZ DU

Zainduz fitness zentroaren instalazioetan, Aretxabaletako abonatuak orain arte egin izan dituzten kirol jarduerak gehienak egiteko aukera izango dute. Garroren hitzetan, "masaje eta sauna gelak, fitness aparatuak, spinning-a, yoga, pilates gimnasia... egiteko aukera egongo da". Alkateak gaineratu duenez, "oraindik ez dago erabakita zehazki ze jarduerak eskaini, baina gaurko oso antzekoa izango da eskaintza".

Desberdintasun nabarmen bat egongo da, ordea: igerilekurik ez da egongo. Hori konpontzeko, Aretxabaletako Udalaren asmoa da Eskoriatzako eta Arra-

sateko Udaletara jotzea eta eskera egitea, aretxabaletarrek hango igerilekuak erabiltzeko bidea izan dezaten.

"OSO PROIEKTU IKUSGARRIA"

Kirol etxe berriko proiektua dagoeneko entregatu diote Udalari. Aurreko agintaldiko ekimen baten bidez, ideia-lehiaketa egin zen, eta oraingo udal gobernuak ondo ikusi du lehiaketako irabazlearen ideiarekin aurrera egitea. Inazio Garroren hitzetan, "oso proiektu polita da, oso ikusgarria, eta edozein ekintza mota egiteko aukera emango du kirol etxe berriak". Zehaztu duenez, "ez dauka kanpoko igerilekurik, baina bai barrukoa eta, ondoan, ate zabal eta luze bat, solarium batekin lotuko duena hura". Abuztuan botako dute oraingo kirol etxea.

zerbitzuak

GUARDIAKO FARMAZIAK

ARRASATE

Table of pharmacy services in Arrasate, listing names like Zapatua, Domeka, Astelehena, etc., and their phone numbers.

BERGARA

Table of pharmacy services in Bergara, listing names like Zapatua, Domeka, Astelehena, etc., and their phone numbers.

ONATI

Table of pharmacy services in Onati, listing names like Zapatua, Domeka, Astelehena, etc., and their phone numbers.

ARETXABALETA

Table of pharmacy services in Arretxabaleta, listing names like Zapatua, Domeka, Astelehena, etc., and their phone numbers.

Guardiako farmazien eskuko telefonoetarako 2008ko egutegia eskuratzeko, bidali SMS bat 7505 zenbakira "farma" hitza jarriz. SMS kostea 0,9 euro + BEZ.

TELEFONO JAKINGARRIAK

((112)) SOS DEIAK

OSASUNA ETA LARRIALDIAK

Table listing emergency and medical services with phone numbers, including Antzuola, Gurutze Gorria, and various clinics.

GARRAIOAK

Table listing transport services with phone numbers, including PESA and Taxiak.

DEBAGOIENA

Table listing services in Debagoiena with phone numbers, including Mankomunitatea and Hiltetgia.

Kiroldegia

Table listing sports facilities with phone numbers, including Aramaio and Arrasate.

Kultura Etxeak

Table listing cultural centers with phone numbers, including Antzuola, Aramaio, and Arrasate.

Udalak

Table listing municipal services with phone numbers, including Antzuola, Aramaio, and Arrasate.

URBANOAK

ARRASATE

Gorostizatik Eroskira (2 Linea) 08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.

Eroskitik Gorostizara (2 Linea) 08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.

Gorostizatik Eroskira (1 Linea) 08:30, 09:30, 10:30, 11:30, 12:30, 13:30, 14:30, 15:30, 16:30, 17:30, 18:30, 19:30, 20:30 eta 21:30.

Eroskitik Gorostizara (1 Linea) 08:05, 09:05, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 14:05, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 20:05 eta 21:05.

BERGARA

San Lorentzo/San Juandik irteerak 07:00, 07:55, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:40, 13:30, 14:10, 16:00, 16:40, 17:20, 18:00, 19:00, 19:40 eta 20:20.

Labegarieta/Olabarretetik irteerak 07:20, 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:50 (Olatik), 14:25 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:35, 18:25, 19:20, 20:00 eta 20:30.

ARAMAIOKO AUTOBUSA

Table with columns for Arrasate, Aramaio, Gasteiz, and Arrasate, showing bus routes and times.

eguraldia

DEBAGOIENEAN



Zapatua, 12

Hodeiak, ostarteak eta, noiz-behinka, zaparradak izango ditugu. Haizeak mendebaldetik joko du.




Domeka, 13

Okerrera egingo du nabarmen; hodeiak ugalduko dira eta euria egingo du.

EUSKAL HERRIAN

Bihar, mendebaldeko haizeak hodeiak, ostarteak eta zaparradak ekarriko ditu; azken horiek ugari egingo dira.



TENPERATURAK

MINIMOA Domeka, 6 2 °C

MAXIMOA Zapatua, 5 20 °C

ASTEKO EURIA (l/m²) 5,9 L

Table showing Max, Min, and Euria for different dates from Eguaztena to Martitzena.

Bergarako San Juan auzoan jasotako datuak.

ILARGIA APIRILEAN

Table showing moon phases for Ilbete, Ilbehera, Ilberri, and Ilgora.

oharrak eta deialdiak

ARRASATE

> Txatxilipurdiren udalekuan izenematea

Uztaileko udaleku irekiarako izenematea epea zabaldu du Txatxilipurdik Arrasateko 2-10 urte arteko umeendako.

ARRASATE

> Errioxara irteera egingo dute Abaroakoek

Errioxara irteera antolatu dute Abaroa erretiratu elkarteak hilaren 16rako.

BERGARA

> Kapea irteera egingo dute Nafarroara

Kapea irteera antolatu dute Bergarako Zezenzaleak taldekoek Nafarroara, hilaren 20rako.

ONATI

> 82an jaiotako guztiei dei egiten diete

1982an jaiotako talde bat kinto ospakizuna antolatzen dabil, eta urte horretan jaiotako denei dei egiten diete.

kinttuak82@gmail.com Electric Weekend jaialdira joateko autobusa antolatu dute herritar batzuek.

ESKORIATZA

> 'Jarri zure egoa bere lekuan' delako berbaldia

Jarri zure egoa bere lekuan delako hitzaldia egingo du Valentín Zurbanok gaur.

BERGARA

> Orfeoiko bazkideek batzarra egingo dute

Orfeoiko bere urteko ohiko batzarrera deitzen ditu bazkide guztiak.

DEBAGOIENA

> Getafeko Electric Weekend-era autobusa

Maiatzaren 30ean eta 31n Getafen (Madril) izango den

Electric Weekend jaialdira joateko autobusa antolatu dute herritar batzuek. Argibideak: 615 00 67 60 edo xabikip@hotmail.com.

BERGARA

> Dislexiaren gaineko hitzaldia egingo da

Dislexia ezagutu, eskola porrota eragiten duten irakurketa-idazketa arazoak delako hitzaldia egingo du Eduardo Herrera adituak.

ARETXABALETA

> Argazkilaritza digitala ikasteko aukera

Argazkilaritza digitalaren gaineko ikastaroa antolatu du Lora-mendi elkarteak apirilaren 14, 21 eta 28 eta maiatzaren 5erako.

BERGARA

> 1965ean jaiotakoek afaria egingo dute

1965ean jaiotako bergararren anai arteko afaria egingo dute apirilaren 26an Txar-rantxa jatetxean.

ARETXABALETA

> Makillaje ikastaroa emango dute

Gemes edertasun aretoko kideek zelan makillatu irakatsiko dute datorren egubakoitzean.

BERGARA

> Euskara elkarteengaineko erakusketa

Euskara elkarteengaineko erakusketa egingo da apirilaren 19a bitartean.

BERGARA

> Sendabelarren gaineko ikastaroa, laster

Sendabelarren inguruko ikastaroa antolatu dute, eta izenematea zabalik dago.

943 25 05 05 goienkaria@goiena.com

kale inkesta

Errenta aitortpena zuk egiten duzu ala egin egiten dizute?



Ana Mari Arrizabalaga
Langilea
Aramaio



Maria del Palacio
Langilea
Aramaio



Karmelo Bideburu
Langilea
Aramaio



Begoña Arriaran
Langilea
Aramaio



Iñaki Zabala
Langilea
Bergara

Pasa den urtean eginda etorri zitzaidan, baita aurturten ere. Nire ustez, norberak egin beharko balu, zaila izango litzateke, datu asko batu behar direlako. Gainera, gehienetan, ordaintzea tokatzen da.

Nik banketxera eramaten dut, eta bertan egiten didate. Errazagoa eta erosoagoa da. Nire eskutik egongo balitz egitea, ez nuke jakingo nola egin, nahiko zaila ikusten dut.

Nik ez dut errenta aitortpenik egiten, ez baitut ezertxo ere deklaratzeko nahi. Dirua kentzeko trinkimailua baino ez da errenta aitortpena. Dirua kendu nahi badute, aberatsei kendu diezaietela.

Banketxera eramaten ditut beharrezkoak diren paper guztiak, eta bertan egiten didate. Erosoagoa da horrela. Nire eskutan utziko balute, asko kostatuko litzaidake egitea.

Banketxeak egiten dit batzuetan, eta beste batzuetan, eginda etortzen zait. Paper asko dira esku artean, eta errazagoa ikusten dut banketxeok aitortpena egiteko ematen duten laguntza.

5 galdera...

Maria Jesus Prieto

Bolu sukaldeak
Bergara

1. Zein da etxeko tresna berrien berezitasun nagusia?

Batik bat, diseinua. Koloreari dagokionez, aldaketa handia egon da. Oinarri zuriaren gainean kolore izpi bat jartzeko proiektua atera du marka jakin batek, garbigailuetako atetxoa laranja jarritz, adibidez. Herdoilezina moda-modan dago ere.

2. Teknologiari dagokionez, zein izan da tresnen eboluzioa?

Izugarrizko aldaketa izan dute. Zortzi kiloko garbigailua, adibidez, lehen pentsaezina zen. Hozkailuei dagokionez, *no frost* sistemak abantaila asko ekarri ditu. Oraingo tresnek zarata gutxi ateratzen dute eta ekologikoagoak dira.

3. Marka ezberdinek tresna ezberdinak egiten dituzte?

Lehia handia dago. Hala, marka batek zortzi kiloko garbigailu bat atera zuenean, beste guztiek ideia kopiatu zioten. Gaur egun, diseinuak ezberdintzen ditu marka batzuk besteengandik. Ez dakigu ondo ibiliko diren, baina laster irtengo da lehen aipatutako marka diseinu berri-tzaile horrekin.

4. Zein da dendako etxeko tresnen ezaugarri modernoena?

Labeetako pirolisia eta *no frost* delakoa hozkailuetan. Bitrozera normala dagokionez, ez dira asko aurreratu; orain azkarragoak dira, baina bestela, ez dute aldaketarik izan. Indukzioak aldiz, berriak dira, eta oso onak.

5. Erroste ohituren gaineko bitxikeriarik bada-kizu?

Mikrouhina, adibidez, jende gutxi eskatzen digu. Denok uste dugu guztiek dutela horrelako bat etxean, baina jendeak ez ditu ia eskatzen; eskatzen, txikiak eta oso praktikoak, gauzak berotzeko soilik balio duten horietakoak. Eskaintza zabala dagoen arren, janaria prestatzeko balio dutenak ez dira ia saltzen.



txaloak



GOIENKARIA

Usondo parkeko iturriak, aurpegi garbia



Duela bi hilabete eta erdi bergarar baten kexa bat jaso genuen herriko Usondo parkeko iturriak zuen egoera zela- eta. Guztiz margotuta zegoela adierazi zigun, egoera eskasean, eta zegokionari konpondu zelan eskatu zuen. Halaxe gertatu da, eta aste honetan jaso dugun argazkian ikusi daiteke iturriari aurpegia garbitu diotela.

asteko datua

1.000

Tecnun Unibertsitateak antolatutako laugarren diseinu lehiaketako bigarren saria jaso dute Txantxiku ikastolako ikasle batzuek. Sari moduan, Decathlonen gastatzeko 1.000 euroko erosketaxeke. Tenisko erraketendako gehigarri baterako proiektua egin zuten.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria

POLITIKA > EZOHICO OSOKO BILKURA

Alkate izateko hautagaiak sozialista izan behar duela uste du PSE-EEK

EAJren ibilbide orriarekin bat egin eta mozioa aurkeztuko dute PSE-EEK eta EAJK

Bi alderdiek eskatu dute ezohiko osoko bilkura egitea, ahalik eta lasterren

UBANE MADERA > ARRASATE

Ezohiko osoko bilkura eskatu dute EAJ eta PSE-EEKo Arrasateko zinegotziek asteon alkateztan. Bilkura horretan bi alderdien artean adostaturiko mozioa aurkeztuko dute.

Mozio horretan eskatzen dutena zera da: Udal arduradunek konpromiso "garbi eta kontsekuentea" har dezatela honako lau puntuen gainean: "Giza duintasunaren errespetua, eta bereziki bizitzarako eskubidea izan daitezela eskubide guztien eta askatasunaren oinarri. Pertsona guztien giza eskubideen defentsa eta eskubide horiek errespetatu ezean, hori

arbuatzea. Aniztasun politiko, sozial, ideologiko eta identitarioa onartzea eta horiek bermatzea. Eta eskusiboki bide politiko, demokratiko eta elkarrizketatuaren aldeko apustua, eta, ondorioz, indarkeriaren erabileraren aurka agertzea eta gaitzestea, baita indarkeria hori posizio politikoak defendatzeagatik edo prozesu politikoak hondatzearen mehatxu egiteko erabiltzen denean ere".

Gaineratu dute "printzipio horien argitasunean, ETaren ekintza terroristak, bere azken atentatu hilgarriak eta bere azken komunikatuan adierazitako mehatxuek printzipio horiek urratzen dituztela". Eta azkenik, diote "aurreko puntuekin bat ez datozen udal arduradunen dimisioa" eskatuko dutela.

Ezohiko osoko bilkura hori noiz izango den oraindik ez dute jakinarazi alkatetzatik, baina EAJk eta PSE-EEK eskatu dute urjentziakoa izan dadila.

ALKATE SOZIALISTA

Mozioari dagokionez, Paco Gartzia sozialistak azpimarratu du mozioan "gaitzespen hitza modu esplizituan jasotzen" dutela, "EAEk eta alkateak orain arte egin ez duen



Paco Gartzia sozialista. GOIENKARIA

gaitzespen hori". Gartziak gaineratu du "ados" daudela EAJk markatutako ibilbide orriarekin. Dena dela zera ere gaineratu du: "Uste dugu Arrasaten eman direla dagoeneko aurrerapausu batzuk, eta zuzenean zentsura mozioa aurkeztea nahiago genuke. Baina pozik gaude lortutakoarekin. Izan ere, bi alderdien artean finkatu

MOZIOA, LABUR

4 PRINTZPIO ETA DIMISIOA

- 1- Giza duintasunaren errespetua, eta bereziki bizitzarako eskubidea izan daitezela eskubide guztien eta askatasunaren oinarri.
 - 2- Pertsona guztien giza eskubideen defentsa; eskubide horiek errespetatu ezean, hori arbuatzea.
 - 3- Aniztasun politiko, sozial, ideologiko eta identitarioa onartzea eta bermatzea.
 - 4- Bide politiko, demokratiko eta elkarrizketatuaren aldeko apustua; indarkeriaren erabileraren aurka agertzea, eta gaitzestea indarkeria hori posizio politikoak defendatzeagatik mehatxu egiteko erabiltzen denean ere.
- Printzipio horiekin eta ETaren kontrako gaitzespenarekin bat egiten ez dutenen dimisioa eskatuko dute.

tzea. Hala ere, mundu guztiak daki udal hauteskundeetan sozialisten hautagaia ni izan nintzela". PSE-EEKo ordezkariak aurreratu du EAJrekin hitzartuta dutela zentsura mozioa. Eta aprobetxatu gura izan du kontu hau eskeretzeko "Isaias Carrascoren familiarri eta guri emandako babes". Gaineratu du, "Isaiasen izpiritua bizirik jarraitzen duela" euren, eta hala segituko duela.

EXEKUTIBETAN LANEAN

Alderdi nazionalistari dagokionez, berriz, Luis Mari Apraiz bozeramaileak aditzera eman du bi alderdien exekutiben artean adostutakoa izan dela mozioa. Hurrengo alkatea nazionalista izango den galderari erantzunez, berriz, zera dio: "Ez dut uste hortik joango denik. Gainera, orain egin duguna da lehen pausoa; zentsura mozioa izango da bigarren pausoa eta oraindik ez dugu landu. Lan gogorra egin beharra dago: zein izango den alkate, udal gobernabilitatearen gainean... alternatiba guztiak daude zabalik eta ez dugu baztertzeko oposiziora ez garenik joango. Dena den, alderdien exekutibak dira instrukzioak ematen dabilzanak".

dugun ibilbide orri horren helburua da Arrasateko alkatearen dimisioa lortzea".

Zentsura mozioari dagokionez, Gartziak aurreratu du "printzipioz hautagaia sozialista" izango dela: "Zerrenda bozkatuena errespetatuta, hautagaia partidu sozialistakoa izan behar da. Ez dut gura inoren pertsonaliza-

OBRAK > BITERI PLAZA

Biteri plaza "apur bat txukundu" gura dute, maiatzerako

Pedro Biteri eta Arana filantropo arrasatearraren urteurrena badatorrela-eta, plazaren itxura hobetu egin gura dute

UBANE MADERA > ARRASATE

Biteri plaza eraberrituaren itxura eta erabilera zela hobetu aztertzeko Udaleko Obra eta Zerbitzuen Saila azkenaldian.

Patxi Arburuak, Obren Sailko arduradunak jakinarazita, Udalaren etorkizuneko helburua da Biteri plazaren gainean azterketa orokor bat egitea, "ikusita herritar asko ez dela konforme geratu plaza haren azken itxurarekin".

BEHIN-BEHINERAKO KONPONKETA

Edozelan ere, horrekin batera, Arburua zinegotziak gaineratu du azterketa hori egin bitartean



PERGOLA Biteri plazan eraikitako pergolak eragin ditu, bereziki, herritarren kritikak, euria eta hotza sartzen direlako. u.m.

plaza hura apurtxo bat txukuntzen ahalegindu behar direla, bereziki, obren arduradunaren esanetan, "maiatzean Pedro Biteri eta Aranaren urteurrena dela-eta, plazari itxura hobea eman gura" diote; edo bestela esanda, apur bat txukundu gura dute.

LORATEGIAK ETA ZABUAK

Horren harira, zinegotziak azaldu du asmoa dela Biteriko lorategiak apurtxo bat txukuntzea, "behin-behinerako bada ere, lorategiak konpondu gura ditugu, orain egoera eskasean daude-eta, lurraren parean daudelako; hori

ikusita, akaso belarra ereingo dugu, ideia dugu, baita ere, landare batzuk sartzeko...". Horrez gain, umeen jolastokian dauden hutsune batzuk aprobetxatu eta inguru hartan aparailu berriak ere ipini gura dituztela azaldu du obretako zinegotziak.

Monte
taberna

Maalako errabala 2
Tel.: 943 79 20 56



URETAN Udalekuetako ume batzuk, igerileku puzgarrian jolasean.

TXATXILIPURDI ELKARTEA

AISIALDIA > TXATXILIPURDIEN UDALEKUAK

Abiarazi dute 400 bat neska-mutikorendako ekimena, udalekuak

Begirale izateko eta gaztetxoendako udalekuan izena emateko epea zabaldu dute

UBANE MADERA > ARRASATE

Uda oraindik apurtxo bat urrutu ikusten dugun arren, Txatxilipurdi elkarteak badabil udara begira lantzen duen ekimen nagusia prestatzen: udalekuak.

Joan zen astean zabaldu zuten, hain zuzen ere, udaleku horietan begirale izateko izena emateko epea. Eta oraingo aste honetan zabaldu dute, berriz, umeendako izena emateko epea. "Begirale moduan parte hartu gura dutenek apirilaren 30era arte dute epea; eta umeen matrikulazio kanpaina zabaldu dugu, hain zuzen, udaleku irekietan 2-10 urte bitarteko umeek izena emateko epea. Datorren astelehenan zabalduko dugu, berriz, 10-16 urte bitarteko gazteendako izena emateko epea", azaldu du Maite San Vicentek, Txatxilipurdi elkarteak Haurren Saileko arduradunak.

LEKU MUGA, ZENBAITETAN

Txatxilipurdiko langileak emandako xehetasunen arabera, izena emateko epe guztiak bukatuko dira maiatzaren 16an. Eta gaineratu du zenbait kasutan adi ibil-

tzea komeni dela, neska-mutiko kopuru mugatu hartuko dutelako eta izenemate ordenaren arabera hartuko dituztelako: "2-10 urteko ume guztiendako izan dugu lekua beti eta, aurten ere, izatea espero dugu, beraz, hor ez dago arazorik. Baina 10-16 urte bitarteko gaztetxoendako badago muga; tokiaren arabera hartuko ditugu eta 10-16 urte bitarteko 30-40 gazterendako lekua bakarrik izango da. Hortaz, komeni da lehenbailehen izena ematea".

GAZTETXOENAK, IREKIETAN

Udalekuen eskaintzari dagokionez, berriz, eskaintza klasikoak eta eskaintza berriak izango dira aurtengo edizioan. San Vicentek esplikatu du, adibidez, udaleku

irekietan herrian jardungo dutela, baina txangoak ere egingo dituztela: "Hiru auzotan antolatuko ditugu: San Andresen, Musakolan eta erdialdean. Auzoaren eta adinaren arabera sailkatuko ditugu umeak. Horren arabera, 2 urteko umeendako izango dira bi orduko udalekuak egunean; 3-6 urtera bitartekoendako, berriz, 10:00etatik 13:00etara izango dira udalekuak eta 6-10 urte bitartekoek aukera izango dute goizez bakarrik edo goizez eta arratsaldez parte hartzeko. Gainera, udaleku horiek Arrasaten bertan izan arren, irteera mordoa egingo ditugu, hondartzara, igerilekura, Lalezera eta abar".

NAGUSIAGOAK, UDALEKU ITXIETAN

14-16 urte bitartekoendako, berriz, ekimen berria prestatzen dabil aurten Txatxilipurdi: *Kosta ala Kosta* izenarekin, Gipuzkoa eta Bizkaiko kostaldearen artean astebeteko ibilaldia antolatu gura du: "Donostia-Zarautz-Orio-Lekeitio izango da. Lasai samarra izango da ibilaldia, bidean ekintza batzuk eginez", adierazi du Maite San Vicentek; azaldu du iaz "motxileo" eskaintza egin zutela, baina ez zela sortu talderik; "hortaz, aurten pentsatu dugu ibilaldi lasaia egitea, eta ia taldea sortzen den".

Getariako udalekuak ere berria da. Iaz Etxarrin izan ziren moduan, aurten kostaldera joatea erabaki dute.

Udaleku mota desberdinak

UDALEKU IREKIAK

2 urtekoak: 2 ordu egunean
3-6 urte: 10:00etatik 13:00etara
6-10 urte: goizez bakarrik edo goizez eta arratsaldez
Uztailaren 2tik 22ra

UDALEKU ITXIAK

14-16 urte bitartekoendako
Orioren: bi txanda, uztailaren 1etik 11ra eta 11tik-21era
Getaria: uztailaren 8tik 15era
Kosta ala Kosta: Donostia-Zarautz-Orio-Lekeitio, 3tik 10era

SEXOLOGIA ZERBITZUA > SEXMETRAIA LEHIAKETA

Sexualitatea lantzen duten film laburren lehiaketa

Ohiko film laburrak aurkezteaz gainera, sakelako telefonoarekin grabatutakoak ere aurkeztu ahal dira

U.M. > ARRASATE

"Sexualitatea bizitzeko ditugun moduak kaleratu eta goraipatu", horixe da Udal Sexologia Zerbitzuak abiarazi duen Sexmetraia film laburren lehiaketaren helburua. "Gizon edo emakume sentitu eta bizitzeko ditugun moduak pantailaratu nahi ditugu", azaldu du Larraitz Arandok, Sexologia Zerbitzuko arduradunak. Gaineratu du lehiaketan parte hartzeko film laburren gaia bakarra dela: sexualitatea, baina haxe ere gaineratu du: "Gai bakarraren barruan, mila aukera".

NAZIOARTEKO LEHIAKETA

Bigarren aldia du aurten Sexmetraia lehiaketak, eta iragarri dute "aurteko edizioak izan zuen arrakasta dela-eta, aurten

ere indartsu" datorrela. "Lehiaketa nazioartekoa da; hau da, ez du mugarik eta Euskal Herrikan kanpokoek ere aurkez ditzakete filmak. Aurreko edizioan, adibidez, Kataluniatik, Madrilatik, Paristik, Euskal Herriatik... bidali zizkiguten lanak eta aurten ere pentsatzen dugu jendea animatuko dela", azaldu du udal teknikariak.

SAKELAKO ERABILITA, SEXMUGI

Horrez gainera Arandok iragarri du aurten atal berria izango duela lehiaketak: Sexmugi. Hau da, sakelako telefonoarekin grabatutako film laburrak ere onartuko dituzte, asko jota, 60 segundokoak. "Film labur ohikoa egitea zailegia dela pentsatzen dutenek ere lehiaketan parte har dezaten pentsatu dugu atal berria", azaldu du Arandok.

Bestalde, sariei dagokienez, hiru izango dira: irabazleendako, 1.500 euro; euskarazko lan irabazleendako, 600 euro eta Sexmugi saria, 300 euro.

Film laburrak aurkezteko azkeneko eguna da irailaren 30a. Informazio gehiagorako, begiratu honako helbidean: www.sexologiazerbitzua.com.

GAZTEAK > GAZTE TXOKOAK

Ikastaro amaierako jaia egingo dute Erguinen

Gitarra ikastaroa amaitzeko, kontzertua eta merienda egingo dituzte egunean

U.M. > ARRASATE

Erguingo gazte txokoan pare bat hilabetean jardun dute gitarra hastapen ikastaroa egingo duen Unai Azkarate bergararren gidaritzapean (Mahaster River eta Azkater Pelox taldeetako musikaria). Gitarra teknikak eta kontzertu bat zela antolatu ikasten ibili dira, hain zuzen. Bada, ikastaroa bukatu dute eta, orain, ikastaro amaierako jaia iragarri dute egunero, hilaren 17rako.

HEMENGO ETA MUNDUKO MUSIKA

Ikastaroan ibili diren 12-16 urte bitarteko 10 gazteak gonbidatu dituzte jaira; "Unai Azkaratek berak musika joko du; gonbidatu dugu, baita ere, Ebert Sanchez (kantautore venezuela-

rra), bestelako lurralde batzuetako musika jo dezan, eta Arrasateko Ain 1 nesken musika taldeak ere jardungo du. Horrekin batera, merienda ere egingo dugu", jakinarazi du Lander Juaristik, Gazte Txokoaren arduradunak.

HANKA-PALO IKASTAROA

Bestalde, hark gaineratu du datozen bi eguztenetan, apirilaren 16an eta 23an, hanka-palo ikastaroa egingo dutela Musakolako Gazte Txokoan. Kukumarro elkarteak Mikel Ibartzabal bergararra izango da irakaslea eta 12-16 urte bitarteko edozein gaztetxok parte har dezake, "nahiz eta ez izan Musakolako". Izena emateko, Txatxilipurdira jo behar da

GOMA-APAR IKASTAROA

Bukatzeko, apirilaren 26rako beste ikastaro bat iragarri dute gazteendako: goma-aparra lantzen ikasteko ikastaroa izango da, Kukumarro elkarte beraren eskutik. AEDren txokoan egingo dute.

ANTZERKIA > HAURRENDAKO IKUSKIZUNA

'Lorategian', antzerkia ezagutzen hasteko aukera paregabea

Bihar antzerkia, bideoak, itzalak eta marrazkiak biltzen dituen emanaldia ikusi ahal izango dute haurrek eta gurasoek Amaia Antzokian

MIRIAN BITERI > ARRASATE

Amaia Antzokiko agertokiak *Lorategian* antzezlan hartuko du bihar, zapatua, 17:00etan. Paraiso Antzerki talde gasteiztarrek eta Guimbard-eko talde belgikarraren arteko koprodukzio hori urtebete eta hiru urte bitarteko umeei zuzenduta dago.

Antzerkia, bideoa, itzalak eta marrazkiak nahastuko dira; alegia, haurren erakargarriak izan daitezkeen elementuak. Ziurrenik, haurrek lehenengo kontaktua izango dute antzerkiarekin eta, beraz, antzezleek konfiantza giroa sortu nahi dute.

EMANALDIA *Lorategian* ume ikuskizuneko momentua.

GOIENKARIA

AGERTOKI GAINEAN

Hori horrela izan dadin, umek nahiz gurasoak agertokira igoko dira, antzezleekin batera. Umeak eserlekuetan eserita egongo ez

direnez, tokia mugatuta egongo da. Guztira, 90 lagunendako tokia dago. Edizioa ixterako orduan, sarrerak geratzen ziren saltzeko. Betiko tokietan daude, lau euro-

ren truke: Amaia Antzokian, Servikutzako kutxazainetan, Interneten eta Telekutxan. Arrakastaren araber, Udalak bigarren emanaldi bat antolatuko du.

MUSIKA

Kultura Live elkartean sartuta dago 3.60 aretoa

Zuzeneko musikaren areto pribatuen elkarte bat sortu dute Euskal Herrian

M.B. > ARRASATE

Euskal Herriko kultura bul-tzatze asmoz, Kultura Live elkarte aurkeztu da hilaren hasieran, Iruñean. Zuzeneko musika eskaintzen duten areto pribatuek sortu dute talde hori.

Orain arte, guztira, hamasei areto bildu dira elkarte horretan. Tartean, Debagoieneko bat: 3.60 aretoa.

HELBURUA

Erakundeek eta gizarteak areto pribatuek kulturaren alde lan egiten duten lana onar dezaten gura du Kultura Live elkarteak. Hala, erakundeekin nahiz arlo horrekin loturiko elkarteekin akordioak lortu nahi ditu. Horrez gain, web gunek ere sortuko du.

MUSIKA > KONTZERTUAK

Kokein talde eibartarra igoko da bihar, zapatua, gauean, 3.60 aretoko agertokira

M.B. > ARRASATE

Aste bukaeran kontzertuak egongo dira 3.60 aretoan. Bihar, zapatua, Kokein eta Willis Drummond taldeek joko dute, 23:00etan. Sarre sei euro kostatuko da. Jarraian, 04:00ak inguruan, DJ sesioa izango da, DJ Humana (Komplot Donosti) eta Conde Cerorekin.

THE SOULBREAKER COMPANY

Egubakoitzean ere musika taldeak igoko dira agertokira: The Soulbreaker Company eta Obligaciones. Emanaldiak 23:00etan hasiko dira. Sarrerak zortzi euro balioko du.



Kokein Talde eibartarra bihar izango da Arrasaten.

GOIENKARIA

> ZINE ZIKLOA

'Propiedad privada' film laburra eta 'XXY' luzea, Emakume Txokoak antolatutako zinema zikloan

Emakume Txokoak antolatzen duen *Emakume zuzendariak, emakume protagonistak* zine zikloaren barruan, *Propiedad privada* film laburra eta *XXY* drama ikusi ahal izango dira hilaren 17an, eguena. Filmak Amaia Udala antzokian izango dira, 20:30ean. Sarre lau eurokoa izango da. Datorren apirilaren 24an amaituko da aurtengo zinema zikloa.

> MUSIKA

IV. Udaberriko Musikaldia emanaldiz josita dator gaur, egubakoitza, hasi eta domekara bitartean

IV. Udaberriko Musikaldiaren egitarauak aurrera dihardu. Gaur, egubakoitza, Ander Gonzalez gitarra-jolea entzuteko aukera izango dute Kulturateko areto nagusira doazenek. Bihar, KUP abesbatzaren txanda izango da toki berean; eta domekan, Zarauzko musika banda arituko da Amaia Antzokian. Lehenengo bi emanaldiak 20:00etan izango dira; azkena, berriz, 12:30ean.

**BASATI
TABERNA**

943 711768

Lore

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50

IAMA ANTZOKIA
kafe
ARRASATE

Gaur, APIRILAK 11
Toño | Magia saioa

eta APIRILAREN 18an
Martin Luna | Musika ikuskizuna

Ikuskizunak 00:00etan izango dira.

Egoitza berria Arrasaten !!!

**INAUGURAZIO EGUNA
APIRILAK 21**

Iturriotz kalea 35-Behea
20500 Arrasate
Tel.: 943 71 26 31
eposta: cursos@komalingua.com
www.komalingua.com

Norentzat :

- Profesionalak
- Enpresak
- Unibertsitarioak
- Haurrak
- Nerabeak
- Nagusiak

koma
hizkuntza
zerbitzuak

Zure hizkuntza aukera ezazu:

Euskara, Ingelesa, Alemana,
Frantsesa, Italiara, Gaztelera
atzeritarrei zuzendua, etab.

Eta gainera ondoko hizkuntza
bereziak! Txinera, Arabiera,
Errusiera

Zure hizkuntza aukera ezazu:

- * Hizkuntza ikastaroak
- * Itzulpenak
- * Interpretaritza
- * Hizkuntza Aholkularitza

**Hazi
gurekin !**





DEBARROKO TXAPELKETAN Gracia pilota astintzeko gertu, Iñurrategi eta Uribarren (atzean) begira dituela, martitzeneko partiduan.

XABIER URTZELAI

Zapatuan Bergaran jokatu dituzte Gipuzkoako Udaberri Txapelketako finalak, Bergaran. 11:00etan hasiko da jaialdia

XABIER URTZELAI > ARRASATE
Debagoieneko pilotariak hainbat txapelketetan dabilta buru-belarri, atsedena hartzeko ere asti barik, eta Egoitz Uribarren da adibide garbia. Arrasatekoak Udaberri Txapelketako finala jokatu du bihar Bergaran, Anorgaren kontra –goizeko hirugarren norgehiagoka izango da–. Martitzenean, baina, Axperekin batera Debarro Txapelketako jar-

PILOTA > UDABERRI TXAPELKETA

Uribarrenen eta Agirrek Añorgaren kontra jokatu dute finala

dunaldia izan zuten Eskoriatzako Gracia eta Iñurrategiren kontra (22-17), eta atzo iluntzean jokatu zuen Gasteizko Zaramagako txapelketa esanguratsuan. Uribarrenen bikote Agirrek ezin izan zuten norgehiagoka hori jokatu, eta Bolinaga zen jokatzekoa –Adi Bolinagarekin, 16 urterekin senior mailan debuta egin duela–. Hala, atzoko kanporaketan aurrera eginez gero –ezin izan

dugu emaitza jaso– Arrasatekoek datorren egunean izango dituzte finalerdiak, baina partidu hori martitzenera aurreratzeari eskatuko dute, egubakoitzean berrituz ere Debarro Txapelketa itzuliko da-eta.

DEBARROKO TXAPELKETAN
Martitzeneko norgehiagokan Arrasate eta Eskoriatza izan ziren zein baino zein gehiago,

seniorretan eta gazte mailan. Bi partiduetan gogorak izan ziren. Seniorretan Uribarren eta Iñurrategi atzelariak jipoi polita hartu zuten, hutsegite askoko norgehiagokan. 22-17 irabazi zuten Arrasatekoek.

Gazte mailan, Eskoriatzako Oiertzabalek eta Agirianok bikote polita osatzen dutela erakutsi zuten, Bolinaga eta Agirregabiria mendean hartuta (22-19).

> IKASTAROKAK
Apirilaren 14an Tai Chi ikastaroa jarriko dute kiroldegian abian

AUKEAK eskaintza berria du aurtengo ikasturterako, Tai Chi ikastaroa. Rafael Rodriguez maisuak emango du ikastaro hori, eta astelehenean egubakoitzera arte emango dituzte klaseak –apirilaren 14an hasiko dituzte eskolak–.

Hala, martitzen eta eguenean goizean egingo dituzte ikastarok, 09:30etik 10:45era (38,75 euro abonatuak; 48,75 euro ez abonatuak). Eta, astelehen, eguazten eta egubakoitzean arratsaldean izango dira eskolak: 18:30etik 19:45era (58,10 euro abonatuak; 68,10 euro ez abonatuak).

Musakolako kiroldegian bertan eman ahal da izena (943 77 16 77), edo baita BAZ bulegoan ere (943 25 20 00).

> ATLETISMOA
Gipuzkoako Txapelketa jokatu dute Berazubini, bihar

Biharko Txapelketan Arrasateko Atletiko taldeak ordezkaritza zabala izango du. Kadetetan lehiatuko dira Maialen Axpe, Lore Mar, Eukene Dorronsoro, Chen Jian, Iñigo Uribarren eta Josu Revuelta. Gazte mailan, berriz, Martin Berrizbeitia, Oihane Urtzelai, Iñaki Etxagibel, Markel Blanco eta Jon Ander Amado izango dira.

Domekan, berriz, Ordizian egingo dute Gipuzkoako Kros Txapelketa. Guztira 14 talde izango dira lehiatzen, eta Arizmenditik aurkeztuko dira Uxue Bengoetxea, Malen Azua, Amaia Diez, Maria Jaka, Maider Etxagibel, Izar Gorroñoitia eta Maritzel Ayala.

> XAKEA
Astigarragan jokatu du Arrasate San Andres taldeak ligako azkena

Arrasateko taldeak asteburuan jokatu du, Astigarragan, Gipuzkoako Ligako azken jardunaldia. San Andres taldekoek beste helburu batekin hasi zuten denboraldia, baina konturatu direnerako, esku-eskura izan dute Euskal Ligara igotzeko aukera.

Gipuzkoako Ligan talde bakarrak izaten du gora igotzeko eskubidea, lehenengo sailkatzen denak, eta joan den asteko norgehiagoka erabakigarria Zarautzen kontra etxekoek kale egin zuten (1-3). Liderrak lider zergatik dagoen erakutsi zuen, eta etxekoak denboraldi txukuna egin badute ere, gora igotzeko ia aukera barik geratu dira.

> MENDIA
Besaidek bi irteera egingo ditu asteburuan, Bizkaira eta Piriniotara

Oraingo astebururako bi irteera antolatu ditu Besaide Mendi Elkarteak. Batetik, mendiko zeharkaldia egingo dute Bizkai aldean, eta bestetik, mendiko eskiko irteera egingo dute Pic Madament-etik Turon de Neuville-ra.

Apirilean, baina, hirugarren irteera bat ere egingo dute, oinez ibiltzeko. Mendi zeharkaldi hori apirilko azken domekan egingo dute, hilaren 27an, Iparralde-ra. Larraitzetik Guardetxera joango dira, Ganbotik igarota –07:30ean irtengo dira, eta 17:30ak izango da itzulera ordua–. Hilaren 21a, 22a eta 23a dira izena emateko egunak, 19:30etik 20:30era (943 77 30 66).

futbitoazaldibar

EMAITZAK

Cipris-McDauenAwen	4-1
Dribling-Betrayer	8-4
Ekaitz Taberna-HLB 108	4-10
Lasagabaster-Dublin Irish Pub	1-4
Kalapatzak-Iturriotz Taberna	3-1

PARTIDUAK

Apirilak 12, zapatua	Epaiak
10:50 Abokajarro-Total Disaster	Betrayer
12:00 Betrayer-Irizar	Abokajarro
13:00 McAwen Dauen-Cipris	Irizar
16:00 Iturriotz-Equs	HLB 108
17:00 Bar Kokots-HLB 108	Iturriotz

Apirilak 23 domeka	Epaiak
11:50 Cicatrus-Dublin Irish Pub	AT Celaya
13:00 AT Celaya-Dribling	Dublin Irish Pub

SAILKAPENA

	P	J
1. McAwen Dauen	39	13
2. Dribling	31	15
3. Betrayer	31	14
4. Cipris	31	14
5. Lasagabaster	26	14
6. HLB 108	25	14
7. AT Celaya	24	14
8. Irizar Taberna	24	14
9. Dublin Irish Pub	22	13
10. Saukelu Abian	20	14
11. Kalapatxak	20	14
12. Iturriotz Taberna	16	14
13. Abokajarro	14	15
14. Ekaitz Taberna	13	14
15. Equs	12	14
16. Bar Kokots	12	14
17. Cicatrus	12	14
18. Total Disaster	6	14
19. Iluntz	-	-
20. THC	-	-

Kopako kanporaketan hainbat ezuste izan dira

Joan den astean jokatu zituzten Kopako final-laurdenak, eta ohi moduan, txapelketa horrek hainbat ezusteko eman ditu. Batetik, ligan kontrariorik ez duen McAwenDauen taldeak etxerako bidea hartu behar izan du, Ciprisen kontra 4-1 galduta.

Lasagabasterrek ere gauza bera egin du, ligako sailkapenean atzerago dagoen Dublin Irish Puben kontra galdu (1-4). Eta pare-parean dauden Driblingen eta Betrayerren arteko partiduan Driblingek egin zuen aurrera (8-4). Dena dela, hainbat faboritok kale egin badute ere, sailkapenean aurrealdean dabiltzanek izango dira finalerdietan zein baino zein gehiago: Dublin Irish Pub, Dribling, Cipris eta HLB 108.

Asteburuan, berriz, Ligako jardunaldia jokatu dute. Adi McAwen Dauenek eta Ciprisek jokatu duten partiduetan, Kopan kanpoan geratu eta gero, liderra errebantxa gogoz egongo da-eta. Bestetik, Lasagabasterren eta Ekaitzen arteko norgehiagoka atzeratu egin dute. Lasagabasterrek horrela eskatuta.

kanpotarrak Arrasaten

Esther Guillaumes > Katalana
Arrasaten bizi da

"Elkarteetara afaltzera joatea gauza berria izan da niretzat"

JASONE ZABALA > ARRASATE

Esther Guillaumes katalana da, zehazki, Bartzelonako Vilanova i La Geltru herrikoa. Duela bost hilabete gureganaino ekarri zuen maitasunak. Gure ohituretara ederkimoldatu dela esan digu, eta bere bizitza hemen dagoela adierazi du.

Esther Guillaumes katalanak duela hiru urte ezagutu zuen gaur bikotekidea duen Ander Etxeberria, bere anaia Guillaumesen lagun batekin ezkondu zegoelako. "Ander Kataluniara etorri zen bisitan egun batean eta halaxe elkar ezagutu genuen. Abuztuan hiru urte izango dira

elkar ezagutu genuela". Bi urte zehar astebururo joan-etorriak egiten ibili dira Etxeberria eta Guillaumes eta "azkenean nik Arrasatera etortzea erabaki nuen", dio katalanak. Hasieran, gogorra egin zitzaion Guillaumesi, familia, lagunak, denak Katalunian uzten zituelako, "bai-

"Hemen jendea poteatzera ateratzen da, elkarreetan afaltzera... eta giro hori ez dago Vilanovan"



Esther Guillaumes.

na Euskal Herria asko gustatzen zitzaidanez eta Arrasaten gustura sentitu nintzenez hasieratik, horrek dena erraztu zuen", adierazi digu Guillaumesek.

BAKAILAOA SALTSA BERDEAN

Katalunian ez bezala, "hemen jendea poteatzera ateratzen da, elkarreetan afaltzera... eta giro hau ez dago Vilanovan"; hori da Esther Guillaumek aurkitu duen desberdintasun handiena.

Janari aldetik, berriz, klimatikatik-edo, Guillaumesen ustez, Katalunian hemen baino beranduago afaltzen dela esan digu, ordutegi europarragoa daukagula. Gehien harritu duen janaria bakailaoa saltsa berdean izan da, "entzunda baneukan, baina inoiz ez dastatuta, eta gertatzen ere ez nekien"; dagoeneko, baina, ikasi du.

Euskara, bestalde, hizkuntza oso zaila iruditu zaio, ez duela beste inongo hizkuntzaren antzik, baina dagoeneko bikotekidearekin badabil ikasten.

bere ustez



Nerea Makazaga

Ke hondakinak galdera ikurretan

Erdian beharko lukeen puntutik aurrera eta atzera etengabe jarraitzen dugu. Zirkulu erdian mugatuta distantziarik burutu den jakin gabe, Azken Zirkuko trapezistak dirudigu oreka sinesgarri bat erakutsi guran.

Berriz ere itzultzearekin banbolino saltzailea eta estatuak, euliz birpopulatu-tako barruetan, parke jendetsuaren hotsak iristen zaizkigun arrats ezberdinean. Distantzia eta garai urrutikoetatik datoz gaur ere aho-

"Distantzia eta garai urrutikoetatik datoz gaur egun ere ahotsak"

tsak; betiko esaldi eta manamenduak. Berriz ere ausartu gara luzatu zaizkigun adarrak moztzen, bidean aurkituko gaituztenek oztopatu ez gaitzaten; eta azalez aldaturako gara, urtaroeekin batera, aurkitu gintuztenek berriz aurkitu ez gaitzaten.

Keak desagertzen ari badira ikusmen ilusioak izan daitezke, gaueko lantegiaren zori ahula, galdera ikurrean amaitzen duen azken zigarro bafada. Denbora luzeetako arnasketak, arnas-hartze baten etengo balira... Ez genuke aukerarik izango erritmoz aldatzeko, tarte biluztu hauek finkatzeko, luzatzeko. Ez egona ez dagoenetik dator, eta oraindik ez dakigu behar duenak non beharko lukeen egon.

txutxu-mutxua

Arrasateko Alejandro Altuna enpresan egon zen Andoni Egaña joan den egubakoitzean

Hamar urte bete dira Arrasateko Alejandro Altuna enpresan euskara plana martxan ipini zutenetik. Urtero ospatzen dute egun hori, baina aurten, hamargarren urtemuga zen. Horrela, aurtengoa ospatzeko, Andoni Egaña etorri zen lantegira hitzaldia egitera. Guztira 200 pertsona bildu ziren, eta Egaña gaur egun euskarak bizi duen egoeraren inguruan hitz egin zuen. Besteak beste, esan zuen nola ezagutza aldetik euskararen maila igo egin den, hitz berri asko daudela, baina erabilera aldetik, ez den igo. Hitzaldiaren ondoren, guztiak Oñatiko Etxe-Aundi jate-xerara joan ziren bazkaltzera.



MIREN ARREGI

PUB HAIZEA

arrasate

UGARAN
Jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

Pando Errotuloak

Gipuzkoa etorbidea 6
(Legarre pabiloia)
Tel.-Fax: 943 79 79 70

- Argidun kartelak
- Tbilgailuak
- Stand-ak
- Itsasgarriak
- Biniloa
- Seinaleak
- Lonak
- Erliebeldun hizkiak

GIZARTEA > OSPAKIZUNA

Ehun urte bete dira Raizabal familiak gozotegia ireki zuela

1908. urtean ireki zuen gozotegia Artekalen, eta 1944an, Bidekurutzetan. Gaur egun, laugarren belaunaldia arduratzen da bi gozotegiez

MONIKA BELASTEGI > BERGARA
Zorioneko daude Raizabal gozotegikoak; izan ere, 100 urte bete ditu gozotegiak.

Basilio Raizabal eta Prudencia Zulaika senar-emazteek ireki zuten 1908. urtean lehenengo gozotegia. Basilio Raizabal oso gazte zela hasi zen gozo artean. Bilbon egin zituen ikasketak, hara joan zen gozogintzaren

sekretuak ikastera, eta gozogle itzuli zen Bergarara. Horren ondotik, bere kontura jarri zen lanean.

1908AN BAT, ETA 1944AN, BESTEA
Artekaleko lokal baten hasi ziren Basilio Raizabal eta haren emazte Prudencia Zulaika gozogle lanean. Handik denbora batera Artekale 12.era pasatu ziren –gaur egun obradorea duten lokalera– eta 1961ean, Artekale 9.era joan ziren –gaur egun ere denda dena– eta ordutik hantxe daude.

Bigarren gozodenda 1944. urtean zabaldu zuen Raizabal familiak; Bidekurutzetan daukatena, hain justu. Hura ere Basilio Raizabalek eta Prudencia Zulaikak jarri zuten martxan, baina errentan izan zuten lokal hura, harik eta haien seme-alabek erosi zuten arte. Aipatu barik ezin laga bergarar askok Bidekurutzetako dendaren mostradore atzean ezagutu duten Bittori Oñate, Raizabaltarren senitartekoa. 40 bat urte eman zituen han.

LAU BELAUNALDI

Basilio eta Prudencia birraitona-amonak hiltzean, haien seme-alabak egin ziren gozotegien kargu; Juanita Raizabal eta haren senar Jose Berasategi –gozogilea– eta Antonio Raizabal eta haren emazte Angela Eguren. Horiek ere erretiratu daude, dagoeneko, baina ezin diote zereginari laga eta egunero joaten dira gozotegira.

Hirugarren belaunaldia sartu zen gozodendan Antonio Raizabal gaixotu zenean. Hain zuzen, hura gaixotzean Miguel Sagastume sartu zen, gozogilea hori ere, Miren Berasategi Raizabalen senarra.

Gaur egun, laugarren belaunaldia da gozotegiez arduratzen dena: Miguel Sagastume eta Miren Berasategi Raizabalen seme-alabak, Jose Miguel, Josune eta Andoni.

DUELA 100 URTE BEZALA

Josune Sagastumek azaldu duenez, gozodendan erabiltzen dituz-

DATUA

1908

URTEAN HORRETAN IREKI ZUTEN

100 urte bete ditu aurten Raizabal gozodendak. 1908. urtean ireki zuten lehenengoa eta hari beste batek jarraitu zion 1944an. Gaur egun, familiaren laugarren belaunaldiaren kargu daude.

ten errezetak euren birraitona Basilio Raizabalek erabiltzen zituen berberak dira: "Birraitonaren errezetarioa ere hemen dugu, dendan, eta gozoak hark egiten zituen moduan egiten ditugu", azaldu du. Dena den, birraitonaren garaitik, bilakaera nabarmena egon dela aitortu du: "Gozoetan dagoen barietatea orduan baino handiagoa da, eta baita makinerian ere".

Hogeitabat mota pastel egiten dute, 15 bat mota tarta eta bederatzibat mota turroi; "tartetan, esaterako, frutazkoa eta San Marcos dira izarrak", esan du Josune Sagastumek.

Gozoak noiz jaten diren ere aldatu egin da, Sagastumeren esanetan: "Lehen, domeketan, San Jose egunean eta Pazkoetan saltzen zen gehien. Orain, nabarmen aldatu da hori".

URTEMUGAREN OSPAKIZUNA

Mendekoste jaien ostean ospatuko dute urtemuga Raizabal gozotegian eta herritarrekin batera ospatu nahi dutela ere azaldu du Sagastumek, "urteetan gudan izan duten konfiantza eskertzeko asmoz".

Aurrerapen gisa, Erramu Zapatuko herri bazkarira pastelak bidali zituzten opari, "urtemuga herritarrekin ospatzen has-teko". Ordainetan, bazkarian parte hartu zuten herritarrek eta txaranga joan zitzaizen gozotegira eta *Zorionak* abestu zietela esan du Sagastumek, pozik.



FUNDATZAILEAK Prudencia Zulaika eta Basilio Raizabal senar-emazteak. GOIENKARIA



3. BELAUNALDIA Miren Berasategi eta Miguel Sagastume senar-emazteak. M.B.

UDALA

Uraren kobrantzak argitzeko batzarra

M.B. > BERGARA

Udaletik jakinarazi dutenez, datorren martitzenean, hilak 15, batzarra egongo da uraren azken fakturan egon diren akatsen gainean azalpenak emateko. Batzarra izango da 19:30ean osoko bilkuren aretoan eta interesa duten herritar guztiendako dago zabalik.

2008ko ordenantza fiskalak onartu zituztenetik Bergaran uraren kontsumoa neurtzeko irizpide berriak daude indarrean. Horien arabera, uraren gastua kontsumoaren arabera da orain. Aldaketa horiek direla-eta, gaizki ulertu batzuk egon dira kontadoreen irakurketetan eta ondorioz fakturretan.

> HITZALDIA

Dislexiaz gehiago jakiteko hitzaldia, eguaztenean

Dislexia ezagutu, eskola porrota eragiten duten irakurketa-idazketa arazoak delako hitzaldia egongo da eguaztenean, hilak 16. Eduardo Herrera psikologo eta logopeda izango da hitzaldia egingo duena. Saioa 18:30ean izango da, Errotalde kultura etxean.

> LANA

Garbitzaile postuak betetzeko onartuen zerrenda kalean dago

Udalak kaleratu du zortzi garbitzaile lanpostu betetzeko oposizioaren deialdiko onartuen behin behineko zerrenda. Hilaren 10a arte erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin betiko bihurtuko da. Lehen azterketa teorikoa hilaren 10ean izango da, 10:00etan, Uned-en.



GAZTELY, S. A.
BURDINDEGIA

HORNIDURA INDUSTRIALAK

Mintegi kalea 1
20570 BERGARA

Tel.: 943 76 34 50 • 943 76 32 48
Faxa: 943 76 32 52
E-mail: gaztelu.s.a@euskalnet.net
Web: www.ferreteriagaztelu.com

Ion Murgizu Pinturak

Margoketa
orokorrean

- Enpapelatuak
- Iztukoak
- Fatxadak
- Eskilarak eta patioak
- Pintura industrialak

Zabalotegi 9, 2. esk • Bergara
Esozia 24- 2º behe • Soraluze

Tel.: 943 75 13 24
Mug.: 652 77 70 30

TOKI-ONA Bodegoia-taberna

Eguneroko janariak
Txitxizotzak
Kazolatxoak
Txabierroak

Matxiategi 1. BERGARA
Tel.: 943 76 39 53



ARRI
Industri hornidura
Latigilloak

Telleria 2, BERGARA
Tel.: 943 76 19 04
Faxa: 943 76 43 03
Sakelakoa: 656 78 64 84



PARTEHARTZEA Udaleko ordezkariak, hainbat herritar blusa jantzaita, eta Bitorianatxo atzoko prentsaurrekoan.

J.Z.

JAIK > MENDEKOSTE JAIK

Jai partehartzaile, alai eta koloretsuen alde

Mendekoste jaietan partehartzea bultzatu nahi da; honetaz gain, eta berritasun modura, Euskal Herriko Txarangen bilgunea antolatu du Udalak

JASONE ZABALA > BERGARA

Bergarako Mendekoste jaiak hurbiltzen ari direla-eta, herritarren partehartzea eskatu zuten eguaztenean herriko plazan; Mainer Osa Udaleko kultura teknikaria eta Enara Minguez kultura zinegotzia egon ziren, egitarauaren prestaketan aritu diren 20 bat herritarrekin batera.

JAI PARTE HARTZAILEAK

Enara Minguez Udaleko kultura zinegotziak adierazi duenaren arabera, hiru kontzeptu dira jai hauei indarra emateko asmoz bultzatu behar direnak: "Alde batetik, partehartzea; herri bat eraikitzeke ezinbestekoa baita parte hartzea jai alai eta politak izateko. Bigarrenez, jai koloretsuak, hau da,

betidanik jaiak ezaugarritu izan duten blusak berreskuratzea; hirugarrenez, jaien alaitasuna. Horretarako, jaietan kaleak giro-tuko duten musika eta animazioa beharrezkoa da". Honen harira, eta musikari dagokionean, aurre berritasun modura, zapatuan Euskal Herriko Txarangen bilgunea antolatu dute, hau da, txarangen arteko lehiaketa bat. Egun horretan herria gehien eta ondoren animatzen duen txaranga 3.000 euroko saria izango du. Gutxienez bost txaranga apuntatu beharko dira.

EUSKARA > HITZARMENA

Bihar 81 elkartek sinatuko dute euskara hitzarmena

Euskararen erabilera arlo soizokulturalean bultzatzeko konpromisoa hartuko dute

M.B. > BERGARA

Herriko 81 elkartek euskararen erabilera bultzatzeko hitzarmena sinatuko dute bihar, zapatua, Udaleko Euskara Zerbitzuarekin. Sinadura ekitaldia 12:00etan izango da, osoko bilkuren aretoan. Arlo soziokulturalean diharduten taldeak dira guztiak eta batik bat ume eta gazteekin lan egiten dute.

HIRUGARREN HITZARMENA

Halako lehenengo hitzarmena 1991. urtean sinatu zen. Bigarrena, 1995ean eta 1998ra bitartean udal teknikari baten laguntza eta jarraipenarekin, aurrerapauso nabarmenak eman ziren egitasmoan parte hartu zuten herriko talde eta elkarten artean; batik bat ume eta gazteekin esko-

laz kanpoko jardunean euskara bultzatzearen aldetik.

Baina ordura arteko jarraipena albo batera laga zen 1998an, Euskara Zerbitzua beste arlo batzuetan hasi zelako lanean. Hala, esperientzia hura positibotzat jota eta oinarri eta abiapuntutzat hartuta, 2006an herriko elkarteetan euskararen erabilera bultzatzeko diagnostikoa egitea erabaki zen. 2006an eta 2007an herriko 73 elkarterekin izan zen hartumana, haien egoeraren berri jaso eta asmoa azaltzeko. Hala, taldeon egoera eta premiak kontuan hartuta, hitzarmenaren testua egin zen eta taldeei eskaini zitzaion. Hala, hitzarmena sinatzeko prestutasuna azaldu dute 81 elkartek.

> MUSIKA

Bi ekitaldi aste bukaeran Musika Eskolaren Apirilean Musika egitarauaren barruan

Gaur, egubakoitza, abiatuko da Musika Eskolak antolatutako Apirilean Musika egitaraua. Laugarrenez egingo dute aurten eta eskolako arduradunek aurreko urteetako arrakasta izango duela espero dute. Egitarauaren baitan bi ekitaldi izango dira aste bukaeran: gaur, egubakoitza, 18:00etan, Santiago bandaren organo saioa egongo da Santa Marina parrokiaren eta bihar, zapatua, 20:00etan, Marcus R. Keiserren *Passio Secundum* obra egingo dute Ganbara orkestrak eta kantu ikasleek Mariaren Lagundiako elizan.

MUSIKA > HIRU KONTZERTU JAM ARETOAN

Deluxe taldea bere disko berria aurkeztera dator

NEREA MENOR > BERGARA

Deluxe talde galziarrak *Reconstruccion*, bere disko berria, aurkeztuko du gaur gauean Jam aretoan. Hamar herrialdeetan zehar ibili dira Xael eta taldekideak, eta dagoeneko leku bat lortu dute Estatuko pop musika taldeen artean. Gaur kontzertura joateko

aukerarik ez dutenentzat, bihar Bilboko Santana 27an joko dute.

DJ ETA TECHNO FOLK ESTILOA

DJ Chema Reyk zabalduko du kontzertua 22:00ak aldera eta, ondoren, Elodio y Los Seres Queridos-ek euren estilo pop-techno-folk bereziarekin animatuko dute entzuleria.

BERTSO AFARIA > HAMAIKA BERTUTEKO BERTSOLARIAK

Bertsolari gazteak izango dira gaztetxeko protagonistak

N.M. > BERGARA

Poto-plost bertso eskolak antolatutako bertso afaria egingo dute gaur, 21:30ean, gaztetxean. Hamaika Bertuteko bertsolariak izango dira bertan. Afaldu eta gero, Andoni Otamendik eta Iñigo Izagirrek librean abestuko dute eta, ondoren, bertso eskolakoek gaiak jarriko dizkiete. Afa-

riko txartelak Pol Pol eta Kortazar tabernan eskuratu daitezke.

HAMAIKA BERTUTE

Bertsolari gazteen ekimena da Hamaika Bertute. Ez dira profesionalak eta ez dute plazara irtekeko aukera handirik. Egoera hori aldatzeko nahiarekin sortu da elkarteak.

> LIBURUAREN EGUNA

Toti Martinez de Lezea idazlearen berbaldia udaletxean

Toti Martinez de Lezea idazle gasteiztarrek berbaldia egingo du hilaren 17an, 19:00etan, osoko bilkuren aretoan. Hasi-eran bere lanei buruz ariko da eta ondoren sakon aztertuko du euskal sorginkeriaren gaia.

Hilaren 23an Liburuaren Eguna ospatzen denez, Martinez de Lezea ekartzea interesgarria irudituko zaie liburutegi-ko arduradunei.

margo industrial
margo orokorra
margo dekoratiboa
erreformak orokorrean
fatxadak

margolan
m a r g o a k

Sagasti auzoa 5-3D • ANTZUOLA
Tel.: 943 76 62 13 • 665 73 39 55 • 687 57 07 77

ARANE
KRISTALDEGIA

Artekalea, 18-behea.
BERGARA
Tel.: 943 76 74 09
670 483 903

Sugoi

ERLOJUAK,
ARTIKULU
ELEKTRONIKOAK,
KALKULAGAILUAK...

Irizar pasealekua 2 behea
943 76 59 54 BERGARA

PILOTA > BERGARA HIRIA

Muguruzak ezin izan du lortu finalerdietarako txartela

22 urtez azpikoetan Jaunarena-Bergera bikoteak, eta nagusietan Ollo-Linzoainek egingo dute txapelketan aurrera, finalerdietara

JASONE ZABALA > BERGARA

Bergara Hiria Txapelketako bigarren kanporaketak jokatu zituzten martitzenean. Bergarako Udal pilotalekuan ikusle ugari bildu zen pilotarien ikuskizunaz gozatzeko, eta tanto polit batzuk ere ikusi genituen.

JAUNARENA BIKAIN

Lehenengo partidua, 22 urtez azpikoek jokatu zuten. Jaunarenak eta Bergerak (gorriz) 22 eta 13 irabazi zieten Epelde eta Diezi (urdinez). Jaunarenak bikain jardun zuen aurreko koadroetan eta Diez ezinean ibili zen Jaunarenaren ezker gantxo eta bi parteko jokoarekin.

Gainera, Bergerak ederki lagundu zion Jaunarenari atzeko koadroetan eta sendo agertu zen, pilotarik galdu barik. Gorriak lehen tantoetatik hasi ziren markagailuan agintzen. Hasieran bost tantoko abantaila izan zen handiena: 7 eta 2. Urdinen erreakzioa etorri zen gero, eta Diezek, sakez, lau tanto egin zituen (9-8). Hemendik aurrera, aurreko koadroetan egon zen partidua. Urdinak aurrean saiatu



NAGUSIAK Linzoain, Ollo, Bengoetxea eta Muguruza partidua hasi aurretik.

JASONE ZABALA

ziren tantoak amaitzen, pilota alde batetik bestera mugituz, baina Jaunarena ederki ibili zen ezker eskumako defentsan, eta urdinek ezin izan zuten inondik inora ere tantoa egin. Horrela, bikote gorriak irabazi zuen, hilaren 29an jokatu duten Bergara Hiria Txapelketako finalerdietarako sailkatuz.

MUGURUZAK EZIN

Bigarren partidua nagusiek jokatu zuten, Muguruza bergararrak eta Bengoetxeak (gorriz) galdu egin zuten 18 eta 22 Ollo-Linzoain (urdinez) bikotearen kontra. Hasierako tantoetan, Muguruzak askotan egin zuen atzera, bere atzelariari lagundu nahian; eta Ollok hori aprobetxatuz

tanto ugari amaitu zituen aurreko koadroetan. Esku biek bikain aritu zen Ollo. Linzoainek ere ondo eutsi zion atzeko koadroetako jokoari. Urdinen erretarik handiena 8 eta 18koa izan zen; eta gorrien erreakzioa etorri zen arren (17 - 21), aldea handiegia zen ordurako. Ollo eta Linzoain izango dira finalerdietan.

Ander Muguruza > Pilotaria

"Jokoan behar baino gehiago sartzeak kalte egin dit"

J.Z. > BERGARA

Ander Muguruza bergararrak ezin izan zuen Bergara Hiria Txapelketako finalerdietarako txartela lortu. Burumakur zen norgehiagoka amaieran.

Nola ikusi duzu partidua, Ander?

Hasieran nahiko azkar hasi naiz jokatzeko, jokoan behar baino gehiago sartzen. Aurrean egiten saiatu naizen tantoetan bat ere zait ondo atera. Ezin jokaldia amaitu.

Airez asko sartu zara, eta atzeko koadroetara pilota bila ere askotan joan zara. Zein izan da arrazoia?

Nire jokoa halakoa da, ni asko sartzen naiz airez eta halaxe amaitzen ditut tantoak. Norghegiagoka hasieran

behar baino gehiagotan joan naiz atzeko koadroetara, eta bikotekideari lagundu beharrean, kalterako izan da.

Non egon da partiduaren gakoa?

Partidua galduta ikusi dudanean, lasaiago jokatu dut eta orduan ederki amaitu ditut tantoak. Pilota ere aldatu egin dugu eta gure onerako izan da hori.

Dagoeneko Bergara Hiria Txapelketatik kanpo zaude. Aurrera begira, ze asmo?

Madriletik etorri naiz, Espainiako Txapelketa jokatzen, eta orain Sopelan nabil 4 t'erdiko txapelketa jokatzen. Herrien Arteko Txapelketa ere laster hasiko da, eta horretan jardungo dut buru-belarri.



J.Z.

labegaraieta

EMAITZAK

Irubide-Niu Tim	5-9
Carboneros-CM Errota-Gain	2-3
Komando Piperrak-Deportivo Oriente	8-4
Belengua-Irish Pub	2-5
Latinos.com-Los Blus	6-5
Hamaika Jintxi-Tiki Taka	4-10

PARTIDUAK

Apirilak 13, domeka, barruan Epailleak		
09:30	Belengua-Niu Tim	Irubide
10:30	Irubide-CM Errota-Gain	Niu Tim
16:00	Latinos.com-Tiki-Taka	Hamaika Jintxi
17:00	Hamaika Jintxi-Deportivo	Latinos.com
18:00	Komando P.-Los Blus	Irish Pub
19:00	Carboneros-Irish Pub	Los Blus

SAILKAPENA

	P	J
1. CM Errota-Gain	55	20
2. Irish Pub	47	20
3. Komando Piperrak	39	20
4. Los Blus	37	20
5. Carboneros	35	20
6. Tiki-Taka	32	20
7. Niu Tim	29	20
8. Belengua	17	20
9. Irubide	15	20
10. Latinos.com	15	10
11. Hamaika Jintxi	13	20
12. Deportivo Oriente	1	20
13. El Mapet	0	10

Bi jardunaldiren faltan Errota-Gain taldea da aurtengo ligako txapelduna

C.M Errota-Gain taldeak dagoeneko liga txapelketa irabazi du, oraindik jardunaldi bi falta direnean. Pasa den asteburuan, Arrasateko Carboneros taldeari 3 eta 2 irabazi zioten. Bigarren sailkatua, Irish Pub taldea dugu, baina 8 puntutara aurkitzen da eta matematikoki dagoeneko ez dauka txapelketa irabazteko aukerarik.

Honezkeroko liga erabakita dago eta Kopa Txapelketa prestatzen hasi behar dute antolotzaileek. Horregatik, datorren astearterako apirilak 15, arratsaldeko 8etan Kultura Etxean egingo den ordezkarien bilerara joateko deia egin dute, txapelketako zozketa egiteko.



Clínica Oftalmológica
RECALDE
Oftalmologi Klinika

Plaza Barria, 2 - 2º - EIBAR - Tfnoa.: 943 201 844
www.clinicarecalde.com

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak eraiki berri duen Bergarako araztegiaren irudia.



Abian da Debarroa berreskuratzeko plana

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak ingurumena berreskuratzeko ekintzetarako 100 milioi euro baino gehiago inbertitu ditu Debarroan azken aldian

Azken urteotan, Debarroaren egoera asko aldatu da eta hobera egin du nabarmen, industriaren krisi garaian desagertutako enpresengatik eta baita isurketak kontrolatzeko zein saneamendua bermatzeko hartutako neurriengatik ere. Horren erakusle garbiak dira gaur egun Oñati erreka eta Deba ibaiaren goialdeak, biek, daukaten egoera ona. Hala ere, egia da oraindik Deba eta Ego ibaietako hainbat punturen egoera askoz txarragoa dela.

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak, uraren alorrean eskumenak dituzten beste erakunde batzuekin batera, Debarroan inbertsio handiak egiten dihardu.

Inbertsio horiek egitearen helburu nagusia da erreka eta ibaien ubideak berpizteko asmoz saiakera egitea. Eta helburu hori bete ahal izateko, ezinbestekoa da industrietako eta etxeetako, bietako, isurketak estazioetara bideratzea.

Estazio edo araztegi horietatik, ur zikinak araztu ostean, ur garbiak berriro erreka eta ibaietara itzuliko dituzte.

Beharrezkoa da, baita ere, legez kanpoko isurketak kontrolatzea eta zigortzea, ubideetara heldu aurretik urak garbi egon daitezen. Ubideen saneamendu eta hobekuntzan, bietan, Euskal Autonomi Erkidegoko administrazioak 102 milioi euro gastatu ditu aspaldian Debarroan.


Euskal Autonomi Erkidegoko Saneamendu eta Arazketa Plan Nagusiak aurreikusita dauka Debarroan bost estazio araztegi egitea. Horien bien, Debakoa eta Mutrikukoa, helburua da kostaldeko bi herri horrek sortzen dituzten hondakin-urak araztea edo garbitzea itsasora isuri aurretik. Bi araztegiak lanean dabilta topera.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak Debagoieneko eremu bati zerbitzua emango dion araztegia

bukatu du; araztegi hori Bergarako Mekolalde auzoan kokatuta dago, eta bertan Bergarako, Antzuolako eta Elgetako hondakin-urak garbituko dituzte.

Debarro osoko saneamendua bermatzeko aipatzea falta diren beste bi araztegiak Apraitzekoa eta Epelekoa dira. Apraitzekoa Elgoibarren kokatuta dago eta Gipuzkoako Foru Aldundiak eraiki zuen; 2007tik Eibarko eta Elgoibarko udalerriei ematen die zerbitzua. Are gehiago, hodi biltzaileak osatzen dituztenean, Mallabia, Ermua eta Soroluzeko bizilagunei ere zerbitzua emango die. Horrez gain, Epelekoa, Arrasaten, Espainiako gobernuaren ardura da.

Baina, araztegiek hondakin-urak garbitu ahal izateko, ezinbestekoa da sare bat eraikitzea, eta horretan dihardute, hain zuzen ere, Eusko Jaurlaritza, Gipuzkoako Foru Aldundia eta uraren alorrean eskumenak dituzten beste hainbat erakunde. Emaizak mahai gainean daude.



Mendaro



Antzuola

Deba Erdialdea

Gipuzkoako Foru Aldundiak dagoeneko egin du Bergarako kolektorea. Bestalde, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak Elgetako eta Antzuolako kolektoreak, biak, egingo ditu 2008 eta 2009. urteen bitartean.

Bi kolektore horiek bukatu ahala eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak Bergarako EDAR zerbitzua abian jartzen duenean, Debako inguru horren saneamendua bukatutzat emango dute bi erakunde horiek.

Ibaiak eta errekek biziberritzea

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak, saneamendu lanak egiteaz gain, ingurumena berreskuratzen ere badihardu. Horren helburua da ibai eta erreken arroi euren benetako itxura berreskuratzen lagundu eta uholdeen kalteak txikitzea.

Debarroan honako jarduerak egin dituzte:

-**Arrasaten**, Aramaio ibaiaren ibilguko zati bat estalgabetu dute, San Frantzisko komentutik gertu hain zuzen ere, eta ibaiaren itxura hobetu egin dute Monterron parke inguruan eta Garagartza, Markulete eta Uribarri auzoetan hurrenez hurren.

-**Elgoibarren**, Debaren ibai ertzak hobetu dituzte eta ingurune horretan hiru zubi ordezkatu dituzte, uholdeen eragina txikitzeko.

-**Eibarren**, han egin dituzten saneamendurako lanak baliatuta, Ego ibaia 200 metro estalgabetu dute Alfa enpresaren parean, eta ibilguan landaretza berriro pini dute. Ingurumena berreskuratzeko ekimen garrantzitsu horrekin Eibarko erdialdeko ingurunea asko hobetuko dute; izan ere, hantxe etxebizitzak eta gune komertziala eraikitzen dabilta. Lan horien kostua miloi bat euro izango da.

-**Antzuolan**, ekimen konplexu samarra egiten ibili dira ibaiaren uholdeak saihesteko. Hala, ibaiaren ubidea apur bat mugitu dute eta erdialde inguruan ibaiaren beste zati bat desestali dute, Mairuaren Alardearen ekitaldia ospatzen duten plaza nahita ukitu barik. Jarduera horren kostua 3.400.000 euro da.

-**Mendaron**, erdialdean Kilimon ibaia berreskuratzeko lan garrantzitsuak egin dituzte. Horrez gain, hango presagain txiki bat berreskuratu dute: hormigoizko hondoa kendu dute, eta hura uharriz osatutako ubide natural batekin ordezkatu dute. Horrekin batera, ibaiaren ertzak bere jatorriko lekura eram dituzte berriro. Lan horien guztien kostua 505.000 euro izan dela jakinarazi dute.

EUSKO JAURLARITZAK EGINDAKO LANAK

-  BUKATUTA
-  BUKATZEAR
-  PROIEKTUAN

BESTE ADMINISTRAZIO BATZUEK EGINDUTZEN LANAK

- 





Debabarrena

Badira urte batzuk ingurune horretako kostaldeko herrietako isurketak itsasora joan ez daitezkeen ekiditeko araztegiak lanean daudela. Deba eta Mutriku dira horren adibide. 2007aren hasieratik, Gipuzkoako Foru Aldundiak eraikitako Elgoibarko araztegia ere lan handia egiten dabil. Jaurlaritzaren ardura den Eibarko araztegia, Ega inguruko ur-hondakinak jaso behar dituena, bukatuta dago; eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamenduko Sailak Soraluzeko kolektorea egiteko lanak esleitu ditu.

Egitear gelditzen dira oraindik Mallabia eta Ermuko kolektoreak, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak aurtan hasiko dituenak; baita Mendarokoa ere, 2009an eraikitzen hasiko direna eta Elgoibarko araztegiarekin lotuta egongo dena.



Eibar



Arrasate

Debagoiena

Debagoiengan, Gipuzkoako Foru Aldundiak Aretxabaletako ur-hondakinak jasotzeko kolektorea eraiki du; eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak Eskoriatzako eta Arrasateko isurketak jasotzen dituzten kolektoreak bukatu ditu. Horrez gain, Jaurlaritzak Deba ibaiaren eta Aramaio errekaaren arroak garbi utzi ditu.

Inguru horretako isurketen ardura izango duen Arrasateko Epele auzoko araztegia eraikitze prozesuan dago. Espainiako Gobernua dabil lan horiek egiten, eta, aurreikusitakoaren arabera, 2010ean jarriko dute araztegia lanean.

Zelan jokatu errekan isurketa bat antzematen dugunean?



URA, Uraren Euskal Agentzia, erakunde publiko bat da, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren arduraren barruan dagoena. Erakunde hori jaio zen 2006ko ekainean, Eusko Jaurlaritzak Uraren Legea onartu zuenean, hain zuzen ere. Erakundeak bere ibilbidea urte hartan hasi zuen eta helburu nagusia da Euskal Herrian erabiltzen diren baliabide publikoak optimizatzea, hobeto erabiltzea, eta bide batez hornidura, saneamendua eta erretenen berreskuratze ekologikoa bermatzea ere bai.

Bere funtzio nagusienetako bat da egiten diren isurketen kontrola eramatea eta ekintza horiek edota erretenean egiten diren legez kanpoko bestelako jarduera guztiak zigortzea. Zelan betetzen dute funtzio hori? URA erakundeko zaindarien egunero-egunero ibaien arreak ikuskatzen dituzte eta egiaztatzen dute legeak betetzen direla; hau da, inork ez dituela ibaietatik eta ubideetatik gertu inolako eraikuntzarik egiten, eta ezta ez direla baimendu bariko isurketarik egiten.

Baina isurketak edozein egun eta edozein momentutan egin daitezke; oso zaila da horiek guztiak kontrolatzea. Horregatik, horiek ekiditeko saiakeran, ezinbestekoa da herritarren laguntza halako gertaerak salatzeko. Isurketaren bat egin denaren susmoa dutenek 112 telefonora deitu behar dute lehenbailehen, eta jakinaraziko beharko dute non egin den isurketa hori. SOS Deiak zerbitzuko arduradunek ingurune zehatz horren ardura duten URAko zaindarekin harremanetan jarriko dira, eta oharren berri emango diete.

URAKo zaindaria aipatutako leku zehatz horretara joango da eta ikusmen bidezko egoeraren lehenengo azterketa egingo du. Bertan ezohiko usain edo orbanen bat antzemango balu, aldean daraman laborategi txiki baten bitartez uraren pHa begiratu eta laginak jasoko lituzke beste laborategi batera eramateko. Laborategi horretan isurketaren konposaketa zehaztuko dute. Horrez gain, ibaian gora eginez gero aztertuko dute isurketaren ustezko jatorria, eta horren gaineko agiri bat idatziko dute. Agiri horrekin gertaeren gaineko txosten bat egingo dute, eta horrek eraman ahal izango ditu isurketaren egilea zigortzera.

Euskal gizarteak daukan kontzientziario ekologikoa gero eta gehiago handituz doa, eta bertako enpresa gehienek barneratu dute ezin dutela ekoiztu ingurumenari erreparatu barik. Horri batu behar zaio aspaldian eraiki den kolektore eta araztegi sareari esker ibaien kalitatea hobetu egin dela. Edozelan ere, derrigorrezkoa da adi-adi egotea oraindik gertatzen diren isurketak eta erretenen inbasioak saihesteko.

Bergarako araztegiak, 40.000 biztanlerendako zerbitzua

Bergaraz gain, Antzuola eta Elgetari zerbitzua ematen dien estazioko lanak amaituta daude. Hasiera batean, 40.000 biztanleri arreta emango dien eta Euskal Autonomia Erkidegoko kutxentzat 13.650.000 euroko kostua izango duen azpiegitura abian jartzeak Deba erdialdeko saneamendua osatutzat ematea ahalbidetuko du.

Hondakin-uren araztegia Bergarako Mekolalde auzoan kokatuta dago. Instalazioak lokatzak tratatzeko hiru baltsa ditu, eta, horiei esker, etorkizunean tratatzen diren uren kopurua handitu ahal izango da, horretarako nahiko edukiera daukate-eta; baita biztanleen hazkunde aurreikuspenak eta industria berrien kokapenak gehituko balira ere, nahikoa litza-teke.

Plantan azken teknologia erabiltzen dute, materia organikoa prozesu biologiko eta fisikoen bidez ezabatzeko. Fosforoa gutxitzeko tratamendu bat ere badute, modu horretara lehorte garaian ibaian algak kontrolik gabe haz daitezten ekiditeko. Lokatzen tratamenduak, gainera, teknologia berriena erabiltzen du loditze eta digestio anaerobiko tekniken bidez. Prozesu horretan sortzen den biogasa

sistema bera elikatzeko erabiliko den energia lortzeko berrerabiliko da. Azkenik, prentsa filtrodun deshidratazio sistema konplexu bati esker, lokatzak baimendutako eta kontrolatutako hondakindegietan uzteko adina lehortuko dira.

B e r r i t a s u n moduan, lanek araztegiaren kontrol-eraikina hartzen duen base-ri baten birgaitzea jaso dute. Era berean, lan horren barruan, araztegi sarrera ematen duen zubi berri bat eta industrialde bat egin dituzte.

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Sailak Gipuzkoako Ur Partzuergoari eman dio araztegiaren ustiapenaren ardura.

Behin lan horiek bukatu ondoren, Eusko Jaurlaritzak uraren kudeaketa osoan inplikaturik dauden gainerako administrazioekin batera hartutako konpromisoa beteta izango du; hau da, agindutako araztegi sarea osatzea, hain zuzen ere.



POLITIKA > UDALA

'ETA ez' dioen pankarta, udaletxeko balkoian

Sozialistek martxoaren 8ko elkarretaratzerako eskatu zuten, eta presoek aldeko izara kentzea

Aralarrek eta Ezker Batua-Berdeek giza eskubide guztien aldeko lelo orokorra gura dute

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETAKO

Isaias Carrasco zinegotzi ohia Arrasaten hil eta hurrengo egunean egindako elkarretaratzerako eskatu zuten PSE-EEko zinegotziek *ETA ez* pankarta. Baita *Euskal Presoak Euskal Herrira* izara kentzea ere udaletxeko balkoitik. Ez bata, ez bestea ez zuten lortu orduan, baina oraingo asteetik aurrera, euskaraz eta gaztelaniaz *ETA ez* dioen pankarta egongo da udaletxeko balkoian.

UDALBATZAK ERABAKITAKOAK

Pankarta jartzearen erabakia martxoaren 8an egindako elkarretaratze ostean hartu zuten udalbatzako kideek. Hainbat proposamen egon ziren: presoak gerturatzeko eskatzen duen izara kendu eta *Bakea behar* dugu jarri, esaterako. Ezker Batua-Berdeak alderdiak erabakia atzeratzea eskatu zuten "berotan ez hartzeko". Eta bai berak, bai Inaxio Garro alkateak giza eskubide guztien aldeko lelo orokorra gura

gurago zutela jakinarazi zuten. Gainerako alderdiak PSE-EEko zinegotziek eskatzen zuten leloarekin bat etorri ziren, eta *ETA ez* jartzea onartu zuten. Presoen aldeko izara, ostera, ez dute kenduko balkoitik: "ETAren aurka daukagun jarrera irmoak ez du euskal presoek Euskal Herrira gerturatzeko duten eskubidea zapuztu behar", azaldu du EAko Lore Martinezek.

ETA-REN AURKAKO MEZU ARGIA

"Pankarta horren eskaera aspaldi geneukan eginda, lehenengo berbaz eta gero idatziz; izan ere, uste dugu terrorismoari zilegitasuna kendu behar diogula", azaldu digu PSE-EEko Ainhoa Sagarribaik. Garrantzitsua dela balkoian egotea dio: "Indarkeria egon badago, eta horren adibide dira pankartak, pintadak, jasan ditugu erasoak eta isekak... Horiei erantzun egin behar diegu, eta pankarta aurrerapauso da". Era berean, eskerrak eman



ELKARRETARATZEA Isaias Carrascoren alde egindako elkarretaratzea martxoaren 8an.

MIRARI ALTUBE

gura izan dizkie herritarrei martxoaren 9ko hauteskundeetan emandako erantzunagatik.

EAren iritziz, mezu orokorrak ez dira nahikoa, "egoera konkretu baten aurrean ez diotela herriari mezu garbirik bidaltzen". Eta gaineratu du: "ETAren indarkeriazko estrategiaren aurrean ezin da postura epelik hartu, ez kalean eta are gutxiago erakundeetan. Gizarte honek hainbat aldiz ETARI eman dion ezetz borobila Udalak ere behingoz berea egitea gure erantzukizuna dela uste dugu".

EAJko zinegotziak ere pankarta jartzearen alde agertu dira: "ETAren aurkako mezu argi eta garbia da. Gaitz handia egiten du ETAK, herritarrak mehatxatuta egotea, esaterako. Bisualizatu egin behar dugu ETAren aurka egotea, presoek dispertsioaren aurka egotea bisualizatu daukagun moduan", dio Arritxu Ollidnek.

BESTE LELO BATEN ALDEKOAK

Aralarrek, ostera, gurago du beste lelo bat: "Giza eskubide guztien alde" proposatu nuen nik", dio

Inaxio Garro alkateak, "injustizia sozial eta politikoko guztiak bilduko lituzkeelako horrek".

Antzekoa aipatu du Ezker Batua-Berdeetako zinegotzi Tomas Fernandezek: "ETA arazo bat da, eta ni aurka nago, baina beste terrorismo batzuk ere badaude: sexu-indarkeria, islamaren izenean sortutakoa, eskuin muturrekoena... ETAren aurka egonda ere, gurago nuen nik terrorismo osoa aipatuko lukeen leloa erabiltzea: *Terrorismoaren aurka eta giza eskubideen alde*, edo antzeko bat".

POLITIKA > UDAL AURREKONTUA

PSE-EE alderdiak jakinarazi du 2008ko udal aurrekontuari ezetza emango ziola

Talde sozialistako zinegotziak ez ziren egon aurrekontua eztabaidatu zuten osoko bilkuran, otsailaren 18an, osasun arazoak tarteko

M.A. > ARETXABALETAKO

Osoko bilkuraren data atzeratzeko borondatearik ez zuela izan alkateak argitu gura izan du PSE-EEk, eta aurrekontua eztabaidatzeko ere ez: "Ogasun batzorde bat bakarrik egin zuten legez derrigortua alderdiei aurkezteko, eta 15 egun izan genituen aztertzeko. Gero, batzar bat alderdi bakoitzarekin, eta erantzunak, posta elektronikoki bidez".

EZETZAREN ZERGATIAK

Talde sozialistak azaldu du zergatik emango zion ezetza aurrekontuari: "Terrorismoari zilegitasuna kentzea eskatu genuen baina ez Inaxio Garrok (Aralar), ez Lore Martinezek (EA) ez zekiten zer egin. Eta gure proposamenik ez dute kontuan hartu: terrorismoaren apologia egiten duten horma-irudiak kendu, kaleetan dauden ETAKideen argaz-

kiak kendu, hitzaldiak antolatu, udal aldizkaria erabili biktimen eguneroko izua azaltzeko..."

Presoen senideendako 4.500 euroko partida dagoela aipatu dute, eta diru hori terrorismoari zilegitasuna kentzeko eskatu dutela. Aretxabaletarrek zergatik eman behar dioten dirulaguntza Goiena euskarazko komunikabide pribatuari galdetzen dute: "Bere ezaugarrien artean ez dagoenean terrorismoari zilegitasuna kentzea eta pluraltasuna, 65.000 euro ordaintzen ditugu". Arratabe udal aldizkariak ere ez dituela betetzen aipatutako ezaugarriak diote: "Udal taldeek ez

dugu idazteko tarterik, baina 20.000 euro kostatzen zaigu". 85.000 euro horiek gastu soziale-tara bidera daitezkeela diote.

Aurrekontuan jaso ez diren proiektuak aipatu dituzte: "apusturik ez herritarrek ekintza sozialak izan ditzaten; sexu-indarkeriaren gaineko plana egiteko eskaerari ezetza; jaiotze tasa handitzeko planei ezetza; herritarren segurtasunaz lapurreta eta indarkeria hazi egin da galde-tuta udaltzain eta ertzainen artean egingo dutela plana, baina zehaztasun barik; eta kanposantuko alde zaharra konpontzeko lehentasunik ez".

> ELKARTASUNA

Saharako umeak hartzeko izenemate epea zabalik dago

Saharako kanpamenduetan bizi diren umeak opor sasoiaren etxeetan hartuko dituzten aretxabaletarrak gura ditu Iesbaa elkarteak. *Oporrak bakean* egitasmo barruan antolatutako ekimena da. Iaz bi mutiko izan ziren gure artean, eta aurten gehiago izatea gurako lukete. Proiektuaren helburu batzuk dira basamortuko berotik aldentzea, osasun azterketak egin eta sendagaiak jasotzea, elikadura osasuntsua izatea eta bizi duten egoera gogorretik bi hilabetez aldentzea.

Hilaren 30ean bukatuko da eskaerak egiteko epea; interesatuek Iesbaako arduradun Olaia Sagredori deitu: 626 63 91 64 (18:00etatik aurrera).

'Gogoa da guztia' izena du, eta herriko kultura arloari heldu gura dio

Herriko hainbat elkarteri aurkeztu diote babesa jasotzeko

Herritarrei aurkeztuko diete gaur, udaletxe zaharrean, 19:00etan

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETA

Kulturarako eraikin berriaren kudeaketa enpresa baten esku uztea erabaki zuen Udalak orain hilabete bi, eta lehiaketa deitu zuen. Hori jakinik, herriko hainbat lagun elkartu eta proiektua aurkeztu dute.

Hamar bat lagun ibili dira proiektua egiten, tartean, Zigor Lasagabaster, Iñigo Louvelli eta Beñat Zamalloa. "Antzerkia, dantza, musika... eta antzeko kontuetan gabiltzan aretxabaletarrak elkartu ginen. Loramendi Euskara Elkartearekin egin genuen berba, eta babes osoa eman digu", diote. Eta *Gogoa da guztia* izena jarri diote proiektuari, "gogoa izanez gero, edozer mugiarazi daitekeelako".

"DENONA" IZAN GURA DU

Kultura etxea kudeatu bakarrik ez, "herriko kultura astindu" gura du talde horrek. "Kultura herritarren eskura jarri gura dugu, samurtasunak eman eta herritarren gogo eta nahiak bete", dio Zamalloak. Gainera, argi daukate kultura ekintzen kontsumi-

KULTURA > KULTURA ETXEAREN KUDEAKETA

Talde batek kultura etxea kudeatu gura du



TALDEA Zigor Lasagabaster, Iñigo Louvelli eta Beñat Zamalloa aurkezpenaren berri ematen duen kartela jartzen.

M.A.

tzaile bakarrik ez direla izan behar herritarrek, sortzaileak ere bai: "Elkarte asko ditugu herrian eta sortzaileak izan behar dira, laguntzarekin, noski. Elkarlana eta koordinazioa bultzatuko ditugu, baina enpresarenganako mendekotasun barik; euren autonomia izaten jarraituko dute", argitu du Lasagabasterrek.

Hala, hainbat batzorde sortuko lituzkete lan egiteko, tartean, elkarten batzordea, eta herrita-

rren batzordea edo sormen batzordea: "Azken hori ideiak botatzeko taldea izango da, eta motore lanak egingo ditu", dio Louvellik.

Lan mardula egin dute: herriko diagnostia egin, helburuak jarri, estrategiak finkatu eta jarduerak zehaztu: "Bi urterako hartuko dute enpresa, eta lehen urteko ekintza guztiak ondo zehaztuta aurkeztu ditugu", esan du Zamalloak. Gainera, proiektuak aurrera eginez gero, urte bi barru

desagertzeko asmoa daukate: "Argi dugu kulturaren kudeaketa publikoa izan behar dela; adituek egin behar dute, baina kultura herritik sortu behar da".

Hainbat elkarteri aurkeztu diote proiektua –guztiei ezin, denbora kontuagatik–, eta babesa eta lan egiteko konpromisoa jaso dute. Gaur herritarrei aurkeztuko diete "denona" izan dadin, eta ez hamar lagunena. 19:00etan da aurkezpena, udaletxe zaharrean.

OSPAKIZUNAK > LORAMENDI-BEINKE DANTZA

Loramendi-Beinke dantza irakatsiko dute Euskararen Egunean dantzatzeko

Maiatzaren 17an ospatuko dute Euskararen Eguna, eta aurretik dantza entseguak egingo dituzte hiru egunetan

M.A. > ARETXABALETA

Beinke eta Loramendi elkarteek bat egin zutenean sortu zuen dantza Loramendi Dantza Taldeak. Orain urte batzuk, San Migel jaietan dantzatzeko zuten, baina azken urteotan ez dute egin. Horregatik, berreskuratuko gura du Loramendi Euskara Elkartek.

Maiatzaren 17an ospatuko duten Euskararen Egunean dantzatu gura dute. Aurretik, baina, entseguak egingo dituzte, hiru egunetan. Dakitenek gogorazteko izango da, eta dantzatzeko ez dakitenek ikasteko aukera izan-



DANTZA Loramendi-Beinke dantza hasteko gertu hainbat emakume. LORAMENDI EE

go dute Loramendi Dantza Taldeko kideen eskutik. Hona egunak: apirilaren 23an eta maiatzaren 7an eta 14an, 19:00etan, Arizmendi ikastolako Basabeazpi gunean.

Talde handia osatu gura dute antolatzaileek –neska eta mutil–; horregatik, aretxabaletar guztiak animatu dituzte dantza ikasi eta maiatzaren 17ko ospakizunetan parte hartzera.

> KONTZERTUA

Aramaioko Sweet Rockers eta Billabonako Lain taldeen kontzertua dago gaur, Haizea tabernan

Billabonako Lain neska bikoteak hasiko du kontzertua (21:30) –www.youtube.com-en duen bideoagatik ezaguna egin den taldea. Eta ondoren Sweet Rockers boskotearen txanda izango da. The Clash, Guns N' Roses eta antzeko taldeen bertsoak egiten dituzte Aramaioko gaztetxoek, eta tartean aretxabaletar bat dago.

> IKASTAROA

Makillaje ikastaroa eskainiko dute Gemes estetika zentroko adituek egunean, hilak 17

Loramendi Euskara Elkartek antolatuta du makillaje ikastaroa, eta Gemes estetika zentroko adituak etorriko dira erakustera. Egunean izango da, hilak 17, udaletxe zaharrean (18:00-20:00).

Hilaren 24an, osterata, nekazaritza ekologikoaren gaineko kontuak ezagutzeko ortu bat bisitatzea joango dira, Loramendi EEK antolatuta. Hitzordua udaletxe zaharrean egingo dute (18:00).

> IKASTAROA

Fedearren gainean hausnartu gura duten guraso gazteendako ikastaroa hasiko dute bihar

Leintz Pastoral Barrutiak guraso gazteendako ikastaroa antolatu du. *Gure fedea sakondu dezagun* izenarekin fedearren gainean hausnartzea da asmoa. Bihar, zapatua, egingo dute batzarra (16:00-18:00), parrokiako lokalean, eta umeendako zaintza zerbitzua jarriko dute. Gainera, egun horretan zehaztuko dute hurrengo batzarra noiz izango diren.

LUDOTEKA

Liburuak gura dituzte trukatzeko

Liburu Azoka Txikia egingo dute apirilaren 26an

M.A. > ARETXABALETA

Liburuaren Nazioarteko Eguna da apirilaren 23an; hori dela eta, Liburu Azoka Txikia antolatu du Gazteria Zerbitzuak apirilaren 26rako, zapatua. Iaz egin zuten lehenengoz azoka eta, izandako arrakasta ikusita, errepikatzea erabaki dute.

LIBURUAK JASOTZEN

Azoka egiteko, baina, liburuak behar dituzte, eta ume zein gaztetxoek –ludotekako bazkide izan beharrik ez dago– etxean dauzkaten euskarazko ipuin liburuak erosi ditzakete ludotekara, hilaren 25a bitartean. Eroandako liburuaren truke txartela jasoko dute, eta, horrekin, beste liburu bat hartu ahal izango dute hilaren 26ko azokan. "Edozein motatako liburuak utz daiteke –testu liburuak izan ezik– eta trukean euskarazko liburuak jasotzeko aukera izango da. Egoera onean dauden liburu guztiak onartuko ditugu", adierazi du Gazteria teknikariak.

Liburu Azoka Txikia Gernika plazan, Algara ludoteka aurrean, egingo dute, 11:00etatik 13:00etara, hilaren 26an.

> LAIXAN

Laguntzaileak behar dituzte Arrasate-Oñati lasterketa antolatzeko

Maiatzaren 10ean jokatu den Arrasate-Oñati lasterketa antolatu ahal izateko laguntzaileak behar ditu Laixan Elkartek. Izena eman daiteke Laixan elkartearen bertan: goizez, apirilaren 25era arte, eta arratsaldean, apirilaren 28tik maiatzaren 9ra.

Bazkideei etxera bidali dieten gutunean, maiatzeko lasterketaren antolaketaz, eta elkartearen egoeraz egiten dute berba. Laixaneko ekintzak aurrera jarraitzeko auzolanera itzultzeko beharra azpimarratzen dute. Hain zuzen, euskara elkartearen berpiztu behar dela. Horretarako, batzarra deitu dute, bihar 11:00etan Laixan elkartearen lokalean.

> OSOKO BILKURA

Isaias Carrascoren heriotza gaitzetsi zuen udalbatzak

Apirilaren 3an egindako osoko bilkuran, Isaias Carrascoren aurkako atentatua "gogor gaitzetsi" zuten udalbatzarra osatzen duten alderdiek. EAJ, EA, Oñati Ezkerretik, PSE-EE eta PPko zinegotziek aho batez onartu zuten lehen lau alderdiek osatutako mozioa. Mozioaren lehen bi puntuetan, atentatua gaitzetsi eta elkartasuna adierazten diete Carrascoren senitartekoei eta alderdikideei. Arrasateko zinegotzi ohiaren aurkako ekintza giza eskubideen "kontrakoa" dela jasotzen da mozioan.

Azkenik, ETAK herriaren ordezkariak bereganatzeko eta heriotz-zigorra aplikatzeko zilegitasunik ez duela azpimarratzen da.

> DEIALDIA

Udalekuearako begiraleendako izenematea, zabalik

Uztailaren 1etik 30era egingo diren udaleku irekietan begirale modura lan egin gura dutenendako izenemate epea zabaldu du Udalak; hain zuzen ere, apirilaren 24ra arte eman daiteke izena. Horretarako, interesatuek udal bulegoetan dauden inprimakiak bete beharko dituzte.

Begirale modura ibili gura dutenek baldintza bakarra bete behar dute, hain justu ere, 18 urte beteta izatea. Bestalde, eskaera egiterako orduan, nortasun agiriaren fotokopia eta curriculuma eroan beharko dituzte. Aukeraketa egiteko orduan, begirale titulua izatea eta udalekuean esperientzia izatea kontutan hartuko dute.

HEZKUNTZA > LEHIAKETA

Txantxiku Ikastolako ikasleek gaur jasoko dute diseinu lehiaketako bigarren saria

Erosketa-txeketan gastatzeko 1.000 euro, eta ikastolan uzteko oroigarria jasoko dituzte sari banaketa ekitaldian, Donostian

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

Ainhoa Anduagak, Arantzazu Ugartek eta Miren Aranburuk gaur jasoko dute Tecnun Unibertsitateak antolatutako laugarren diseinu lehiaketako bigarren saria; hain zuzen ere, ekitaldia Donostian egingo dute, 12:00etan. Txantxiku Ikastolako ikasleekin batera, marrazketa irakasleak jasoko ditu sariak; hain zuzen ere, Decathlonen gastatzeko 1.000 euroko erosketa-txekea ikasleendako, eta oroigarri bat ikastetxearendako. Diseinu lehiaketako lehen saria Sevillako Tabladilla eskolako jaso du. Lehiaketaren helburua da kirol-gaiak hobetzeko proiektuak sortzea. Horren harira, ikastolako ikasleek tenisko erraketendako gehigarri baterako proiektua egin zuten.

600 IKASLE BAINO GEHIAGO

Tecnun Unibertsitateak antolatutako, Batxilergoko lehenengo eta bigarren mailetakoko 600 ikasle parte hartu dute eta, guztira, 200 proiektu aurkeztu dituzte.




SARIDUNAK Argazkian, Miren Aranburu, Arantzazu Ugarte eta Ainhoa Anduaga.

MIREIA BIKUÑA

AURKEZTUTAKO PROIEKTUA

Tenisko pilotendako gehigarriak irabazi du Tecnun Unibertsitatearen diseinu saria

Kirolarekin zerikusia zuten proiektuak aurkeztu behar zituzten. "Gelan hainbat kirolerako aproposak izan zitezkeen ideiak bota genituen, besteak beste, teniserako bi ideia", esan digute irabazleek. Haietako bat pilotak lurretik jasotzeko tresna bat egiteko proiektua zen. Azkenean, baina, erraketan tenis piloten potea eramateko gailua egitea erabaki zuten. "Erraketak kako bat du gainean, eta bertan teniserako pilotak gordetzen diren potea lotuta eraman daiteke", azaldu digute.



TXANTXIKU IKASTOLA

Edurne Otxoa-Aizpurua



diseinu grafikoa

Zure enpresa edo negozioko logotipoa berri nahi al duzu?

Web orri bat egin nahi al duzu?

...

Kontaktatu eta konpromisorik gabe aurrekontu bat egingo dizut.

652 70 96 69

edurne@e8adiseinugrafikoa.es

www.e8adiseinugrafikoa.es

AZPIEGITURAK > ERREPIDEAK

Dorletako aparkalekutik bideratuko dute Bolibar auzorako zirkulazioa

Bidegorriko lanak direla eta, datorren astelehenean Bolibarrerako ohiko bidea ixteko asmoa dute, eta lanek 15-20 egun iraungo dute

IRATI AGIRREAZALDEGI > ESKORIATZA
Gipuzkoako Foru Aldundiak bidegorriaren zati batean lanak egin behar dituenez, behin-behinerako itxi egingo dute Bolibar auzora doan errepidea ibilgailuendako. Aurreikuspenen arabera, 15-20 egunez egongo da itxita.

Bide alternatibo baten bila jardun dute orain artean Udalean, eta, besteak beste, auzotarrek berba egin ostean, adostu dute Dorleta auzoko aparkalekutik bideratzea ibilgailuak Bolibar auzora joateko, bidegorriko lanek irauten duten bitartean.



KONPONKETAK Dorleta auzoko aparkalekutik bideratuko dituzte ibilgailuak, horretarako bidea egokitu ostean. IKER BARANDIARAN

MENDIOLA AUZOTIK

Beste alternatiba batzuk izan zituzten esku artean. Esaterako, Bolibartik Mendiola auzora joa-

tea; baina Bolibarko auzotarrek ez zuten aukera hori onartu, pista estua delako eta zuloz betea dagoelako. Erabili aurretik

behin-behineko konponketak egiteko asmoa zegoen arren, ez zuten bide hori begi onez ikusi Bolibarko bizilagunek.

Pedro Lasagabaster alkateak ere esan digu aldaketa handia litzatekeela ibilgailuak Mendiolatik desbideratzea: "Guk ere ikusi dugu, behin-behineko bidea izan arren, Mendiolakoa luzeagoa dela, auzoz auzo ibili beharokoa liratekeelako Bolibarkoak".

Alkateak esan digunez, "auzotarrendako aldaketa izango da, baina egindako aukeraren arabera, aldaketa nahiko txikia. Izan ere, oso desbideratze txikia izango denez, lehengo bidearen ondortik joango dira ibilgailuak, eta herrira bertara aterako dira. Gainera, kontuan hartu behar da aldaketa behin-behineko dela, eta epe batean baino ez dutela bide hori erabili beharko".

BIDEA AURREZ EGOKITU

Bidea astelehenean, apirilaren 14an, itxi nahi dute. Horretarako, Dorletako bidea egokitu behar da aurrez. Horren arabera egongo da ixteko eguna, eta lanen iraupenean ere izango du eragina.

Valentin Zurbano > Garapen pertsonalean aditua

"Arazaok sortzen dira egotik egozentrismora pasatzean"

I.A. > BERGARA

Amuska emakume elkarteak antolatuta, Valentin Zurbano eskoriatzarrak berbaldea egingo du gaur, egubakoitza, 18:30ean, kultura etxean. **Jarri zure egoa bere lekuan** da hitzaldiaren izenburua. Zurbano garapen pertsonalarekin lotutako gaiak eta teknikak aztertu eta praktikan ipintzen ditu.

Nola sartu zinen gai horretan?

Modan daude Ekialdeko teknikak, baina ni neu garapen pertsonalaren arloan bilaketa lanean hasi nintzen eta, pixkanaka,

gai batek bestera eraman nau. Egoaren kontua gai puntuala izan da. Gai horiek landuz, ohartu naiz munduan ez gaudela bakarrik eta, niri lagundu didaten bezala, nik ere lagun dezakedala.

Zertaz jardungo duzu gaurko hitzaldian?

Egoa zer den azalduko dut: pertsonaren erdigunea da, gure arazo askoren jatorria, eta, era berean, konponbidea. Mendebaldeko ikuspegi psikologikotik baino gehiago, Ekialdeko metodotatik landuko dut gaia.

Zer egin behar da egoa bere tokian jartzeko?

Egoa beti dago bere tokian. Kontua da guk zer egiten dugun horrekin. Egotik egozentrismora pasatzen garenean, norbere egoa denean erdigune bakarra, arazoak sortzen dira. Izan ere, ez gara ohartzen ingurukoek ere badutela euren egoa. Hortaz, ikasi behar dugu zer den egoa eta ez bizitzen gureari bakarrik begira; ez diogu dagokiona baino paper garrantzitsuagoa eman behar. Gauzen gaineko kontzientzia ematea da bere papera.

Zuk zeuk zer egiten duzu egoa bere tokian jartzeko?

Nik tai-txia, txi-kunga, meditazione... egiten ditut, baina ez dira ezinbestekoak oreka lortzeko; teknika lagungarri asko dago eta lantzea da kontua. Bakoitzak aurkitu behar du berarendako egokiena den teknika edo pertsona. Oinarrizkoa da konturatzea norbera bakarrik ez dagoela munduan eta besteekiko oreka bilatzen saiatu behar garela.

Non dago oreka hori?

Denok dauzkagu adierazteko gauzak fisikoki, mentalki eta emozionalki; baina, era berean, beharra dugu besteengandik gauzak jasotzeko: afektua, maitasuna, ulermena... Horien artean aurkitu behar dugu oreka. Izan ere, askotan alde batera uzten dugu adierazi beharrekoa eta ez dugu eskatzen behar dugun hori.



Valentin Zurbano. IKER BARANDIARAN

Edonork lor dezake oreka?

Adinak eta izaera sozialak ez du axola hori lantzeko. Baina batzuk ez dira gai bakarrik aurre egiteko langintza horri, eta laguntza behar dute.

FAGOR

Fagor Ederlan, Elk. Koop.

Torrebaso pasealekua 7
20540 Eskoriatza
Gipuzkoa

Tel.: +34 943 71 90 00
Faxa: +34 943 71 90 01

MONDRAGON

((112))
SOS DEIAK



LANAK 2010era bitartean, hainbat hobekuntza egin gura dituzte kiroldegian.

IKER BARANDIARAN

ZERBITZUAK > KIROLA

Udalak kirol zerbitzuak hobetzeko asmoa dauka

Boulder eta skategunek egin gura dituzte eta, besteak beste, kiroldegiaren barruan hainbat birmoldaketa egiteko asmoa dute epe ertainean

IKER BARANDIARAN > ESKORIATZA

Eskoriatzako Udala herriko kirol zerbitzuak hobetzeko asmotan dabil aspaldian. Hain zuzen ere, alor horretako azpiegitura batzuk zaharkituak gelditu dira, eta sortu diren beste premia batzuei irtenbidea emateko berriak ere behar dituzte.

Horrekin lottuta, Udaleko Kirol azpibatzerdeak Gipuzkoako Foru Aldundiari jakinarazi dizkio 2011ra bitartean kirolaren alorrean esku artean izango dituen proiektu nagusienak. Guztira, Udalak 490.704 euroko gastua aurreikusitako proiektu horiek guztiak gauzatu ahal izateko.

Esku artean daukan asmoetako bat da Olaetako pilotaleku irekia estaltzea. Horretarako, 115.454 euro beharko dituzte, eta irailera egin gura dute. Bizilagunek egin izan dute frontoia estaltzeko eskaera.

GAZTAÑADUI PILOTALEKUA

Pilotalekuekin jarraituta, Kirolletako azpibatzerdeak erabaki du Gaztañaduiako ere berritu beharrean dagoela. 23.200 euro beharko lituzkete, eta 2009aren hasierarako egingo lukete.

Kiroldegiari dagokionez, hori ere zaharkitua gelditu da arlo batzuetan. Horregatik, gimnasio

berria egin, igerileku gunea eta aldagelak berrantolatu eta sarre-rako kontrola hobetu gura dute. Egitasmo horiek 2010erako egingo lituzkete.

Bestalde, kiroldegitik gertu, Luis Ezeiza herri eskolako kantxako lurzorua aldatzea ere proposatu dute.

BOULDERRA ETA SKATE GUNEA

Zerbitzu berriei dagokionez, Udalak adostu du eskoriatzarren zale-tasunak asetzeko bestelako zerbitzuak jartzeko beharra dagoela. Hala, aztertzen dabilta patinatzaileendako skategunea bat non kokatu; eta baita lokal bat egokitzea eskalada zaleendako boulder areto bat egiteko.

Horrez gain, eskualdean herri kirolak bultzatzeko asmoarekin, kirol mota horiek egiteko materiala erosiko dute.

MUSIKA > KONTZERTUA

Oñatiko bi musika talde gaur, egubakoitza, Inkernun

Show Business taldeak, punk-rocka; eta Sanlo Garage Brothersek, post-hardcorea joko dute

I.B. > ESKORIATZA

Gaur, egubakoitza, Oñatiko bi musika taldek kontzertua egingo dute Inkernu tabernan, 22:30ean: Show Business eta Sanlo Garage Brothers.

Bi taldeek lokal berean entseatzeko dute, baina ez dute musika estilo bera lantzen.

PUNK-ROCKA

Show Business taldea *Eter del demonio* diskoa kaleratzeaz dago. Euskarazko bost kantu

eta gaztelaniazko lau batu dituzte, eta gitarra soinu indartsuko punk-rocka egiten dute. Lokalean grabatu dute diskoa DJ Kirrinekin.

POST-HARDCOREA ERE BAI

Sanlo Garage Brothers orain dela gutxi hasi da kantu propioak idazten, baina dagoeneko eskarmentua dauka Dut eta Rage Against The Machineren kantuak jotzen. Post-hardcorea da egiten duten musika.

> HIRIGINTZA

Ikerketa batzordeak ondorioak aurkeztuko ditu gaurko ezohiko osoko bilkuran, 12:00etan

Gaur, egubakoitza, ezohiko udaleko osoko bilkura egingo dute udaletxean, 12:00etan. Udalak eraturitako ikerketa batzorde bereziak azken hilabeteotan egindako ikerketen txostena jakinaraziko du. Hala, batzorde horrek San Juan kalean eta Dorleta auzoan egindako lanen gaineko nondik-norakoak aztertu ditu, legez kanpoko jarduerarik egin diren edo ez egiaztatzeko.



LUIS EZEIZA

Virginia Imazen kontuei adi-adi

Aurreko astean, ibarreko ume eta gaztetxo askok Haur eta Literaturaren Nazioarteko Eguna ospatu zuten. Horien artean, Eskoriatzako Luis Ezeiza herri eskolan ere izan zuten ekimen berezirik.

Hain zuzen ere, Lehen Hezkuntzako lehenengo eta bigarren mailako ikasleek ipuin kontaketa izan zuten eskolan bertan. Hala, Virginia Imaz ipuin kontaketa isil-isilik eta adi-adi izan zituen ume eta gaztetxo guztiak bere kontakizunetan murgilduta.

Edorta Zubizarreta

Zkia.: 73 659

Tel.: 943 71 44 65

Intxaurtxueta 2 behea
20.540 Eskoriatza

Aurreztu ezazu %60raino zure autoaren aseguruan
eta %25eko gehigarria 2. eta 3. auto familiarrean*

Aprobetxa ezazu aukera hau

Eska ezazu aurrekontua konpromiso
barik eta eraman ezazu opari bat

* kontratazio berrietan



AISIALDIA > GAZTETXEA

Hileko hirugarren egubakoitzerako, ekintzak antolatuko dituzte gaztetxean

Apirilaren 18an izango dira lehen ekitaldiak: txaranga, bertsolariak eta kontzertua egongo dira arratsaldetik gauera artean

IRATI AGIRREAZALDEGI > ANTZUOLA

Denboraldi batez jarduerak etenda izan ostean, laster berriz ekingo diote gaztetxeok ekitaldiak antolatzeari. Gazteek erabaki dute hilabetean behin, hirugarren egubakoitzean, hain zuzen ere, ekintzak egitea gaztetxean. "Eguna zehaztu dugu jendeak ohitura moduan hartzeko eta gogoan izateko egubakoitz horietan, gaztetxera joanez gero, ekitaldiren bat aurkituko duela", esan digu gazte batzarreko kide Itsaso Azkargortak.

Gaztetxean, gaur egun, 15 eta 20 urte bitarteko bost edo sei koardilatako gazteak ibiltzen dira, eta aste barruan zein aste buketan arratsalde gehienetan zabalik izaten da. Nahi dute ekimen horiekin gazteen lokal so-



KONTZERTUA Txato Plato punk-rock talde markinarrak jardungo du Kalebarrengo gaztetxean.

GOIENKARIA

la izatetik gaztetxea euren jardueretarako txokoa izatera pasatzea; gainera, kontzertuak egiteko aukera ere izango da orain. "Nahi dugu jendea gaztetxera gertura dadin zerbait antolatu dugulako, ez bertan egotera bakarrik", dio

Itsaso Azkargortak. Gaineratu duenez, "bide batez, gaztetxea gaur egun anbulatorioa dagoen lekura aldatzen dutenerako gazteon arteko dinamika sortu nahi dugu, eta atzetik datozenek antolakuntza ohiturak hartzea".

DATORREN ASTEAN, LEHENA

Hilaren 18an hasiko dira ekitaldiak. 19:00etan, txaranga izango da kalean, luntxa gero Hamaika Bertuteko bertsolariekin, eta gauean No hay solucion eta Txato Plato taldeen kontzertua.

KIROLA > PILOTA

Bihar da azken eguna pilota txapelketan izena emateko

Olaldekoak Udaberri Sariko finalera heldu dira; Debarroko Txapelketan ondo dihardute

I.A. > ANTZUOLA

Bihar, zapatua, amaituko da herriko eskuz binakako pilota txapelketan izena emateko epea. Interesatuak Olaldeko pilota saileko edozein kiderengana jo beharko dute horretarako. Pilota goxoarekin jokatu ditzuzte partiduak udaberriaren barrena. Izena ematen duten bikoteen arabera erabakiko dute lehiaketa sistema, eta egutegia ere bai.

TXAPELKETAK, ABIAN

Bestalde, Olaldeko pilotariak txapelketetan dihardute buru belarri. Udaberri Sarian finalera heldu dira, eta Debarroko txapelketan maila onean dihardute; martitzenean, Bergarakoen aurka 22 eta 15 irabazi zuten. Aitor Mendizabalek Bergara Hiria Txapelketan jokatu du Jauregiarekin bikotea osatuz, Onsalo eta Galarragaren aurka, apirilaren 22an, 19:30ean.

MUSIKA > KONTZERTUA

Txistu eta akordeoi emanaldia egingo dute etzi Olaranen

Garikoitz Mendizabal txistulariak eta Aitor Furundarena soinu-joleak jardungo dute

I. A. > ANTZUOLA

Etzi, 19:00etan, hitzordua dute herriko musika zaleek. Garikoitz Mendizabalek eta Aitor Furundarenak txistu eta akordeoi doinuak eskainiko dituzte, hurrenez hurren. Txistuak eta akordeoiak zailtasuna izan dute dantzarekin edo trikitiarekin lotu ezean jendearen arreta pizteko, eta emanaldi horren bitartez modu entzungarrian helarazi nahi dituzte entzuleengana.

ERREPERTORIOA

Bi musikari ezagun horien eskutik, askotariko doinuak entzuteko aukera izango da kontzertuan. Bach, Vivaldi eta Aita Hilario Olazararen bezalako konpositoreen ganbara musikaz gain, Eskoziako, Irlandako eta Euskal Herriko folk doinuak, dantzarako musika (trikitia, arin-arina, fandangoa...) eta artzainen antzinako kantuek eskainiko dituzte.

> AISIALDIA

Bonsaien gaineko oinarrizko ikastaroa antolatu dute

Bonsaiak nola hazi eta zaindu irakasteko oinarrizko ikastaroa antolatu du Udalak. Interesatuak apirilaren 18a baino lehen udaletxera jo beharko dute izena ematera. Gero, parte hartu nahi dutenen artean erabakiko dute noiz eta nola elkartu oinarrizko ezagutza horiek jasotzeko.

> OSASUNA

Umeendako zerbitzua eskainiko dute dentistaren kontsultan

Ana Sainz dentistaren hortz klinikan umeendako zerbitzu berezia eta ortodontzia zerbitzuak eskainiko ditu Marina Nuchen odontologoak. Zerbitzu horiekiko interesa izanez gero edo informazio gehiago eskatzeko honako telefono zenbakira deitu beharko da: 943 78 71 69.

> HEZKUNTZA

Haurreskolaren gaineko galdeketa abian da oraindik

Ume jaioberrien gurasoei eta haurdun daudenei galdeketa egiten dihardu Udalak, jakiteko aurrerantzean umeak Haurreskolara eramango dituzten ala ez. Nahi dute egoeraren ikuspegi ahalik eta zehatzena izatea. Horretarako, udaletxera joateko dei egin diete gurasoei.

> MENDIA

Irteera egingo du Arrolak 27an, Araoztik Orkatzategira

Arrola Mendi elkarteak irteera antolatu du apirilaren 27rako. Araozten abiatu eta Orkatzategirako ibilbidea egingo dute goizean barrena. Irteerara joan nahi dutenek apirilaren 16an, 19:00etatik 20:00etara bitartean joan beharko dute Arrola elkarte-ko lokalera izena ematera.

SUKALDEKO ALTZARIAK
Harizki

Zurrategi plaza 4, behea. ANTZUOLA. Tel. eta faxa 943 78 71 80

**MUEBLES
IGEA**

Sukalderako eta
bainurako altzariak
Altzari rustikoetan
espezializatuak

zabalo
IGELTSEROTZA

Jose Luis Zabalo

Kalegoi 9, 1. solairua
ANTZUOLA.
Tel. eta faxa:
943 76 60 89

ZAHAR BERRITZEAK:

Fatxadak

Bainugela eta sukaldea

Lokal komertzialak

Teilatuak

KIROLA > KROSA

Umeeek gaur, barikua, dute azken eguna etzi egingo den Herri Krosean izena emateko

Bolatoki inguruan eta herriko kaleetan barrena egingo dute krosa, etzi, domeka, 8-12 urte bitarteko umeeek, Udalak eta Egokik antolatuta



JENDETSUA Iaz 27 umek hartu zuen parte Herri Krosean.

EGOKI

LARRAITZ ZEBERIO > ELGETA

Elgetako 8-12 urte bitarteko neska-mutikoek gaur, hilak 11, dute azken eguna domekan Udalak eta Egokik antolatuko duten herri krosean izena emateko.

Lasterketa Bolatoki inguruan eta herriko kaleetan barrena egingo dute, 11:30ean hasita.

Antolatzaileek bi taldetan banatuko dituzte parte-hartzaileak: 8-10 urte bitarteko neska-mutikoek benjaminak dira eta 800 metroko lasterketa egin beharko dute; aldiz, 10-12 urte

bitartekoak alebinak dira, eta 1.000 metroko lasterketa egin beharko dute. Bigarren aldia da Elgetan horrelako lasterketa egingo dela. Aurreko urtean arrakasta handia izan zuen.

SARIAK EGONGO DIRA

Dominak eta opariak banatuko dituzte antolatzaileek parte-hartzaile guztien artean krosa amaitu ostean. Iaz beste jende batzea da helburua.

ERASOA > INTXORTAKO ATEA

Urteurreneko egunak aukeratu dituzte monumentuari eraso egiteko

Udalak gogor kritikatu du eraso eta nahiko luke urteurreneko egunerako, hilak 27, atzera ere inguru guztia txukun eta garbi egotea

L.Z. > ELGETA

Hareazko txorroekin garbituko du Elgetako Udalak *Intxortako Atea* eskultura. Juan Jose Aranguren da eskulturaren egilea eta, berarekin harremanetan ipinita, Udalak erabaki du garbiketa prozesu hori dela egokiena monumentua gutxien kaltetzeko.

Urteurreneko egunak aukeratu dituzte monumentuari eraso egiteko. Pintura gorritz eta horiz zikindu dute eskultura. Gertu dagoen gudariaren omenezko harria ere apurtu dute kolpeka.

Elgetako Udalak gogor kritikatu du gertatutakoa. "Leku oso berezia da gudariendako. Lehe-

nengo aldia da *Intxortako Ateari* eraso egiten diotela. Ez, ordea, gudariaren omenezko harriari", adierazi du Oxel Erostarbe alkateak. "Hilaren 27an, urteurrenarekin batera, Udalak asmoa dauka bertan ekitaldi bat egiteko. Ahaleginduko gara egun horretarako inguru guztia txukuntzen eta garbitzen".

URTEURRENEKO EKITALDIA

Lau egunez frankisten erasoari eutsi ostean, 1937ko apirilean apurtu zen Elgetako frontea. Bertan hildako gudariaren omenez, lore eskaintza egingo du Udalak hilaren 27an. Gainera, bisita gidatuak antolatuko ditu Intxortako 1937 elkartearekin batera soldaduek erabiltzen zituzten lubakiak nondik nora kokatuta zeuden jakin nahi duten guztiendako.

> IRTEERA

Hilaren 19an, gaztetxeak irteera egingo du sagardotegira

Urtero legez, Elgetako gaztetxeak irteera egingo du sagardotegira. Hilaren 19an egingo dute, baldin eta jende kopuru nahikoa izena ematen badu. Asmoa da goizeko hamaitan irten eta Hernanin bazkaltzea. Izena emateko epea zabalik dago hilaren 13ra arte Haizea tabernan. 40 euro ordaindu behar dira.

> FUTBOLA

Elgetarrek Zestoan jokatu dute bihar, zapatua, 18:15ean

Elgetako futbol taldeak norgehiagoka garrantzitsua du aste bukaera honetan. Arerio zuzena duen Zestoaren futbol zelaian jokatu du bihar, zapatua, 18:15ean hasita.

Bi taldeak puntu berdinketarekin daude taulako lehenengo postuetan. Garaipena, beraz, garrantzitsua da bihar.

> KZGUNEA

Aitor Madrid tutorea Elgetan izango da gaur, 18:00etatik 20:00etara

Elgetako KZgunean doan nabigatzeko aukera dute herritarrek. Hilean bitan, gainera, Aitor Madrid tutorea etortzen da ikastaroak eman eta erabiltzaileen zalantzak argitzera.

Madrid gaur, hilak 11, egongo da Kultura Etxean dagoen KZGunean. Bi ordu egingo ditu bertan, 18:00etatik 20:00etara.

EUSKARA > BILERA

Egunerokoan hizkuntza eskubideen alde egiteko deia

Elgetako Euskal Herrian Euskaraz taldeak egoera aztertzeke bilera egin berri du

L.Z. > ELGETA

Elgetako Euskal Herrian Euskaraz taldeak deituta, hainbat lagunek batzarra egin dute herrian euskararen eta hizkuntza eskubideen egoerari buruz gogoeta egiteko.

Bi ondorio nagusi atera dituzte: "Nahiz eta gurea ingurune euskalduneko herria izan (...), egunero eta edozein esparrutan gure hizkuntza eskubi-

deak urratuak izaten dira", adierazi dute. "Zerbait lortu nahi badugu, norbanakoak eragin eta astindu beharko du bere hizkuntza eskubideen alde instituzio desberdinek urratsak eman ditzaten". Taldeak gonbitea egin die elgetarrei eta herriko elkarteei, euskararen aldeko borrokan elkarlanean jardun nahi izanez gero, eurengana lasai jotzeko.

KIROLA > LASTERKETA

Aixolako urtegiari 23 itzuli bederatzi ordu eta erdian

Aitor Bolinaga elgetarrak 100 kilometro pasatxoko distantzia egin du lagun batekin

L.Z. > ELGETA

Zarata asko atera barik, hilaren 3an Aitor Bolinagak eta haren lagun Juan Bautista Valdubieco *Tximis*-ek egundoko marka egin zuten. Aixolako urtegiari 23 itzuli eman zizkion lasterketa. 100,600 kilometro egin zituzten 09:32:15eko denboran.

"Erronka handia zen eta ez genekien lortuko genuen", adierazi du Bolinagak. "Horregatik, ez genuen jende gehiegi jakinaren gainean jarri. Azkenean, baina, jende guztia enteratu zen eta asko joan ziren gu animatzera".

Ondo baino hobeto ezagutzen dute Aixolako urtegia Bolinagak eta Valdubieco. "Gehienetan han egiten ditugu entrenamenduak. Urkulun eta Landan ere ibiltzen gara, baina Aixola gertu dugu eta leku lasaia da", esan du elgetarrak. "Ondo amaitu nuen, burutik hanketatik baino hobeto. Gogorra baina polita izan zen".



Aitor Bolinaga.

L.Z.

22 MARATOI MUNDU OSOAN

Bolinagak 49 urte ditu eta duela hamar bat hasi zen maratoietan eta ultra-maratoietan. Hegoafrikan, Argentinan, Norvegian, Jordanian... leku askotan izan da, baina lasterketarik gustukoenak Donostiako maratoia du. Zergatik egin duten Aixolako marka? "Gorputza proban jartzearren", esan du. Eta besteren bat prestatzen ari omen dira!



Valdubieco eta Bolinaga, Aixolan, proba amaitzen.

AITOR BOLINAGA



FRANTZIARA BIDAIA Jon Errasti, Baso eta Mendietako zinegotzia; Javier Arriolabengoa, Udaleko teknikaria; Albert Hilaire, Ceseauko alkatea; eta Asier Agirre, Aramaioko alkatea, Censeau herrian.

GOIENKARIA

AZPIEGITURAK > ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

Egurrarekin energia sortzeko aukera aztertzen dihardu Udalak

Udaleko ordezkariak Frantzian izan dira, energia berriztagarrien inguruan egin den azoka batean

ARRITXU BARRUSO > ARAMAIO

Aramaioko Udalak energiaren gastua aurreztu nahi du Udalaren eraikinetan eta, herri mailan, energia berriztagarrien erabilera bultzatu nahi du. Horretan ari dira lanean azken hilabeteotan Udaleko ordezkari eta teknikariak. Energiaren inguruko azterketa bat ere agindu diote Egimen Elkarteari. Horrek herrian kon-

tsumitzen den energia kopurua eta mota aztertuko ditu, eta energia garbiak erabiltzeko dauden aukerak ikertuko ditu.

Aramaioko alkate Asier Agirre, Baso eta Mendietako zinegotzi Jon Errasti eta Udaleko teknikari Javier Arriolabengoa Lons le Saunier (Frantzia) hirian izan ziren, energia berriztagarrien inguruko azoka batean. Bertan,

egurra erregai gisa erabilia energia sortzeko dauden modu desberdinak ikusi zituzten. Herrian energiaren gastua murrizteko modu ona izan daitekeela uste du alkateak.

Azoka ikusteaz gain, Censeau herria ere bisitatu zuten Frantziara egindako bidaietan. 320 biztanle ditu herri horrek eta, Aramaioko alkateak azaldu digunez, egurra erregai gisa erabilia, bost eraikinetan ura eta etxebizitzak berotzeko energia sortzen dute. "Oso interesgarria da Censeau herrian ikusi genuena. Egurra

erreta sortzen dute energia eta, ondoren, zirkuitu baten bitartez, herriko bost eraikinetara eroaten dute energia hori. Etxe pribatuak ere gehitu dira zirkuitu horretara. Modu horretan, gasa eta gasolioa alde batera utzi dituzte". Asier Agirrek azaldutakoaren arabera, sistema hori martxan jartzeko inbertsio handia egin behar den arren, gasolioaren prezioaren azken urteotako gorakada ikusita, bost urtean kitatuko litzateke sor hori. Horixe da, behintzat, Censeau herriko alkateak azaldu diena.

Sistema hori Aramaiorako oso ona izan daitekeela uste du alkateak: "Energia aurreztuko genuke eta energia berriztagarriak erabiliko genituzke. Gainera, Aramaiok egur pila bat dauka basoetan, eta irtenbide polita izan daiteke egur horrendako".

Albert Hilaire, Censeau herriko alkatea, datozen hilabeteotan Aramaiora etorriko dela esan du alkateak, Aramaioko kasua gertuagotik ezagutzeko eta bere herrian garatu duten proiektuak Aramaion izan ditzakeen aukerak aztertzeko.



M. ARRIOLABENGOA

Markel Arriolabengoa, hirugarren

Joan den domekan mendiko bizikleta proba egin zuten Arazurin, Nafarroan. Spiuk rankinerako baliagarria zen lasterketa hori, eta Markel Arriolabengoa aramaiorak hirugarren postua lortu zuen junior mailan. Beste bi aramaioar ere izan ziren proban: Raul Perez 11. postuan geratu zen kadete mailan, eta Bingen Lopez erretiratu egin zen, katea apurtu zitzaionalako.

> UDALA

Foru Aldundiko udalekuean izena emateko epea, zabalik

Arabako Foru Aldundiak udalekuean parte hartzeko izena emateko epea zabaldu du. Hona hauek dira Diputazioak aurtengo udarako eskaintzen dituen aukerak: udalekuak, ingelesezko udalekuak, udako barnetegia eta gazte udalekuak.

Interesa dutenek Aramaioko udaletxean eskuratu ahaliko dituzte udalekuen programak eta baita izena emateko bete beharreko pausoen gaineko informazioa ere. Bestela, www.alava.net webgunean eskaintza horien gaineko xehetasun guztiak ikusteko aukera ere badago.

> UDALA

Euskararen erabilera bultzatzeko plana lantzeko bilera irekia

Aramaioko Udalak bilera irekia antolatu du datorren martitzenerako, apirilaren 15erako. Euskararen etorkizuna izango dute hizpide. Euskararen erabilera eta normalizazioa indartzeko, datozen urteetarako plangintza berezia egingo du Udalak, Emun kooperatibak lagunduta. Plan hori egiteko, Udalak ezinbestekotzat jotzen du herritarren iritzia jasotzea. Hori horrela, Udalak martitzenean egingo den bileran parte hartzeko deialdia egiten die herritarrei. Interesa duen edonork izango du iritzia emateko aukera. Bilera 19:00etan izango da.

> ZINEMA

'Cristobal Molon' filma ikusteko aukera dago etzi, kultura etxean

Oñatiko Aitor Arregik zuzendutako *Cristobal Molon* filma da aste honetan Aramaioko txikitxoek ikusi ahaliko dutena. Domekan izango da hori, 17:00etan, kultura etxean.

Belarronia inperioa, aldameneko Goroztonia inperioaren handinahikeria dela-eta, antzinako handitasuna galtzen ari da. Hori horrela, Belarronia-ko erregearen aholkulari batek bidaia zirrargarri bat proposatuko du; Ilargira espedizio bat. Bertan, erregearen aurpegia grabatu nahi du, munduko edozein tokitatik ikusi ahal izateko moduan.

Kanposanturako bidegurutzearen sarreran zegoen

Semaforoa jarri dute, eta txandaka ematen diete pasoa autoei

Aldundia dabil lanok egiten, eta datorren astean bukatuko ditu

MIRARI ALTUBE > LEINTZ GATZAGA

Gatzagatik pasatzen den errepide nagusia konpontzen dabilta egunotan. Zuloa zegoen kanposantura hartzen den bidegurutze inguruan, GI-3310 errepidean, hain zuzen eta, egunero bertatik pasatzen diren gidari batzuen esanetan, "ia kontrako bideraino joan beharra zegoen pasatzeko".

Udalak Aldundiari eman zion egoeraren berri, eta aste honetan bertan, astelehenean, etorri dira langileak konpontzera. Lan txikia dela eta, astebete inguru iraungo duela jakinarazi du Errepide Sailak, baina egin bitartean semaforoa jarri dute autoak pasatzeko. Hala, automobil pilaketarik egon ez dadin, Gasteizera joan-etorriak egiten dituztenek Arlabango errepidea erabiltzea aholkatu dute.

PARE-PAREAN AZPIEGITURA LANAK
Gainera, errepidea konpontzen dabiltzan pare-parean, Gatzagako azpiegitura lanen bigarren

LANAK > ERREPIDEA

Gatzagako errepidean zegoen zuloa konpontzen dabilta



ERREPIDEA Aldundiko langileak Gatzagatik pasatzen den GI-3310 errepideko zuloa konpontzen, martitzen goizean.

MIRIAN BITERI

fasea egiten dihardute beste langile batzuek. Lan batek ez dauka bestearekin zerikusirik, baina leku berean langile eta makina

asko dabilta egunotan, eta automobil gidariei kontu handiarekin pasatzeko eskatu diete. Ur saneamenduari dagozkion hodiak

aldatu eta gasarenak sartzeko lanak martxoko lehen astean hasi zituzten, eta ezusteko barik doaz aurrera. Errepide alboan dabil-

tza lanean azken hiru asteotan -Pilar kalearen bukaeran-, baina bakarrik tarteka moztu behar izan dute bidea.

AISIALDIA > UDALEKU IREKIAK

Uztaileko udalekuak antolatzeko lehen proposamenak aztertzen hasi da Gurel

Hainbat adin tartetako umeak daude; horregatik, jarduerak ondo zehaztu gura dituzte

M.A. > LEINTZ GATZAGA

Gurel guraso elkarteak uztailean egingo dituzten udalekuak gertatzen hasi da. Lehen proposamenak bota dituzte elkarteak, eta poliki-poliki hasiko dira lotzen kontu guztiak.

Ume asko daude Gatzagan, adin tarte askotakoak, eta horrek kezkatzen ditu, hain zuzen, Gurelko batzordeko kideak: "Zein ekintza antolatu eta zeinendako erabaki behar dugu lehenengo, ume guztiendako ezin ditugulako ekintza berberak egin. Horretan gabiltza lanean azken egunotan", argitu du Aitziber Gorosabel idazkariak. Kopuruari

dagokionean, 2 eta 10 urte artekoak dira gehien, 10 eta 12 artekoak gero, eta 14 eta 15 urte arteko gutxi batzuk daude.

UZTAILEKO BI ASTE

Urtero legez, udalekuok uztailean egingo dituzte, ume eta gazte txoek oporrak hartu ostean. Bi aste izango dira, baina oraindik ez dute data zehatzik jarri: "Nagusiak kanpoko udalekuetara joan izan dira uztailean, hortaz, bi aste egin beharrean, bakarra egin izan dute. Uste dugu aurten ere hala izan daitekeela; gainerakoek bi aste egingo dituzte", argitu du Gorosabelek.

Gainera, azken urteotan antolatutako hainbat ekintza errepikatze asmoa daukate: "Zaldian ibiltzera joateko asmoa daukagu, eta igerilekura ere bai". Horiez gain, beste irteera batzuk egitea aurreikusi dute nagusienekin. Eta txikiekin, herrian bertan egingo lituzkete hainbat eratako jarduerak.



UDALEKUAK San Fermin eguna ospatzen iazko uztailean.

MIRARI ALTUBE

PRESIDENTEA, NEREA MARURI
Guraso elkarteak batzordea abenduan berri zuten. Nerea Maruri eta Aitziber Gorosabel sartu ziren orduan Gurutze Orbegozo eta Ana Milanen orde. Karguak, baina, banatu barik utzi zituzten,

eta dagoeneko egin dituzte izendapenak: Maruri izango da datozen bi urteotan elkarteak presidentea, eta Gorosabelek idazkaria. Harekin batera daude batzordean Eguzkiñe Alberdi eta Ainara Zubillaga.

ELKARTASUNA

Saharako umerik ez da etorriko Gatzagara

M.A. > LEINTZ GATZAGA

Saharako errefuxiatuen kanpamenduetan bizi diren umeak udan -uztaila eta abuztua- etxean hartzeko deia egin zien gatzagarrei Bideberri mankomunitateak -Gizarte Zerbitzuak bideratzeko Antzuola, Elgeta eta Gatzagako osatutako mankomunitatea-, baina ez dute eskaerarik jaso.

Oporrak bakean egitasmoaren barruan antolatutako ekimena da, Euskadiko Fronte Polisarioaren Ordezkaritzak eta Sahara Herriko Lagunen Elkarteak antolatuta. Gainera, gatzagarren batek etxean hartuz gero, Udalaren dirulaguntza jasoko luke. Atzo, eguna, bukatu zen izena emateko epea, eta Gatzagan ez dute jaso eskaerarik. Lehenengo aldiz egin dute deia herrian, baina aurten ez da Saharako umerik etorriko.

SASKIBALOA > LEHENENGO MAILA, IGOERA FASEA

MUK gutxi du galtzeko, eta asko irabazteko, Leclerc-en kantxan

Liderrak bigarren postuan dagoen Leclerc-en kontra jokatu du bihar Gasteizen (17:30)

Ointxe! taldeak autobusa jarri du ibarreko jarraitzaileak taldea animatzera joan daitezten

XABIER URTZELAI > ARRASATE

Igoera faseko norgehiagoka erabakigarriena izan barik –joan den astekoa ere oso garrantzitsua zelako–, Mondragon Unibertsitateak sailkapenean kontrario zuzena duen E.Leclerc taldearen kantxara egin beharko du bihar bigarrena (17:30, Landazuri kiroldegia).

Duda barik, biharko norgehiagoka da igoera fasean zalek hasieratik gorri markatuta izan duten partidua: lehenengoa eta bigarrena aurrez aurre. Bistan da Gasteizko talde hori dela

Arrasatekoen helburua zapuzteko gauza izan daitekeen bakarria, eta euren kontra MU zer egiteko gauza den ikusteko gogoz dago jendea. Gogo hori asetzeko –eta Arrasateko taldeak Gasteizko kiroldegiko harmailetan aldeko txaloak izan ditzan–, Ointxe! klubak autobusa jarri du zaleendako doan –www.ointxe.com webgunean eman ahal da izena–.

ORAINDIK SEI GERATZEN DIRA

Izenburuan aurreratu moduan, baina, biharko norgehiagoka ez da aurrez uste daitekeen bezain erabakigarria –irabazten badute bai, erraldi baten aurrerapauso egingo dute–. Orain arte egindako lanari esker, Mondragon Unibertsitateak balio handia duen abantaila poltsikoratu du: bi garaipeneko alde du. Horrek esan gura du, gainontzeko kontrario guztiak mendean hartuz gero, E.Leclerc taldearen kontrako emaitzek ez dutela horrenbeste balio. Emaitza aldetik ez dira horren erabakigarriak; bai, ordea, psikologikoki izan dezaketen eraginagatik.

Hori da, hain zuzen ere, joan den astean taldeko entrenatzaile Iñaki Merinok gogorarazten zuena: "Gainontzeko partiduz guz-



PRESIOA Alartzia kontrario batekin aurrez aurre, artxiboko irudian.

GOIENKARIA

Igoera faseko sailkapena

Mondragon Unibertsitatea	23
E. Leclerc Vitoria	21
Valsay Ardoi	19
Viajes Marfil	18
Urdaneta	18
Cafes Aitona	18
Fundacion Baskonia	17
Zornotza	16
Tabirako Baque	15
CNP UPNA	15

ITURRIA: WWW.BASKETBASKO.COM

tiak irabazten baditugu Leclerc-en kontra galduta ere aurrean izango gara. Hori bai, besteren baten kontra galduz gero, Leclerc mendean hartu beharko dugu".

Viajes Marfilen kontrako partiduaurren aurretik egin zituen Merinok adierazpenok, jendea alde aurretik oharkabetu ez zedin. Eta, talde nafarraren kon-

trako garaipen borrokatuak erakusten du (67-80) MUko mutilak argi laburrekin dabiltzala, alde aurretik itsutu barik.

ITURRIPEN JOKATU BEHAR DUTE

Bihar gertatzen dena gertatzen dela, oraindik igoera faseko bost norgehiagoka jokatu beharko dituzte, eta gasteiztarrak orain-

dik Iturripetik igaro behar dira. Hain justu ere, azken jardunaldian izango da hori.

Bestalde, taldeko harrobien egiten dabiltzan lanak fruituak ematen jarraitzen du; kade te mailako Gorka Arejolaleibak Gipuzkoako selekzioarekin jokatu du Pau-ko txapelketa. Jokatu, eta txapelketa irabazi.



LOKATZA

Arnaiz (Ulma) eta Arantzeta (Sumofic) Debako lasterketan protagonista

Joan den aste bukaeran egin zuten Deban 35. Amaiak Bat Txirrindularitza Lasterketa, eta gazte mailako Xabier Arnaiz oñatiarra (Ulma) eta Xabier Arantzeta antzuolarra (Sumofic) protagonistak izan ziren.

Oñatiarra izan zen lasterketako azkarrena (2:14:47), eta mendiko saria ere hark eskuratu zuen. Antzuolarra, berriz, hirugarren helmugaratu zen, Arnaiz baino 30 segundo geroago. Eta, Caja Ruraleko Eneko Gartzia izan zen bigarrena. Goian, podiumean ateratako erretratua.

BORROKA LIBREA > EUROPAKO TXAPELKETA

Zorteak bizkarra eman zion Undari lehenengo borrokan

Olaetako borrokalariak ezin izan zuen lehenengo kanporaketa gainditi

X.U. > BERGARA

Maidar Undak ez du gura moduko Europako Txapelketa egin, ezta gutxiago ere. Oletako borrokalariak ezin izan zuen lehenengo kanporaketa gainditi (72 kilotako kategorian), Suediako Jenny Franssonek ezustea eman zion, eta txapelketa kanporatu egin zuen.

Borrokaldira hasi bezain laster aramaioarrak nagusitasuna erakutsi zuen. Itxura ona zuen lehenengo kanporaketa horrek, bazirudielako Undak ez

zuela aparteko zailtasunik izango Fransson mendean hartzeko. Lan saioa amaitu aurretik, baina, –puntuak Unda zen aurretik– Europako Iparraldeko borrokalariak zortea izan zuen aldeko, zortea eta izan zuen aukera bakarria ondo aprobetxatzen jakin zuela. Franssonek Unda oharkabean harrapatu eta sekulako etekina ateratu zion horri; mugimendu azkar bat egin, eta kontraerasoan erabakigarria izan zen kolpea eman zion. Hala, aramaioarrak espero baino lehenago esan behar izan zion txapelketari agur.

Pekingo Olinpiar Jokoetan ateratu ahal izango du Undak Europako Txapelketan sartu zaion arantza; abuztuan lehiatuko da Pekinen.

ESKUBALOIA > EUSKADIKO TXAPELKETA

Azken hirugarren sailkatzeko lehiatuko da domekan Bergara

Mahoneroek Portugaleteren kontra jokatuko dute ligako azken norgehiagoka, domekan (12:15); Urdanetak aurea ez hartzea da helburua

XABIER URTZELAI > BERGARA

Joan den astean jasotako kolpea eta gero -jaitsiera postuetatik irteteko azken aukera galdu zuten Gure Jorge Fernandez kan txan, 31-27- Bergarak jaitsiera postuetan amaituko du Euskadiko Txapelketa. Hori dagoeneko segurua da, baina geratzen den jardunaldian oraindik asko egon daiteke jokoan.

ZAIN EGON BEHAR

Beste kategorietan gertatzen denaren arabera, baliteke azken hirugarren sailkatzen den taldeak kategoriari eustea, eta orain momentuan aukera horri heldu behar dio Bergarak. Postu bat atzerago dagoen Urdaneta -puntu batera dago-, baina, ez dago amore emateko asmoarekin. Hori dela-eta, Bergarak orain dagoen lekuan jarraitzeko irabazi egin behar du domekako Portugaleteren kontrako partidua, edo Urda-



AZKENA Denboraldiko azken norgehiagoka jokatuko du Bergarak.

GOIENKARIA

netaren porrotaren zain egon. Hain zuzen, talde horrek ezer jokoan ez duen Romoren kontra jokatuko du etxean.

Gauzak horrela, Bergarak etxeko zaleen aurrean jokatuko du urteko azken norgehiagoka, domeka eguerdian (12:15). Esamesak baztertzeko, Federazioak ordu berean jarri ditu zerbait

jokoan duten taldeen arteko norgehiagokak, badaezpada ere. Dena dela, mahoneroek beste txapelketetan gertatzen denaren zain egon beharko dute.

Ford Mugarri Arrasatek, bestalde, denboraldia amaitzeko Askartza liderraren kantuan jokatuko du zapatu arratsaldean (16:00, Leioan).



GOIENKARIA

Ehun gimnasta baino gehiago izango dira bihar Labegaraietan

Bihar egingo dute Bergaran eskola arteko B mailako txapelketa, 10:45ean hasita. Guztira 100 gimnasta baino gehiago izango dira; alebinak eta kadeteak lehian -goizean- eta gaztetxoagoak erakustaldia ematen -arratsaldean-. Taldeka, alebin mailako San Martin eta Mariaren Lagundiko neskek jardungo dute, eta kadetetan Ariznoakoak. Bakarka, berriz, Michelle Rajado eta Irene Odriozola lehiatuko dira, eta kadetetan Izaskun Fernandez eta Jennifer Pineda.



JOXE ELORTZA

Ampo Ordiziak kategoriari eutsi dio

Joan den asteko hil ala biziko norgehiagokan Ampo Ordiziak 28-20 hartu zuen mendean Alcobendas, eta Iker Elortza arrasatearra -erretatuan- izan zen partiduko protagonistetako bat, hark egin zituen eta norgehiagokako lehenengo bi entseguak. Hasierako minututan ondo aurreratu zen Ordizia, baina lehenengo zatia amaitu aurretik Alcobendasek aurea hartu zuen. Hala, bigarrenean lortutako abantailari esker nagusitu ziren ordiziarak.

> ARETO FUTBOLA

Eskoriatzak sailkapenean azkena ez izateko jokatuko du bihar Goierriren kontra

Euskal Liga Txapelketa amaitzeko sei jardunaldi geratzen dira, baina sailkapenean azken postuetan dauden Eskoriatzak eta Goierrik aukera txikiak dituzte kategorian mantentzeko, hurrengo sailkatuek 11 puntuko abantaila dute-eta.

Bihar, 18:00etan Intxaurtxuetan denboraldi guztian zarpina puntu baino eskuratu ez dituzten Eskoriatzak eta Goierrik jokatuko dute. Jokoan egongo diren bi puntuekin batera, azken postua ekiditea izango da bi taldeen helburua. Joaneko partiduan bi talde horiek berdindu egin zuten, 5-5.

> MENDIA

Debagoieneko sei lasterkari joango dira apirilaren 20an Patrulla de los Glaciares lasterketara

Europa mailan dagoen mendiko lasterketa esanguratsuenetako bat da Patrulla de los Glaciares, Suitzako Alpeetan egiten duten lasterketa. Eta, Debagoieneko sei lasterkarik hartuko dute esku lasterketa horretan, hilaren 20an.

Gizonezkoetan Oñatiko Iban Letamendik, Arkaitz Letamendik eta Aitor Otxoak osatuko dute talde bat. Baina, Debagoienak emakumezkoetan ere ordezkari izango du, Loreti Elortza (Oñati, Leire Ezpeleta (Arrasate) eta Isa Casado (Arrasate) ere gauze egiten duten mendiko eskiko lasterketan izango direlako.

> KARATEA

160 karateka baino gehiago elkartuko dira bihar Oñatin, Shotokaneko 14. Txapelketan

Bihar arratsaldean egingo dute, 16:00etan hasita, Oñatiko 14. Shotokan Txapelketa. Zubikoan egingo duten txapelketarako antolatzaileek 160-170 karateka inguru espero dituzte. Hala, Oñatiko, Eibarko eta Bergarako karatekak lehiatuko dira hor.

Txapelketan aurre-benjamin, benjamin eta infantil mailako karatekek hartuko dute esku, eta kata modalitatean lehiatuko dira. Modalitate horretan, karatekek bakarkako saioan borroka arte horretako formak landuko dituzte, erasoko eta defentsako mugimendu teknikoak eginez.

FUTBOLA > PREFERENTEA

Jaitsiera postuek baldintzatu barik

Aloña Mendiko mutilek denbora larregi daramate jaitsiera postuak behin betiko atzean utzi ezinka; horrek sortzen duen egoneza alde batera uztea ezinbestekoa da

X.U. > BERGARA

Aloña Mendik (29) gora begira baino behera begira darama abendutik hona. Urtea txukun hasi bazuten ere, emaitzei dagokienez 2008an ez dute aurpegi onena erakutsi. Zubiaren mutilek partidu bakarra irabazi dute, martxo hasieran, UPVren kontra. Orduan, hainbat astetako bola da txarra etetea lortu zuten, eta etxean irabazi hori zen bigarren erronka; orduan, Aloñak ez du gora egin, baina behintzat, beherako joera geratu dute, bederatzia puntutatik lau irabazita.

Joan den astean esku hutsik itzuli ziren Zestoatik (2-1), baina domekan daukate jaitsiera postuen mamua alde batera utzi eta erdialdean dagoen Idiazabal mendean hartzeko aukera (16:30). Aurtengoa ez da denboraldi gogoangarria izango, bistan dago hori, baina ez dago zertan azkenera arte sufritu, ez dute hori merezi.



IDIGORAS Epaileak adierazitakoari adi, Hondarribiaren aurkako partiduan. GOIENKARIA

ARETXABALETA ERE ETXEAN

UDAK (44) ere ez zuen Touringean (22) zelaian espero moduko norgehiagoka egin. Atzealdean daudenek azkenera arte borrokatuko dute; orain momentuan, hobe da sailkapenean erdian dabilzaten kontra jokatzeko, itolarrian daudenek kontra jokatzeko baino. Aretxabaletak, baina, postu bat gorago egiteko aukera paregabea

izango du domekan (16:30), Ondarroako Aurrera (45) puntu batera baino ez dago-eta.

Mondra (42), azkenik, Hirugarren Mailara igotzeko lehian dabilen Ordiziari (52) ametsa galarazten ahalegindu da (zapatua, 16:30). Joan den astean Trintxerperen zelaian estropezu egin zuten ordiziarrek, eta aurtun gutxitan gertatu da hori.



EDVIESTURS.COM

Lehia estua izango da Euskal Herriko Boulder Ligako azken jardunaldian

Joan den astean Oñatin egindako lanari esker Jon Agirre oñatiarra elite mailako podiumetik gertuago geratu da, laugarren sailkatuta, baina, bihar Gasteizen jokatu duten azken jardunaldian -10:00etan hasita, Hegoalde rokodromoan- ez du hiru sailkatuen artean egoteko aukerarik izango.

18 urtez azpiko mailan ibarreko eskalataileek asko dute jokoan. Gizonetakoetan, Josu Viego arrasaterra dago lehenengo, eta aukera handiak ditu liga eskuratzeko; anaia, Iñaki Viejo laugarren dago, eta podiumera igo daiteke; emakumezkoetan, berriz, Maialen Martinez gasteiztarra dabil agintzen, baina 10 puntura baino ez dago Miriam Mulas arrasaterra.

asteburuko hitzorduak

FUTBOLA

Bigarren maila
Celta de Vigo-Reala
Zapatua. 18:30. Balaidos.
Cordoba-Eibar
Zapatua. 18:30. El Arcangel.

Preferente maila
Aloña Mendi-Idiazabal
Domeka. 16:00. Azkoagain.
Ordizia-Mondra
Zapatua. 16:00. Altamira.
Aretxabaleta-Ondarroako A.
Domeka. 16:30. Ibarra.

Lehen erregionala
Bergara-Urola
Zapatua. 16:30. Agorrosin.
Oartzun-Antzuola
Zapatua. 16:15. Ugaldetxo.

Bigarren erregion. Igoera
Anaitasuna-Aretxabaleta
Zapatua. 16:30. Txerlola.
Dunboa Eguzki-BTLS
Domeka. 15:30. Irun.
Mondra-Union Txiki
Zapatua. 18:00. Mojategi.

Bigarren erregion. Kopa
Zestoa-Elgeta
Zapatua. 18:15. Iraeta.

Ohorezko mailako gazteak, igoera fasea
Zumaia-Bergara
Zapatua. 16:00. Aita Mari.
Vasconia-Aretxabaleta
Domeka. 17:15. Martutene.

Ohorezko mailako gazteak, kopa eta jaitsiera
Sto. Tomas Liz-Mondra
Domeka. 12:00. Berio.
Aloña Mendi-Martutene
Zapatua. 16:00. Azkoagain.

Lehen mailako gazteak, igoera fasea
Herrerako Sport.-Aretx. Ariz
Zapatua. 17:30. Herrera.

Ohorezko mailako kadeteak, igoera fasea
Añorga-Aloña Mendi
Zapatua. 12:00. Donostia.
Bergara-Hernani
Domeka. 12:00. Ipintza.

Lehen mailako kadeteak, igoera fasea
Arrasate-Beti Gazte
Zapatua. 12:00. Mojategi.
Aretxabaleta B-Billabona
Zapatua. 11:30. Ibarra.

Kadeteak, Kopa
Bergara B-Mutriku
Zapatua. 18:30. Ipintza.
Arizmendi-Ilintxa
Zapatua. 10:00. Almen.

Kadete Txiki. Kopa
Beti Ona-Arrasate
Zapatua. 12:30. Errenteria.

Ohorezko mailako infantilak, txapeldunak
Aretxabaleta-Arizmen-Eibar
Zapatua. 17:00. Ibarra.
Bergara-Reala
Domeka. 10:00. Ipintza.

Ohorezko mailako infantilak, kopa eta jeitsi.
Arrasate-Herrerako Sporting
Domeka. 11:00. Mojategi.
Lehen mailako infantilak

Aloña Mendi-Orioko
Domeka. 11:00. Ibarra.

Infantil txikien kopa
Arrasate-Hernani
Zapatua. 10:00. Mojategi.
Lagun Onak-Aretxaba. Arizm.
Domeka. 10:00. Garmendip.

Emakumezkoen igoera
Añorga-BTLS
Zapatua. 17:00. Rezola.

Emakumezkoen kopa
Mondra-Arizmendi
Zapatua. 16:00. Mojategi.
Mutriku-Bergara
Zapatua. 16:30. San Miguel.
Arizmendi-Zestoa
Zapatua. 15:30. Almen.

Emakumezkoen F8 Kadet.
Bergara KF-8-Euskalduna
Domeka. 17:30. Ipintza.

Emakumezkoen F11 Kadeteak, txapeldunak
Hernani-Arizmendi
Domeka. 10:00. Zubipe.

Emakumezkoen F11 Kadeteak, kopa
Luberri-Aloña Mendi
Zapatua. 10:30. Berio.

ARETO FUTBOLA

Euskadiko Txapelketa
Eskoriatza-Goierri
Zapatua. 18:00. Intxaurtxu.

Lehenengo maila
Aloña Mendi-Pub Sheperd
Zapatua. 17:00. Lasarte.

Hirugarren maila
Xaguaclub.com-UDA Izotz
Zapatua. 16:00. Elgoibar.

SASKIBALOIA

Lehenengo maila
E.Leclerc-MU
Zapatua. 17:30. Gasteiz.

Gipuzkoako seniorrak
Candy Bergara-La Salle
Zapatua. 16:00. Mariaren L.
Aloña Mendi-Kostkas
Zapatua. 11:00. Zubikoa.
Novamark-MU
Zapatua. 16:30. Eibar.

Gipuzkoako ligako senior maila, emakumezkoak
Bera Bera-Eskoriatza
Zapatua. 20:00. Donostia.

Gazte maila, gizonetakoak
MU-Easo A
Domeka. 12:00. Iturripe.
Aloña Mendi-Cafes Aitona B
Zapatua. 12:00. Zubikoa.

Gazte maila, emakumezkoak
Eskoriatza-CD Internacional
Zapatua. 16:00. Intxaurtxu.
Bergara-Carnicas San Marci.
Zapatua. 18:00. Mariaren La.

kadete maila, gizonetakoak
Hernani-MU A
Zapatua. 16:30. Hernani.
Easo Harana-MU B
Zapatua. 12:15. Donostia.

Inurris.com-Aloña Mendi
Zapatua. 16:00. Zarautz.
Oartzun-MU C
Domeka. 10:00. Oartzun.

Gipuzkoako ligako kadete maila, emakumezkoak
Eskoriatza-Krafft
Zapatua. 16:00. Intxaurtxue.
Bera Bera-Mariaren Lagund.
Zapatua. 16:00. Donostia.
Ama Guadal.-Aloña Mendi
Zapatua. 11:00. Hondarribia.
Aldapeta-Arizmendi Esko.
Zapatua. 12:30. Donostia.

Gipuzkoako ligako infantilak, gizonetakoak
BKL-Arizmendi Ikastola
Zapatua. 09:00. Beasain.
Aloña Mendi-Zubiri
Zapatua. 11:00. Zubikoa.
Arrasate Inst.-Urumea
Zapatua. 10:30. Musakola.
Bergara-Easo Amara
Zapatua. 10:30. Mariaren L.

Gipuzkoako ligako infantilak, emakumezkoak
Leintz Eskola K. A-Bera Bera
Zapatua. 10:30. Musakola.
Mariaren Lag.-LEK E
Zapatua. 11:00. Mariaren L.
Iragaz-LEK B
Zapatua. 09:30. Azpeitia L.
LEK D-BKL D
Zapatua. 12:00. Musakola.
Litaphar-Ointxe Arrasate
Domeka. 10:00. Azpeitia.

ESKUBALOIA

Euskadiko Txap. Gizonet.
Bergara-Portugalete
Domeka. 12:15. Labegaralet.
Askartza-Ford Mugarri Arra.
Zapatua. 16:00. Leioa.

Euskadiko Txap. Emak.
Verkol Aloña-Petronor
Zapatua. 11:45. Zubikoa.

Euskadiko Gazte Txapelketa, emakumezkoak.
Usurbil-Verkol Aloña Mendi
Domeka. 11:30. Oiardo.

Gipuzkoako Kopa, senior
Verkol Aloña-Irongo Gaztiak
Domeka. 11:45. Zubikoa.

Gipuzkoako kadeteak, giz.
Jauja Akilape-Bergara
Zapatua. 18:30. Mutriku.
Berezo Aloña-Hondarribia
Domeka. 10:30. Zubikoa.

Gip. Kopa, gazteak gizona.
Arrasate-Arrate
Zapatua. 17:00. Iturripe.
Urola-Aloña Mendi
Zapatua. 16:15. Zumarraga.

Gipuzkoako Kopa, gazteak emakumezkoak
Cometel-Verkol Aloña
Domeka. 11:00. Elgoibar.

Gipuzkoako Kopa, kadeteak emakumezkoak.
Elgoibar-Verkol Aloña Mendi
Domeka. 09:30. Elgoibar.
Leizaran-Bergara
Zapatua. 11:30. Andoain.

Bigarren maila territoriala
Bergara-Aloña Mendi
Domeka. 12:15. Labegaralet.

Gipuzkoako Kopa, senior
Verkol Aloña-Irongo Gaztiak
Domeka. 11:45. Zubikoa.



Bergarako kadeteek Mutriku jokatu dute bihar

Joan den astean Urnietari 45-27 irabazita, Bergarako eskubaloiko mutilek Jauja Akilape taldea izango dute bihar kontrario (18:30).

G2a

Goienka2a > KULTURA ETA AISIALDIA



> **RUPER ORDORIKA**
Oñatiko abeslariak disko berriaz hitz egin digu > 45



> **KOMUNIKAZIOA**
Arrasateko Garai anai-arrebek saria jaso dute Ipargama enpresagatik > 51

> **GORKA GALDOS**
Gorka Galdos oñatiarra Goi-ingeniaritzako ikasketak bukatzera joan zen Suitzara eta hantxe bizi da 2002 urtetik. Egun anaiarekin batera bizi da bertan > 50



EZ DOK-BADOK AMAIRU

JARDUNALDIAK
Apirilaren 17tik 25era,
Oñatin

KULTURA > JARDUNALDIK

'Ez dok amairu' mugimendua gertutik bizitzeko beste aukera bat Oñatin

Lertxundi, Ospital, Basterretxea, Carrere eta Iriondo datoz, besteak beste

Mugimendua noiz eta nola sortu zen eta utzi duen arrastoaz mintzatuko dira

OIHANA ELORTZA > OÑATI

Ez dok amairu mugimendua eka-
rriko dute gogora Oñatin dato-
rren astetik aurrera. Elkar Hezi
ikastetxeko ikasleak aritu dira
mugimendu horren nondik nora-
koak, izan zuen garrantzia eta
bereizi osteko egitasmoak azter-
tzen, eta orduko protagonisteta-
ko batzuk gonbidatu dituzte feno-
meno horri buruz zuzenean eure-
kin hitz egiteko. Etorriko diren
artean daude, adibidez, Benito
Lertxundi, Pantxoa Carrere, Peio
Ospital, Joxe Mari Iriondo eta
Nestor Basterretxea.

OÑATIAR BAT LEHEN BILERAN

Joxe Mari Iriondo bera egon zen,
hain zuzen ere, jardunaldien aur-
kezpeneko prentsaurrekoan,
Elkar Heziko ikasle, irakasle eta
gurasoen ondoan. Gertu gertutik
bizi izan du Iriondok *Ez dok amai-
ru* mugimendua. "1966tik 1972ra
iraun zuen mugimendu horrek.
Lourdes Iriondo, Joseanton Artze
eta hirurok elkartu ginen behin.
Erabaki genuen bilera ireki bat
egitea. Donostian egin genuen,
eta Jose Antonio Billar oñatiarra
da etorri zirenetako bat", konta-
tzen du Iriondok.

Baina *Ez dok amairu* mugimendua
kontrako iritziak ere
sortu zituen. "Orduan Franco
eta frankistak ziren okerrenak
euskaldunendako, baina purita-
nismo handia ere bazegoen.
Batzuk, adibidez, gaizki ikusi
zuten Benito Lertxundi, Xabier



ZAZPIRI BAI Lertxundi, Lete, Iriondo, Carrere eta beste abeslari batzuk Zazpiri Bai taldean.

GOIENKARIA

Lete edo Lourdes Iriondo gitarra
jotzen, gitarra espainola jotzen,
alegia", dio Iriondok.

TEJERO ARRASATEKO GUREAN

Joxe Mari Iriondo kazetariak
kantaldi bat baino gehiago anto-
latu zituen sasoi hartan. Beti ez
zen erraza izaten. "Ekitaldia anto-
latu aurretik baimena eskatu
behar zen Donostiako Andia kale-
ko eraikin baten. Ekitaldian par-
te hartuko zuten abeslarien ize-
nak, datuak, kanten izenburuak
eta kanten letren itzulpena era-
kutsi behar zitzaion eserita ego-
tzen zen emakume bati. Hark, nor-
malean, ezezkoa ematen zuen:
no cantable, no radiable edo *no
emitible* esaten zuen zigilu bat jar-
tzen zion eskaerari. Egun baten,
Nekane Oiarbidek, *Ez dok Amai-
ru*-ko idazkariak, txokolateak

IRUDIA

Mendibururen txalaparta berezia

Izena bakarrik ez, irudia ere badu
Ez dok amairu mugimendua.
Remigio Mendiburu eskulturgileak
egindako txalaparta berezia da
ikurra. Joxe Mari Iriondoren
esanetan, garai hartan irudiari ez
zioten gaur ematen zaion besteko
garrantziarik ematen eta agian
horregatik, oraindik ere izena
baino ezezagunagoa da askoren-
dako ikurra. Argazkiak ere gutxi
ateratzen ei zituzten; Lourdes
Iriondok gordetzen zituen guztiak.



eramateko esan zidan. Eta fun-
tzionatu zuen: txokolateak era-
manda askoz baimen gehiago lor-
tu nituen".

Bergarako Irala zinema are-
toan Pantxoa eta Peioren hego-
aldeko lehen kontzertua antola-
tu zuen Iriondok 1971n. Hiru urte
geroago, 1974an, Arrasateko
Gurea zinemara ekarri zituen.
"Kantaldia hastear zegoela, Anto-
nio Tejero Molina sartu zen
barrura, kapitainaren maila zuen
orduan Tejerok Arrasaten. Esan
zigun bost minutu genituela are-
toa husteko. Eta horrela, denak
kanpora atera ginen, ekitaldia
bertan behera geldituz", gogora-
tzen da Iriondo.

Ekitaldien bukaeran peliku-
la bat ere botatzen zuten: "Nes-
tor Basterretxeak eta Fernando
Larruquet zuzendariak elkarre-

Egitaraua

Apirilak 17, eguena

19:00etan Santa Anan, hitzaldia:
*Zazpiri bai. Izan zenaren
arrastotik.* Hizlariak: Manex
Pagola, Pantxoa Carrere eta
Peio Ospital. Abeslariak kanta
batzuk ere eskainiko dituzte.

Apirilak 18, egubakoitza

19:00etan Santa Anan, hitzaldia:
*Euskal kantagintzaren eta
olerkigintzaren bide uherretik
haratago, esperantzarik ote?*
Hizlariak: Benito Lertxundi, Jose
Luis Treku eta Pako Aristi.
Oskarbi taldeko gainerako
kideak ere egongo dira eta
kanta batzuk abestuko dituzte.

Apirilak 24, eguena

20:00etan, zinema aretoan,
zinekluba: *Ama Lur.* Nestor
Basterretxea, filmaren
zuzendarietako bat, etorriko da.

Apirilak 25, egubakoitza

19:00etan, Santa Anan,
hitzaldia: *Ez dok amairu sortuz
eta haziz, nola joan zen? Nor
bere talaiatik.* Hizlariak: Joxe
Mari Iriondo eta Pello Zabala.

kin egindako hiru pelikula haue-
tako bat ematen genuen beti:
Ama lur, Pelotari edo *Alquezar*".
Horrelako kontu eta xehetasun
gehiago esango ditu Iriondok
Pello Zabalarekin batera eman-
go duen hitzaldian.

NESTOR BASTERRETXEA OÑATIN

Nestor Basterretxea da Elkar
Hezik jardunaldietarako gonbi-
datu dituenetako bat. Apirilaren
24an, *Ama lur* filma botako dute
zineklubean eta Basterretxea
bera egongo da emanaldi osteko
tertulian. Benito Lertxundi,
Jose Luis Trekuk eta Pako Aris-
tik, adibidez, *Ez dok amairu* mugimendua
zertan gelditu zen izan-
go dute berbagai; Pantxoa Carre-
rek, Peio Ospitalek eta Manex
Pagolak *Zazpiri Bai* taldeaz hitz
egingo dute.




Lourdes Iriondo.

GOIENKARIA



GAZTEAGOAK Mikel Laboa eta Benito Lertxundi.

GOIENKARIA



Mikel Laboa.

GOIENKARIA

Ruper Ordorika geldiezia da. 2006an Mugalarisekin Bilboko Kafe Antzokian egindako kontzertua grabatu, eta segidan *Memoriaren mapan* bakarkako diskoa kaleratu zuen. Disko horrekin aritu ostean, zuzeneko horren emaitza den *Hamar t'erdietan* kaleratu du Elkarla-
neanekin. Orain, berriz, talde berriarekin kontzertuak ematen dabil hara eta hona.

Ruper Ordorika > Musikaria

"Bestelako giro eta sonoritatea lortu, eta aurrerapauso handia eman dugu"

IKER BARANDIARAN > ARRASATE

Ruper Ordorikak beste ziklo bati eman dio amaiera. Mugalaris taldearekin 2006an Bilbon grabatutako *Hamar t'erdietan* lana argitaratu eman du: 14 kantuz osatutako CDa eta 6 abestitako DVDa. Oso gustura dago emaitzarekin.

Zuzeneko hau sei urtetan alban izan dituzun Mugalariei merezitako agurra da?

Nahiz eta nire izena erabiltzen nuen, hasieratik beretik musikariekin ibili nintzen. Musikari aldakorrek izan arren, izen bat jartzea pentsatu nuen: Mugalaris. Zuzeneko honetan esku hartu duten musikarietako bi, baxua eta bateria, hirugarren diskoan hasi ziren; gero desagertu ziren, bueltan etorri...

Ez da agur bat zentzu horretan, baina oso nekeza izaten da sei urte elkarrekin egotea gure eginkizun honetan. Pentsatu genuen egokia zela zuzeneko bat egitea, ibiltzearen ondorioz musika eta kantuak askoz gehiago mamitzen direlako.

Zuzenekoa 2006an grabatu zenuten. Ardo ona moduan ontzen utzi duzu?

(Barre) Denetatik apur bat. Kontzertu hori grabatu eta aste-betera *Memoriaren mapan* diskoa kaleratu eta hori zuzenean aurkezten hasi nintzen. Bilboko zuzenekoaren zintak entzuten hasi nintzen, baina zorionez, *Memoriaren mapan*-ek oso harrera ona izan zuen. Hortaz, ez zen proposa disko batek bestea zapaltzea. Horren ostean, 2007aren bukarean, lana eskuarte hartu nuen.

Bilboko Kafe Antzokia aukeratu duzu berriro. Egokien prestatuta dagoen aretoa da edo leku kuttunena zuretzat?

Biak. Aukera onena zen, nahiz eta batek baino gehiagok galdetu zidan ea zergatik egin nuen berriro han. Beti izan da gure babeslekua eta segurtasun handia ematen du. Gainera, eurak oso pozik zeuden, eta niretzat leku kuttuna da, jakina.

Lan handia eman du Euskal Herrian areto eskaintza egokia egoteak?

Bai, hori da euskal musikan izan den aurrerapauso handiena. Gaur egun herri askotan daude areto duinak, nahiz eta ikusle falta izaten den batzutan. Lehen ez zegoen halakorik, eta hori asko eskertzeko daukagu musikariok.



Ruper Ordorika Arantzazun. Oñatiko eta inguruko erreferentziak oso presente daude bere kantutegian.

IKER BARANDIARAN

Jarraitzaile asko dituzu eta asko amorratuak, disko guztiak dituztenak. Zer aurkituko dute hemen?

Disko desberdin bat. Zuzenean grabatuta dago, baina oso desberdina da. Bestelako sonoritateak landu ditugu, eta hori aurrerapauso handia da.

Abesti asko eraldatuta daude. Zelan hartuko dute?

Badakit batzuek entzun gura dutela kantua mila aldiz entzun duten moduan. Baina nik entzule moduan asko eskertzen ditut eraldaketak, bertsioak... eta musikariak egin gura duena egiten sinistuta egon behar du. Baina, apur bat entzunda, sartuko zaie.

Zaila izan da kantuen aukeraketa egitea?

Agian zailena izan da. Badira kantu batzuk, adibidez, *Herdoilarena* edota *Zenbait bertso xelebre* lehenengo bi diskotako-

ARETOAK

"Euskal Herrian areto eskaintza duina egotea da musikariondako aurrerapauso handiena"

KANTUAK

"Batzuek gura dute kantuak ez aldatzea, baina denborarekin mamitzen joaten dira"

AZALA

"Kafe Antzokiak iragarki bat izango balu, hori sartuko genuke. Hori zen eta, berez, ideia"

ak direnak eta aspaldian jotzen ditugunak, baina ez modu horretan. Geneuzkan kantu guztiak disko bikoitza egin genezakeen, baina irudiak ere genituenez, ideia hori baztertu egin genuen. Azkenean 14 abesti sartu ditugu, ordubetetik gora, oso mamitsua. Gutxi gorabehera azken sei urtetan Mugalarisekin zuzenean jo dugun kantutegia da.

Abestiak kentzeko orduan, taldekideei banan-banan galde-tu nien zein kantu kendu, eta horiek kendu ditugu. Halakoetarako ez dago araurik.

**Ustekabea hartu dut, diskoan kantuen zure ohiko azalpenak sartu ez dituzulako. Zuzeneko-
etara joaten direnendako opariak dira?**

Erabaki zaila izan zen azalpenak sartu edo ez. Baina gehienetan azalpen luzeak ematen ditut eta hori editatzeko zailagoa da. Azkenean pentsatu nuen azal-

pen horiek diskoan behin eta berriro entzuteko nekezak ez ote diren egiten, eta kendu egin nituen.

Zelan gogoratzen duzu Bilboko kontzertua?

Aurreko esperientziak, *Gaur* diskokoak, asko balio izan zidan. Orduan hiru kontzertu izan ziren eta birrinduta bukatu genuen. Oraingoan bitan egin dugu, ezta-rria ez erretzearen. Gogoan daukat intentsitate izugarria, izerdia, sarrera oso luzeak egin genituela *tempo*-an ondo sartzeko... Giro berezia lortzea eta taldeak bat egitea ezinbestekoa da. *Gaur*-en sekzio erritmiko oso sendoa izan nuen, baina oraingoak beste ezau-garri batzuk ditu, eta horrekin jokatu dugu, bestelako giroak sortuz. Eta emaitza aurrerapauso handia dela uste dut.

Zur eta lur gelditu gara *La Cucaracha*-ren moldaketarekin...

(Barre) Askotan entsegu lokalean txantxatan ibiltzen gara, eta blues bat, Creedence-ren kantu bat jotzen hasten gara... Hitzak bezperan prestatu eta taldekideei desafioa bota nien. Gainera, Kafe Antzokian, badakizu, nire kontzertuek ez dute akaberarik. Ia hiru ordu jotzen, birrinduta, eta bukatzeko *Labexomorro*. Jendeak oso ondo hartu zuen, eta *bonus-track* moduan sartu genuen. Gainera, une horretan, kontzertuaren bukaeran, oso erlaxatuta geunden eta *tempo* oso ona dauka, igartzen da.

Azalak irudikatuko luke Times Square gure eskura dagoela...

(Barre) Kafe Antzokiak iragarki bat izango balu, hori sartuko nuke, baina ez dauka. Probak egin genituen, baina ez zuten balio. Badira hainbat zuzeneko disko klasiko azalean aretoaren sarrera daramatenak. Halako ideia bat geneukan. Horrez gain, izenak badu txantxa txiki bat ere: *Hamar t'erdietan*. Kafe Antzokian kontzertuak hamarretan iragartzen dituzte, baina ez dira inoiz ordu horretan hasten, Euskal Herrian ez dira hamarrak existitzen. Ordu horretan jendea rosliarekin edo dena delakoarekin egoten da beste nonbaiten... Bestalde, Weather Report taldeak badu disko bat *8:30* izena duena. Horrek ere badu zerikusia ideia honetan. Azken finean, azala fikzio bat da.

IMMOBILIARIA
IBARGARAI 3 • BERGARA
Tel.: Faxa: 943 76 97 97
www.inmokerosti.com

ETXEBIZITZAK SALGAI

Bergara:

- Zabalotegi 80 m². Eguzkitsua.
- Simon Arrieta 80 m². Eguzkitsua.
- Zubieta 65 m². Ondo.
- Aranerrek 75 m². Eguzkitsua.
- Elusu baseria. Berritua.
- Bidekuruzeta 60 m². Berritua.
- Ibargarai 74 m². Ondo.
- San Juan. Bifamiliarra.
- Zubiurre 67 m². Berritua.
- Matiategi 61 m². Prezio ona.
- Zabalotegi 60 m². Berritua.
- Barrenkaje 82 m². Berritua.
- Zubieta 75 m². Txokoarekin.
- Simon Arrieta 80m². Prezio ona.

Antzuola:

- Buztinziuri 76 m². Prezio ona.
- Aiherra 123 m². Duplexa.
- Antigua 80 m². Eguzkitsua.
- Zurritegi plaza 90 m². Terraza.

Eskoriatza:

- Baserria. Berritua.

DEBA GARAIA
INMOBILIARIA
Teleforno Aranzadi 2
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

BERGARA

- San Lorentzo, eraikuntza berria
- Martoko, 87 m², ondo, garajearekin
- San Pedro, 88 m², ondo
- Ibargarai, 80 m², oso ondo
- Artekale, 70 m², oso ondo
- Koldo Elizalde, 87 m², oso ondo
- Antekale, 89 m², ondo
- Zubieta 70 m², ondo
- Urdangain p., 132 m², berritzeko
- Irizar p., 89 m², oso ondo
- Matiategi, 73m², berritzeko
- Bidekuruzeta, duplexa, berritua
- Aranerrek, 80m², oso ondo
- Etxebizitza berien eraikuntza Madura, Masterrek eta Zubiarekin.
- Zurradero, 81m², oso ondo

SORALUZE

- Balategia, 83m², berria

ANTZUOLA

- Duplex berria, erdialdean.
- Eguzki auzoa, 85 m², erdi berritua.

ELGETA

- San Roke, 75 m², ia berria.

IRAGARKI SAILKATUAK

Eguazten eguerdira arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

943 25 05 05

sailkatuak@goiena.com edo www.goiena.net-en

PARTIKULARREN IRAGARKIAK ORDAINUTAKO ATALAK:

- ETXEBIZITZA SALDU/ALOKATU.
- LOKALA SALDU/ALOKATU.
- GARAJEA SALDU/ALOKATU.
- MOTORRA SALDU.

GOIENKARIA-N EDO ASTELEHENKO GOIENKARIA-N 17 € (BEZ BARNE).
GOIENKARIA-N + ASTELEHENKO GOIENKARIA-N 25 € (BEZ BARNE).

PROFESIONALEN IRAGARKIAK (MODULO)

MODULO 1: GOIENKARIA-N EDO ASTELEHENKO GOIENKARIA-N 22 € (BEZ BARNE).
GOIENKARIA-N + ASTELEHENKO GOIENKARIA-N 30 € (BEZ BARNE).
OHARRA: BI MODULO BAINO GEHIAGO JARTZEKO DEITU 943 25 05 05 TELEFONORA.

Iragarki partikular zein profesionaletan astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.

GOIENKARIAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

1/ ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Antzuola. 90 m² duplexa salgai Zurrategi plazan. Bi logela eta bi komun. Eguzkitsua. Sarrera bi solairuetatik. Aire girotua dauka. Garaje itxia. Prezioa ados daiteke. 943 76 65 03 edo 656 73 25 99.

Antzuola. Errekalden etxebizitza salgai. Hiru logela, bi bainugela, sukalde handia, egongela eta etxe azpian bi kotxerendako moduko garajea aukeran. Dena 216.365 euro. 616 84 85 16.

Antzuola. Etxea salgai Sagasti auzoan. 90 m². Hiru logela, bi bainugela, sukalde, egongela, bi balkoi eta despentsa. Gara-jearekin. 687 11 07 21 edo 943 78 71 35.

Aretxabaleta. Beroan 53 m² apartamentua salgai. 3 urte. Sukalde, bi logela eta balkoia. Eguzkitsua eta igogailua dauka. 26 metro koadroko garaje itxia aukeran. 616 35 58 20.

Aretxabaleta. Ganbara itxurako 72 m² etxebizitza salgai erdialdean. 16 metro koadroko gara-jearekin. Prezio interesgarria. Presazkoa da saltzea. 659 64 67 38.

Arrasate. 60m². Grupo San Juanen. Bi logela, egongela, sukalde eta komun. Sotoa, ganbara, igogailua eta berogailua dauka. Berritua, jantzitza eta bizitzera sarzteko moduan. 600 90 76 73 edo 635 71 93 00.

LAN ESKAINTZAK

Txatxilipurdi elkartearen bi pertsona behar dira:

KULTURA ZERBITZUETAKO ARDURADUN lanpostua betetzeko.

Lanaldi osoko kontratuarekin.

Gutxieneko eskakizunak:

- Gizarte zientzietan diplomaduna.
- Euskara maila handia.
- Gidabaimena eta autoa

Kontuan izango da:

- Harremanetarako eta komunikaziorako gaitasuna.
- Aisialdiaren eta euskalgintzaren ezagutza.

ADMINISTRARI lanpostua betetzeko.

Egun erdiko kontratuarekin.

Gutxieneko eskakizunak:

- Administrari ikasketak.
- Euskara maila handia.

Kontuan izango da:

- Elkarte / enpresen admistrazioan esperientzia izatea
- Euskalgintzaren ezagutza izatea.

Arrasate edo ingurukoa izatea lehenetsiko da.

Interesa edukiz gero bidali curriculuma:

idazkaritza@txatxilipurdi.com

Txatxilipurdi elkarte

Pablo Uranga 6, beheka 20500 Arrasate
Tel.: 943 79 54 46



Arrasate. Maalako Errabala kalean 72 m²ko etxea. 628 35 21 61.

Arrasate. Zigarrolan, 66 m² etxebizitza salgai. Hiru logela, egongela, sukalde, komun, ganbara, kafeakzioa. Argitsua eta egoera onean. 180.000 euro. 685 72 83 24.

Bergara. 75 m²ko etxebizitza salgai. 216.000 euro. Hiru logela, egongela, arropa eskegitzeko lekua. Bi aparkaleku. Ganbara, terrazarekin. 943 76 07 50.

Bergara. Aranerrekan etxebizitza salgai. 75 m², guztiz jantzia. Hiru logela, egongela, bi bainugela, sukalde, terraza, ganbara eta berokuntza zentrala. 665 71 48 30.

Bergara. Duplexa salgai Ibargarai kalean. Lau logela, hiru komun, egongela eta sukalde. Guztiz jantzitza. 685 75 62 51.

Bergara. Erdialdean 80 m². Bi logela, komun bat, egongela eta balkoi handia. Dena kanpoaldean. Berogailua eta igogailuarekin. Saltzeko premia dago. 255.500 euro. 652 76 86 68.

Bergara. Erdialdean etxebizitza salgai. Hegoaldera begira. Hiru logela eta bi bainugela. Hirugarren solairua, igogailuarekin. Garajea aukeran. 15 urte. 339.500 euro. 630 60 47 75.

Bergara. Zabalotegin etxea salgai. Hiru logela, egongela, sukalde eta bainugela. 653 70 84 04.

Eskoriatza. 73 m². Hiru logela, egongela, sukalde, komun eta balkoia. Guztiz berritua eta eguzkitsua. Prezio interesgarria. 615 70 99 18.

OÑATI

Nicolas eta Igone ile apaindegiak esperientziadun ile apaintzailea behar du
943 78 06 78
943 08 18 66

ARRASATE

Sukaldaria behar da arratsaldetan.
Eskola egutegia.
Lehenbailehen hasteko
607 63 37 79

DEBAGOIENA

Autokarabana berria errentan ematen da.
943 71 25 30

OÑATI

Laster zabalduko den Orange dendarako komertziala behar da.
615 05 03 34

Legazpi. 59 metro koadroko etxebizitza salgai. 35 metro koadroko terrazarekin. Sukalde-egongela, bi logela, bi komun eta hari musikala. 660 84 51 78.

Oñati. 63 metroko apartamentua salgai. Arantzazuko Ama kalean. Etxabea (baxua). Sukalde-egongela, bi logela eta komun. Sukalde guztiz jantzitza, kafeakzioa, alarma... Dena berria, estreinatzeko. 669 7318 23 edo 657 77 91 74.

Oñati. Duplexa salgai erdialdean. 105 m². Lau logela, bi komun saloia eta sukalde. 635 71 41 39.

Zigarrola. 70 metro koadro. Sotoa, ganbara eta atariko ganbara. Hiru logela, bainugela, sukalde egokitua eta berogailua. Bi balkoi. Eguzkitsua. Ganbara eta etxea bat egiteko aukerarekin. Eunate. 626 71 98 16.

103. ERRENTAN EMAN

Arrasate. Bizkaia etorbidean etxebizitza errentan. Hiru logela eta bi komun. Ikasleentzat bakarrik. 699 97 84 23 edo 629 72 47 42.

Arrasate. Erdialdean, 4-5 pertsonarentzako. Gas naturala eta gela indibidualak ikasleentzako egokituta. 200 euro pertsonako. 630 71 35 83.

Arrasate. Etxebizitza ematen da errentan. Unibertsitatetik gertu. Bost pertsonarentzako. Gela bakoitza ikasleentzako egokituta dago. Gas naturala. 630 71 35 83.

Arrasate. Iturriotz kalean etxebizitza alokagai. 685 72 78 12.

Arrasate. Pertsona batendako moduko logela ematen da errentan, sukalde erabiltzeko aukerarekin. 666 21 88 95.

Benidorm. Apartamentua errentan ematen da Benidormen (Alacant) uztailetik aurrera. 678 36 19 01.

Bergara. Bi pertsonarentzako logela errentan, sukalde erabiltzeko aukerarekin. 649 63 23 24.

Conil Conilen apartamentua alokagai. 615 75 11 47.

Hondarribia. Abuztuan etxea errentan ematen dut. Interesatuak deitu zenbaki honetara: 625 13 96 58.

Marina d'Or. Apartamentua alokagai, Bergarako jaietan edota hamabostaldika. Bi logela, bi komun, egongela eta sukalde. Guztiz jantzitza. 685 75 62 51.

Peñiscola (Castello). Bi logelako apartamentua errentan. Hondartzatik 50 metroa. Igerilekua eta aparkalekua ditu. 656 71 59 30.

Peñiscola (Castello). Maiatzetik irailera bitartean. Hondartzatik 100 metroa. Aparkaleku eta igerilekuarekin. 943 79 48 82 edo 605 75 61 69.

Peñiscola. Bi logelako apartamentua errentan. Peñismar urbanizazioan, hondartzatik 100 metroa eta txiristadun igerilekuarekin. 948 41 00 79 edo 616 95 04 00.

Salou. Apartamentua uztaile abuzturako. Leku onean. 943 79 45 19 edo 627 34 31 78.

Torremolinos. Apartamentua errentan. Bi logela, sukalde jantzia eta aire girotuarekin. Hondartzatik bost minutura. Abuztuan izan ezik, asteka, hamabostaldika edo hilabetea aloka daiteke. 616 14 72 67.

104. ERRENTAN HARTU

Bergara. Bi logelako etxebizitza hartuko nuke errentan. 20:00etatik aurrera deitu, mesedez. 686 37 76 79.

Bergara. Etxea errentan hartuko nuke. 652 70 39 95.

Bergara. Etxebizitza behar dut errentan. 686 99 59 41.

Bergara. Familia batek etxebizitza hartuko luke errentan Bergaran. 650 62 12 94 edo 685 70 76 25.

Oñati. Etxebizitza txikia hartuko nuke errentan. Oñatin lanean dabilen neska bat naiz. 655 72 27 61.

105. ETXEAK OSATU

Aretxabaleta. Lanean hasi berri naiz eta bertan edo inguruan logela alokatu nahi nuke. Hasiara baten, urtebeterako. 653 74 28 83.

Gasteiz. Neska bat behar dugu Gorbea kalean etxea osatzeko, maiatzetik aurrera. 300 euro gehi gastuak. 652 72 18 87.

DEBAGOIENA

Autokarabana berria errentan ematen da.
943 71 25 30

2/ GARAJEAK

201. SALDU

Aramai. Garaiea salgai mediku kontsultako etxeetan. 656 70 35 57.

Aretxabaleta. Garaiea salgai Loramendi kalean, 10.000 euroan. 656 77 64 64.

Bergara. Garaie irekia salgai Masterrekan. 651 70 90 12.

Bergara. Marraz berezitateko garaiea salgai Ozaeta kalean. 636 14 26 00.

203. ERRENTAN EMAN

Arrasate. Garaie itxia errentan Larrea aldean. Bi autorentzako modukoa. Deitu 21:00etatik 22:00etara. 650 40 12 78.

Arrasate. Garaie itxia errentan Uribarri auzoan. 943 79 39 56 edo 669 07 14 17.

Bergara. Garaie itxia ematen da errentan Espolitoa kalean. 692 71 23 11.

Bergara. Garaiea emango nuke errentan ibargarai kalean. 627 90 74 48.

Bergara. Garaiea errentan ematen dut Boni Laskurain kalean. 943 76 57 04.

3/ LOKALAK

301. SALDU

Arrasate. Lokala salgai Anboto kalean. 61 metro koadro. 945 44 50 15 edo 656 73 34 84.

Arrasate. Maalako Errabala kalean 30 metro koadroko lokal komertziala salgai. 628 35 21 61.

303. ERRENTAN EMAN

Bergara. 80 metro koadro inguruko txokoa alokatzen da. 450 euro. 645 00 80 55.

DEBAGOIENA

Autokarabana berria errentan ematen da.
943 71 25 30

4/ LANA

402. ESKAERAK

Aretxabaleta edo Arrasaten garbiketara lan egiteko nitzuzke. 646 50 83 59.

Aretxabaleta. Emakumea gertu adinekoak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Esperientziaduna. Mari. 943 53 33 92.

Arrasate. Emakume euskalduna gertu edozein lan egiteko. 659 82 75 18.

Arrasate. Emakume gaztea gertu umeak zaintzeko. Esperientziaduna. 667 87 99 16.

Arrasate. Neska euskalduna gertu atariko eta etxeko garbitzeko. Esperientziaduna. 663 04 53 99.

Bergara edo Arrasate. Emakumea gertu pertsona nagusiak egunez edo gauzez zaintzeko eta baita garbitasun lanak egiteko ere. Paperak dauzkat. 686 99 59 41.

Bergara. Emakume bat gertu garbiketara lanak egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. 606 64 16 09.

Bergara. Emakumea 12:00etatik 19:00etara pertsona nagusiak zein haurrak zaintzeko prest. 649 70 51 74.

Bergara. Emakumea garbiketara lanak zein haur edo pertsona nagusiak zaintzeko prest. 627 03 16 40.

Bergara. Paperak dituen emakumea haur zein nagusiak zaintzeko prest, baita garbiketara lanak egiteko ere. 686 99 59 41.

Debagoiena. Adinekoak zaintzeko emakumea gertu. Orduka, egun osoz edo gauzez. 678 80 96 01.

Debagoiena. Arratsalde edo asteburuetan pertsona nagusiak zaindu edo tabernetan lan egiteko gertu nago. 666 21 88 95.

Debagoiena. Ekuadorreko emakume arduratsua etxeko lanak egiteko gertu. Paperak ditut. 688 08 06 96.

Debagoiena. Garbiketara lanak egin edo pertsona nagusiak zainduko nitzuzke. 661 06 07 23.

Debagoiena. Geriatria laguntzaile titulua duen neska gertu nagusiak edo umeak zaintzeko, eta garbitasun lanak egiteko. Nagore. 615 76 30 62.

Debagoiena. Haur Hezkuntza ikasten ari den neska eskaintzen da arratsaldez haurrak zaintzeko. 15:00etatik aurrera lan egiteko prest. Interesatuok Leire-gatik galdetu. 699 74 98 13.

Debagoiena. Lan egiteko gogo handia duen mutila edozein lan egiteko gertu. Arkaitz. 622 81 53 31.

Debagoiena. Lan egiteko gogo handia duen mutila edozein lanerarako prest. Aaron. 622 84 08 86.

Debagoiena. Lantegian edota makinak garbitzen lan egiteko nuke. Baita sukaldari lanetan ere. Esperientziaduna. 656 66 49 75.

Debagoiena. Mutil arduratsua atarietako garbitasun lanak egiteko gertu. Lan txukuna eta profesionala bermatzen du. 696 38 10 07 edo 649 63 23 24.

Debagoiena. Neska gertu haurrak zaindu edo tabernan lan egiteko.

Esperientzia eta lan egiteko gogo haundiarekin. Magisteritza ikasten ari naiz. 669 61 97 71.

5/ IRAKASKUNTZA

501. JASO

Arrasate. Batxilergoko matematikako eskola partikularrik hartu gura ditut. 645 72 25 24.

Ingelesko eskola partikularrik hartuko nitzuzke Bergaran. 600 08 27 89.

502. EMAN

Arrasate. Goi mailako ingeniari industrialak eskola partikularrik ematen ditu Arrasaten. Maila guztiak:

unibertsitatea, zikloak, batxilergoa eta DBH. Matematika, fisika, marrazketa, teknologia, kimika, elektritzitatea... Arreta pertsonalizatua. 630 71 35 83.

Debagoiena. Mutila matematika eskolak emateko gertu. Maila guztiak. Lehen Hezkuntzatik hasi eta unibertsitateaino. Baita ere urritasunak dituzten ikasleei. 696 38 10 07.

6/ MOTORRA

601. SALDU

Audi a4 salgai Audi A4 tdi, 130ZP. Beltza. 180.000 km. Egoera onean. 2002koa. 12.000 euro. Oskar. 669 19 61 06.

Honda XR400 motorra salgai, 1996koa, motorra egina, mantentze lan gutxi eskatzen duen motor fidagarria, eta beste XR400 bat (gripatal) opari piezatarako. Matrikulatua, eta IAT eta aseguru egunean ditu. 677 98 42 94.

Karabana. salgai. Knaus markakoa. 2005eko. Hiru giro ezberdinetan banatua. sukalde, logela eta egongela. Estra guztiak. 620 39 69 47.

Mercedes Vito 110 CDI salgai. 2001koa. 158.000 km. Toldoa, mahala, ohea, hozkailua eta bizikletak eramateko dauzka. 12.500 euro. 626 89 15 94.

Opel Vectra GT autoa salgai. 130 ZP. 800

hildakoak

- **Juan Saiz Gartzia.** Arrasaten, apirilaren 1ean. 86 urte.
- **Felisa Bolinaga Belar.** Arrasaten, apirilaren 1ean. 92 urte.
- **Tomas Ugarte Lizarralde.** Oñatin, apirilaren 2an. 83 urte.
- **Josefa Lobato Madrigal.** Eskoriatzan, apirilaren 2an. 93 urte.
- **Elisa Hermida Nogueira.** Arrasaten, apirilaren 3an. 73 urte.
- **Luisa Errasti Jauregi.** Aretxabaletan, apirilaren 3an. 81 urte.
- **Rosa Mansilla Prada.** Bergaran, apirilaren 5ean. 85 urte.
- **Jose Luis Etxeberria Arriolabengoa.** Aretxabaletan, hilaren 5ean. 78 urte.
- **Cecilia Salvatierra Erro.** Oñatin, apirilaren 7an. 86 urte.
- **Matias Agirre Eskisabel.** Antzuolan, apirilaren 9an. 81 urte.
- **Florencia Zabala Errasti.** Aramaion, apirilaren 9an. 88 urte.
- **Maria Pilar Collantes Portillo.** Arrasaten, apirilaren 9an. 59 urte.



Antzuolako **Julian Gezalaga** eta **Mari Carmen Aranguren** apirilaren 6an ezkondu ziren orain dela 34 urte. Zuen ezkon urteurrenean zorionak bihotzez. Ibonen, Aitziberren, Iñakiren, Julenen eta Bihotzaren partetik.



Arrasateko **German Estevez** eta **Mari Nieves Valladolid** bihar, apirilak 12, Arrasateko udaletxean ezkonduko dira. Bazkaria, Ezkoriaztako Mendigoia jatetxean egingo dute eta bidaiari Mexikora joango dira. Familiako eta lagunaren partetik, ondo pasa, bikote.

1. URTEURRENA

Jose Gantxegi Telleria

Adoracion Gallastegiren alarguna

Lehen urteurreneko meza domekan,
apirilak 15, 15:00ean
Bergarako Santa Marina elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldeztatik eskerrik asko sendikoen izenean.

1. URTEURRENA

Klementa Arregi Lamariano

Lehen urteurreneko meza domekan, apirilak 15,
10:30ean, Uberako San Paulo elizan.

*Izar bat da zeruan
distiraz beteta
hari begira sarri
gure gogoeta,
ama eta laguna
izan zinen eta
beti gure gogoan
Artizko Klementa.*



Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldeztatik eskerrik asko sendikoen izenean.

OROIGARRIA

Deunoro Otero Uribarren

2008ko apirilaren 5an hil zen, 48 urte zituela.

*Idealista, konprometitua, kementsua,
pertsona ona, lagun hobea...*

Gure bihotzean bizirik zaude



Arrasateko Udaleko lagunak.
Arrasaten, 2008ko apirilaren 11n.

ESKELAK

GOIENKARIAn eskela jarri nahi baduzu, deitu telefono honetara eguen eguerdia baino lehen:

943 25 05 05

Edo zatoz ordezkari batara, eguazten eguerdia baino lehen:

Arrasate

Goiena: Otolora lizentziaduna 31. 943 25 05 05. / Goiena: Nafarroa etorbidea 2. 943 25 05 05.

Bergara

Goiena: Barrenkalea 33. 943 25 05 05.

Oñati

Biklon publizitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65.

Aretxabaleta

Goiena: Durana 11. 943 79 86 21.

Aramaio

Kintelena janaridenda: Nardeaga 11. 945 44 50 22

Elgeta

Ugari janari denda: Andra Mari plaza 2. 943 76 80 98

Antzuola:

Itzar liburu denda: Kalebarren 1. 943 76 60 62.

Eskelaren prezioa: 100 euro.

Prezio berezia: egubakoitzeko eta asteleheneko GOIENKARIAn, bietan, argitaratuz gero, **120** euro.

ASTELEHENEKO GOIENKARIAko harpidedunak: 90 euro

Prezio berezia: egubakoitzeko eta GOIENKARIAn, bietan, argitaratuz gero, **110** euro.

Goienkaria: astero, 50.000 irakurle. (CIES)



Babeslea:

OROILORE Hileta eta Beilatoki zerbitzuak
Amillaga Auzoa, 27. 20570 Bergara
Tel.: 617 442 155 - 943 76 94 73
Faxa: 943 76 94 76
maribi@oroilore.com





Bidaia ezin hobea
Bidaia ezin hobea



OROILORE
Funeraria-Tanatorio
Hileta eta Beilatoki zerbitzuak

bila-bila 7



hitz gezidunak

	Eraman	Otoitz egiten duena	Aurpegiaren atal
	Galtzagorri	Nafarroako herria	10
Eltze	Jasaile, pairatzaile	Zuzen, tente	Kiloa
	Adiskide		
Bozkario, alaitasun	... egin, agurtu	Zuzen, tente	Utikan!
IRUDIKO MENDIA			
Beldurtu, kikildu	Pausaldi (alderantziz)	Zuzen, tente	Utikan!
Goien, garaien			

GOIENKARIA


soluzioak

E	R	U	V	M	E	Z	I	T	I	
A	R	A	E	R	O	R	E	N	Z	
S	N	Z	U	P	O	T	O	N	E	
O	R	L	Z	L	Z	L	E	B	O	
A	R	O	A	R	I	N	I	N	H	Z
R	X	R	I	M	X	R	S	E	A	X
A	P	I	M	X	R	S	E	A	X	R
X	P	O	X	R	I	R	I	P	O	X
M	I	N	E	L	I	N	M	I	N	M

Jeroglifikoak: Osabak

8	4	6	3	7	1	6	5	2
5	9	4	1	2	8	7	3	6
2	7	3	5	6	1	9	8	4
9	5	4	7	1	2	3	6	8
3	1	6	4	8	7	1	3	5
6	2	8	6	9	2	4	5	3
2	7	9	6	5	4	8	1	3
1	3	1	5	3	6	7	8	1
6	1	8	2	9	3	5	4	7

I	A	T	N	E	N	G	O	R	E	N	G
U	A	R	T	A	R	T	K	O	L	D	A
L	B	A	L	A	I	T	Z	A	B	A	L
S	L	E	S	P	O	Z	O	L	E	S	P
T	Z	U	T	L	A	G	U	N	Z	U	T
O	S	I	B	O	L	P	A	S	I	B	O
K	O	O	O	O	O	O	O	O	O	O	O
X	A	T	X	I	R	A	T	X	I	R	A
K	O	E	O	E	O	E	O	E	O	E	O



sudoku

	4	5		9	2		6	
3		8	4					7
	7			3				8
	9							1
	6			1				5
4					5	3		2
5		1	7		6		4	

hieroglifoa

Nork ekarri dizu oparia?

OSV B

A A A

A A A

hizki salda

Bost lore

K	R	A	B	E	L	I	N	M
B	E	R	I	R	I	P	O	X
R	T	Z	T	U	L	I	P	A
S	E	A	X	P	I	M	X	R
Z	H	N	I	N	U	O	A	R
E	B	O	L	L	Z	T	E	O
N	E	T	O	P	U	Z	N	S
Z	N	E	R	O	A	E	R	A
I	T	Z	E	M	A	U	R	E

bono fotoa



Debagoieneko zein herritan zegoen orain dela gutxi arte pergola hori??

Argazkia eta galdera > Jose Felix Diaz de Tuesta



Super BM emandako
50 euroko erosketa-txartela
zozketatuko du GOIENKARIAK asmatzaileon artean!

ERANTZUNA

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO
Goienako edozein egoitzara

Fairy baxera garbitzekoa
litroko botila

2,95 €

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

Arrasateko MIKEL UNAMUNOrendako izan da erosketa-txartela.
Zorionak!

Galderaren erantzun zuzena: Martzial Agirre (1840-1900)

ETXEKO AZOKA 2008ko apirilaren 1etik 30era Vitoria-Gasteizko Boulevard dendagunean

Soluzioak eskaintzen ditugu hurbilagoak, osoagoak

- Kalitateko aukera, marka ezagunen bermearekin.
- **Soluzioak** eskaintzen dizkizugu: aparkalekua, zerbitzuak..
- Asmatzeko, konparatu egin behar. Eta konparatzeko toki bakarra, **Etxeko Azoka**.
- Eta, gainera, parte hartu eta irabazi **6.000€** Boulevard dirutan.

Bisita ezazu
Alaia plazako gure
etxebizitza pilotua

BOZKATU **fh**
Aukeratu etxeko azoka



Udaberria - uda

Mirari
JANTZIDENDA

Martoko 34 Bergara 943 76 23 93

*Neurriak
38tik 60ra*

Gorka Galdos > Goi-Ingenieritzako doktoretza egiten ari da Suitzan

"Koadrilakoekin herrian egiten genuen parrandaren bat botatzen dut faltan"

Gustura dago Gorka Galdos Alpe inguruetan. Suitza ez da Oñati baina, "Suitza eta Euskal Herria-

ren artean antzekotasunak ikusten ditut paisaje aldetik". Anaia berarekin bizi da Suitzan Goi

Ingeniaritza egiten. Faltan botatzen du Oñatiko koadrilakoekin egitea "parrandaren bat".

Mendi eskia da bere zaletasunetako bat. Berarekin hitz egin dugu honetaz guztiaz.

JASONE ZABALA > OÑATI

Gorka Galdos, 27 urteko oñatiarra, Mondragon Unibertsitatean Ingeniaritza Tekniko ikasketak amaitu ondoren, beste askok egiten duten antzera, atzerrian ikasten jarraitzea erabaki zuen. Suitza izan zen aukeratutako herrialdea, eta bertara joan zen 2002ko ikasturtean Goi Ingeniaritza bukatzeko. Hau amaitu ostean, doktoretza egiten gelditu zen bertan. Gustura dago Suitzan, mendi eskia, bere zaletasun handia, praktikatzeko leku ezin hobean.

Zergatik aukeratu zenuen Suitza Ingeniaritzako doktoretza egiteko?

MUn ikasten nuenetik ingeniaritzako automatiko arloa beti gustatu izan zait. Lausanneko EPFL unibertsitatean automatika saileran puntako laborategi bat zegoela ikusi nuen, bertan egin bainituen proiektu pare bat. Gauzak horrela, gustuko gai batetan doktoretza bat proposatu zidaten, eta bertan nago geroztik.

Suitza ez da Oñati...


Egia esan ez da berdina. Dena den, nik Suitza eta Euskal Herriaren artean antzerakotasunak ikusten ditut geografikoki. Hemen ere, herri txikiak aurkitu genitzake baserri girokoak. Alde horretatik, berdintsuak iruditzen zaizkit. Baina, egia esan, hemen pixka bat aurreratuagoak daude: goi mailako zerbitzu publikoekin, ikerkuntzan inbertsio askorekin...

Anaia ere zurekin bizi da Suitzan, ezta?

Bai, hura ere Ingeniaritza informatiko teknikoko ikasketak bukatu ondoren, bertara etorri zen Goi ingeniaritza bukatzera. Orain, etxean 4 izatetik 2 izatera pasatu dira 3 urtetan. Aita eta amarendako gauzak dezente aldatuko ziren, baina nik uste dut ohi direla honezkeroko.

Oñatiko koadrilakoak nabaritutuko dute zure falta. Batez ere "botea" eramateko orduan...

Beraiek ez dakit nabaritutuko zuten edo ez; nik, behintzat, bai. Urtean bi aldiz bueltatzen naiz Oñatira: Gabonetan eta herriko jaiak direnean. Noizean behin edukitzen dut lagunak ikustera bueltatzeko gogo, faltan botatzen baita koadrila giroa; mahai inguru baten jarri denok eta elkarren arteko kontu eta abentura batzuk kontatu, Oñatin parrandaren bat bota. "Botea" dela-eta, honezkeroko uste dut aurkitu dutela nire ordezkotako bat...



GOIENKARIA

PERTSONALA

Herria: Oñati. **Adina:** 27 urte. **Zaletasunak:** Mendi eskia, alpinismoa eta zinema. **Gorrotatzen duzu zozer?** Eguraldi ona egiten duenean, hirian gelditzea. **Baduzu maniarik?** Dena ondo egina dagoela egiazta-tu beharra. **Parrandarako toki bat:** Oñati. **Bizitzeko**

toki bat? Lausanne. Ez da hiri oso handia, baina eskaintza kultural aberatsa du eta Alpeetatik geru dago. **Mendi bat:** Suitzako Valais eskualdeko edozein. **Bidaiatzeko leku bat:** Berriz joateko bat, Noruega; lehen aldiz ezagutzeko, berriz, Zeelanda Berria.

Zeintzuk dira zure zaletasunak?

Gogokoen dudana zaletasuna mendi eskia da, nahiz eta mendiko beste ekintza batzuk ere oso gustuko ditudan. Bertara etorri aurretik ez nuen askorik egiten, baina hemen, alpeak bertan izanda, zaletasuna hartu nuen mendia egiteko. Gaur egun, asteburu gehiengutan mendira joaten naiz. Neguan, elurra dagoen bitartean mendi eskia egiteko, eta udan, eskalada edo alpinismo pixka bat egiteko. Azkeneko urtean, mendi bizikletarako zaletasuna ere hartu dut. Zinema eta mahai-joko batzuk ere atsegin ditut, eta noizean behin GO partidatxo bat gustuko izaten dut.

Mendia gustuko, Suitzan antolatuko den ibilbide baterako ere prestatzen ari zara.

Bai, Suitzan bi urtean behin antolatzen den mendi eski proba batetan parte hartuko dugu. *Patrouille des Glacieres* izena dauka, eta hiru eguneko proba bat da. Aspalditik, militarrek antolatzen duten proba da. Bertan, 50 kilometro inguru egiten dira, eta guztira 4.000 metroko igoera egiten da. Ibilbide hau Pierra Mentarekin batera, mendiko eskiaren munduan gaur egun egiten diren proba ezagunenetako bat da. Unibertsitateko bi lankiderekin parte hartuko dut. Nahiz eta dezente entrenatzen ari garen, oso gogorra dela esan digute. Horrela, gure helburua proba bukatzea da.

Bidaiatzea gustuko duzu?

Lagunekin *interrail* batekin hasi nintzen Italia, Grezia eta Amsterdam ikusteko. Gero Pragan izan nintzen. Norvegiar, Kroaziar, Esloveniatar eta Dolomita inguruetan ere izana naiz. Aurrerantzean, beste toki batzuk ezagutzeko gustatuko litzaidake, Asia, Hego Amerika...

Oñatira bueltatzeko asmorik?

Suitzara iritsi nintzenean, ikasketak bukatu eta berehala bueltatuko nintzela esaten nuen. Ikasketak bukatu, eta oraindik beste urte batzuk geratuko nintzela doktoretza bukatzeko, eta gero bueltatuko nintzela esaten nuen. Orain, berriz, doktoretza bukatzeko beste bi urte falta zaizkit eta oso gustura nago. Lana aurkitu ezkeroko, behintzat, oraindik beste pixka batean bertan geratzea gustatuko litzaidake. Baina nik uste, epe luzera, egunen baten Euskal Herrira bueltatuko naizela, baina historiala ikusita, nork daki.

berriak

> 'EUSKALDUNAK HIZKETAN'
Euskal Herrian eliza katolikoak izan duen eragina aztergai

Erligioaz arituko dira datoren asteko *Euskaldunak hizketan* saioan; hain justu ere, Eliza katolikoak, XX. mendeko Euskal Herrian izandako eraginaz.

Euskaldun nagusiekin berbetan, ikusi ahal izango duzue nola bizi zuten gure aitona amonek Katolizismoa, nola bizi zuten sakramentua edota Aste Santua. Hau guztia, martitzeneko moduan, 21:47an, Goiena Telebistan.

> BALLETA
28 kanalak ekoiztuta, Miarrizteko Balletaren ikuskizuna

Miarrizteko Balletak eskaintzen duen ikuskizuna ikusteko aukera izan zen duela gutxi Arrasaten. Orain, orduan ikusi ezinik gelditu zinetenok, baduzue aukera Miarrizteko Balletak eskaintzen duen ikuskizunaz gozatzeko. Hain zuzen ere, Tolosaldeako 28 Kanalak ekoiztuta, Miarrizteko Balletaren emanaldia ikusteko aukera egongo da Goiena Telebistan asteburu honetan.

> ARRASATE IRRATIA
Herriko egoeraren jarraipen zehatza, Arrasate Irratian

Arrasate Euskal Herriko politikagintzaren eredu bilakatu den egoeraren aurrean, Arrasate Irratiak udal egoeraren eta etorkizunaren gaineko jarraipen zehatza egiten segituko du (azken asteotan egin duen moduan). Astelehenean, besteak beste, Ino Galparsoro alkateari elkarrizketa egingo diote. Eta aurreikusten den zentsura mozioaren gaineko nondik norakoak aurreratu ahaleginduko dira.

> ARRASATE IRRATIA
Debagoieneko dantzarien eguna hilaren 26an

Datorren astean politikak jarraituko du izaten Arrasaten albiste nagusi; hala ere, irrastian asteroko hitzorduak lantzen segituko dituzte.

Horren harira, adibidez, euskal dantza izango dira datorren asteko protagonistetako bat. Izan ere, apirilaren 26an Debagoieneko dantzari nagusien eguna ospatuko dute. Horrekin batera, asterokoari segituz, Udal Gazte Bulegora joko dute, eguean, 11:30ean.

'ILUNPEAN' > EGUBAKOITZA, 22:15

Ruben Rolando Sanchez 'Ilunpean' saioan, berbetan

Zaragozan jaio zen baina txikitatik bizi da Gasteizen. Euskaldun berria da, bertsolaria eta baita AEK-n irakasle

GOIENKARIA > ARRASATE
Ruben Rolando Sanchez elkarriketatuko du Iker Barandiaranek gaur gauean, *Ilunpean* saioan. Zaragozan jaio zen baina txikitatik etorri zen Gasteizera bizitzera. Euskaldun berria izateaz gain, Euskal Filologiako ikasketak egin zituen. AEK-n, ikasle izatetik irakasle izatera pasatu zen. Bertsolaritzan ere aritua da Sanchez, baina ez da inoiz bere ogibidea izan.

Egubakoitzetan eskaintzen den eta Iker Barandiaranek zuzentzen duen *Ilunpean* saioa elkarriketatua da egubakoitz honetan, Ruben Rolando Sanchez.



IRAKASLE Ruben rolando sanchez argazkian.

IKER BARANDIARAN

'ARABAKO BERTSOLARI TXAPELKETA' > ZAPATUA, 22:00

GOITBn Arabako Bertsolari Txapelketako finala emango dute, bihar

GOIENKARIA > ARRASATE
Bihar eskainiko dute 22:00etan, joan den aste bukaeran Gasteizko Printzipal aretoan jokatu zen Arabako Bertsolari Txapelketako finala. Bi orduko saioa izango da Goiena Telebistak eskainiko duena; txapelketak iraun

zuen, hain justu. Zapatuan ez ezik, domekan ere eskainiko dute saioa, 14:00etan. Gainera, asteleheneroko erreportajerako, txapelketak eman zuenarekin ordu erdiko saioa prestatu du Julen Iriondok. Bertsolaritzarekin lotutako hiru hitzordu,

beraz, aste honetan, Goiena Telebistak eskainiko dituenak, zuen gozamenerako.

Arabako Bertsolari Txapelketan sei lagun aritu ziren. Finalisten artean, bi aramaioar; Andere Arriolabengoa eta Manex Agirre. Horietaz gain, oholtza gainean, Asier Otamendi (Arabako Bertsolari Txapelketako irabazlea), Oihane Perea, Zigor Enbeita eta Iñaki Viñaspre. Oso saio erregularra egin zuen txapeldunaren ostean, bigarren izan zen Manex Agirre. Asteburuan duzue saioa ikusteko aukera, Goiena Telebistan.

telebegi

Edu Mendibil > www.goiena.net/blogak/edu

Futbolmaniak

Futbol sasoi hobeak, Real lehen mailan zirenekoak, telebistan saio hobeak ematen zituztenekoak, igartzen ditut faltan. *Estudio estadio* aitzindari haren ondotik, 90eko hamarkadan *El día después*, Canal Plus saio gogoangarri hura etorri zen. Zalantzarik gabe, futbolaren gainean egin den saiorik onena, ikuspegi ezberdina ekarri zuena. Futbola gustuko ez zuten ikusleak ere erakartzea lortu zuten Michael Robinson-ek eta konpainiak, analisisa eta umorea uztartuz. Harrezkero etorri diren saioak, ahazteko modukoak. Zaila zeukaten, baina TVEn lortu dute *El rondo* baino programa txarragoa egitea; *Club de fútbol* horretan ere zarata da nagusi eta, aurrekoan moduan, txisteak, sailak eta analisten komentarioak, negargarriak. *Loco Gattiren jertse horterak* dira gauza deigarriak. Ez, ez dira garai onak futbolzaleontzat: La Sextan, Andres Montes; ETB, bigarren mailan; Teledonostin, Tito Irazustaren saio amaigabeak; Antena 3ren *Territorio Champions* sufritu behar dugu; Telecinco, *missing*; eta Cuatron ustezko umorista bikote hori, Los Manolos, auzoko tabernan egongo balira moduan komentarioak egiten dituzten horiek.

arrasate irrata

FM 107.7

Zapatua

10:00 Asteko gainbegiratua. Ilunpean saioa; hirugarren adinekoren gainekoak (dieta, tertulia...) *Zaharrak berri* saioan, eta sexologia eta gazteendako kontuak, besteak beste.

Domeka

10:00 Asteko gainbegiratua.

Astelehenetik egubakoitzera

10:00-12:00 Igo Autobusera
Albistegia
Eguraldien iragarpena (Joxe Landa)
Ilunpean
Teknoberriak
Igo Euriborrera!
Kantaka
Zaharrak Berri
Astearren erreposoa
Zozketak
Zorion agurrak (parte hartzeko: 943 25 05 05 (irratia@goiena.com))
11:55 Arrasateko albisteak, labor.
12:05 Euskadi Irratiko albistegia
12:10 Izarren ordua: abesti ezagunak
13:00 Euskadi Irratiko albistegia.
14:00 Igo Autobusera! (errep.)
17:00, 19:00, 21:00, 23:00 albistegi laburra.

GOITBko programazioa

Egubakoitza, 11

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrakzi bizidunak: Calimero. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Kantari. 14:15 Euskaldunok hizketan. 14:45 Albiste aurrerapena. 15:15 Berbaire. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Musikantoi. 16:15 Ur eta lur. 16:45 Albisteak. 17:15 Marrakziak. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Ilunpean. 18:15 Erreportajea. 18:45 Albisteak. 19:15 Ikusmira. 19:45 Berriak. 20:15 Marrakzi bizidunak. 20:45 Berriak. 21:15 Erreportajea. 21:45 Gaurkoak. 21:47 Animalia. 22:15 Ilunpean. 22:45 Berriak. 23:15 Musikantoi. 22:45 Gaurkoak. 23:30 Klip 28. 00:15 Emisio amaiera.

Zapatua, 12

08:00 Emisio hasiera. 08:05 Marrakzi bizidunak: Horry, Calimero eta Trikitraka trikitron. 11:00 Ikusmira. 11:30 Ikusten. 12:00 Astekoak. 12:15 Klip. 12:30 Eltze beroa. 13:00 Miarrizteko baleta. 13:30 Euskaldunok hizketan. 14:00 Euskal artzainak ameriketan. 15:00 Kantari. 16:00 Marrakzi bizidunak. 19:00 Hitz bitan. 19:30 Ur eta lur. 20:00 28 Klip. 20:30 Miarrizteko baleta 21:00 Erreportajea ttipi ttpa. 21:30 Ilunpean. 22:00 Arabako bertso txapelketa. 23:00 Musikantoi. 23:30 Jazmina. 00:00 Emisio amaiera.

Domeka, 13

08:00 Emisio hasiera. 08:05 Marrakzi bizidunak: Calimero, Horry eta Trikitraka trikitron. 11:00 Kantari. 12:00 Ur eta lur. 12:30 Berbaire. 13:00 Euskal artzainak. 14:00 Arabako bertso txapelketa. 16:00 Erreportajea. 16:30 Marrakzi bizidunak. 19:00 Miarrizteko baleta. 19:30 Eltze beroa. 20:00 Ur eta lur. 20:30 Erreportajea ttipi ttpa. 21:00 Musikantoi. 21:30 Animalia. 22:00 Astekoak. 22:15 Euskaldunok hizketan. 22:45 Erreportajea. 23:15 Berbaire. 23:45 Ilunpean. 00:15 Musikantoi. 00:30 Emisio amaiera.

Astelehena, 14

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrakzi bizidunak: Calimero. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Erreportajea-Ttipi Ttpa. 14:15 Eltze beroa. 14:45 Berriak. 15:15 Ilunpean. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Berbaire. 16:15 Berbaire. 16:45 Berriak. 17:15 Marrakziak. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Ikusten. 18:15 Teknopolis. 18:45 Berriak. 19:15 Animalia. 19:45 Berriak. 20:15 Marrakzi bizidunak. 20:45 Berriak. 21:15 Harmailatik. 21:45 Gaurkoak. 21:47 Erreportajea. 22:45 Berriak. 23:15 Harmailatik. 22:45 Gaurkoak. 23:30 28 Klipa. 00:15 Emisio amaiera.

Martitzena, 15

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrakzi bizidunak: Horry. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Erreportajea. 14:45 Berriak. 15:15 Harmailatik. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Kirolari. 16:15 Eltze beroa. 16:45 Berriak. 17:15 Horry. 17:45 Gaurkoak. 17:47 28 Klipa. 18:15 Musikantoi. 18:45 Berriak. 19:15 Marrakzi bizidunak: Horry. 19:45 Berriak. 20:15 Kantari. 20:45 Berriak. 21:15 Teknopolis. 21:45 Gaurkoak. 21:47 Berbaire. 22:15 Euskaldunok hizketan. 22:45 Berriak. 23:15 Ikusmira. 22:45 Gaurkoak. 23:30 Erreportajea. 00:15 Emisio amaiera.

Eguaztena, 16

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrakzi bizidunak: Calimero. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Kantari. 14:15 Eltze berioa. 14:45 Berriak. 15:15 Berbaire. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Euskaldunok hizketan. 16:15 Teknopolis. 16:45 Berriak. 17:15 Calimero. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Animalia. 18:15 Harmailatik. 18:45 Berriak. 19:15 Marrakzi bizidunak. 19:45 Berriak. 20:15 Zaharrak berri. 20:45 Berriak. 21:15 Ikusten. 21:45 Gaurkoak. 21:47 Euskal artzainak. 22:15 Ur eta lur. 22:45 Berriak. 23:15 Teknopolis. 23:45 Gaurkoak. 23:47 Jazmina. 00:15 Emisio amaiera.

Eguena, 17

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Zaharrak berri. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Marrakzi bizidunak. 14:15 Euskal artzainak. 14:45 Berriak. 15:15 Ikusmira. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Ur eta lur. 16:17 Eltze beroa. 16:45 Berriak. 17:15 Horry. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Ilunpean. 18:15 Kirolari. 18:45 Berriak. 19:15 Marrakziak. 19:45 Berriak. 20:15 Kantari. 20:45 Berriak. 21:15 Erreportajea. 21:45 Gaurkoak. 21:47 Berbaire. 22:15 Musikantoi. 22:45 Berriak. 23:15 Ikusten. 22:45 Gaurkoak. 23:30 Teknopolis. 00:15 Emisio amaiera.

Miren eta Mikel Garai > Enpresa Digital sariaren irabazleak

"Gu gara Europa osoan halako sistema martxan jarri dugun lehenengoak"

JASONE ZABALA > BERGARA

Arrasateko Mikel eta Miren Garai anai-arrebarena da Gasteizko Ipar-gama enpresa. Beraiek jaso zuten komunikazio teknologia berriak ezarri eta egokien erabiltzen dituen enpresa onenaren saria, pasa den apirilaren 3an, Jaurilaritzak banatzen dituen Enpresa Digitala sariaren lau garren edizioan. Mikelekin hitz egin dugu irabazi duten sari honetaz eta arrebarekin batera duen enpresaz.

Sari hau irabazteak zer suposatzen du?

Gure proiektua ezagutzera eman du eta baita gure izena. Bagenekien saria irabazteko aukerak geneukala baina hala ere ustekabe zorionsua izan zen...

Euskal Autonomia Erkidego mailan mila proiektu baino gehiagoren artean, zergatik aukeratu dute zuen proiektua?

Gure sektorean, gu garelako Europa osoan horrelako sistema martxan jarri dugun lehenengoak, eta enpresa handiez ari gara berbetan gure konpetentzia aipatzerakoan.

Noiz sortu zenuten enpresa?

Ipar-gama, 2005. urteko uztailan sortu genuen, baina ez zen martxan hasi 2006ko martxora arte.

Zer da Ipar-gama.net?

Eraikuntza mekanikorako materialen hornikuntza kudeatzeko sistema berritzaile bat da.

Nolatan bi anai-arreba arrasatearrek enpresa Gasteizen?

Jaiotzez arrasatearrak gara, baina txikitik etorri ginen Gasteizera bizitzera. Hala ere, beti egon gara hemendik hara bueltara, eta Arrasaten familia eta lagun asko dauzkagu. Enpresa Gasteizen jartzeko erabakia logistika arazoengatik izan zen. Gasteiztik hurbil gelditzen dira bai Gipuzkoako, Nafarroako eta Bizkaiko industrialdeak eta, bestalde, irteera onak dauzka Burgosera, Zaragozara, Kantabriara...



Miren eta Mikel Garai Jaurilaritzak emandako enpresa digital onenaren garaikurrarekin.

IPARGAMA

Zein da zuen enpresaren funtsa?

Ipar-gamak eraikuntza mekanikorako materialez hornitzen ditu Euskal Herriko eta inguruko herrialdeetako enpresak.

Horretarako, Gasteizen kokatutako biltegi bat daukagu. Bertan, bezeroendako altzairuak onartu, pilatu eta moztu egiten dira. Egun, material hauen %95 altzairua da, eta gure enpresa dauden altzai-

ru guztietatik, ardura handiko pieza dinamikoendako altzairuen multzoan dago kokatuta. Altzairua egun batetik bestera prestatzen da, bezeroendako, hortaz, ezinbestekoa da eskaerak jasotzerakoan azkar prozesatzea lana lehenbailehen egiteko.

Zertan datza zuen sistema berritzaileak?

Gure bezeroek egunero erosten dute materiala. Mekanizazioaren bidez beraien piezak eraikitzen dituzte. Egunero komunikatzen gara gure bezeroekin. Batzuetan kontsultak dira; beste batzuetan eskakizunak, hornikuntzei jarraipena egiteko... Sistema berritzaile honen bitartez bezeroek, guk emandako pasahitz batekin gure sistema informatikoan sartzeko aukera

"Ipar-gamak eraikuntza mekanikorako materialez hornitzen ditu hainbat enpresa"

"Bagenekien saria irabazteko aukerak geneukala; ustekabe zorionsua izan da"

dute eta beraien ordenagailutik mugitu barik zenbait gauza lortu. Alde batetik, beraien erosketak guztien historiko bat eta bakotzetik emate-agiri, faktura eta altzairuaren kalitate agiria lortu dezakete eta baita inprimatu ere. Beste aldetik, kontsultak zuzenean egin ditzakete baita erantzunak lortu ere.

Webgunearen bitartez eros daitezke materialak. Bezeroek aurrera pausu hau eskeretzen dute?

Bai, asko eskertzen dute, batez ere egunero eskatzen dutenak eta beraien eskakizunak oso handiak ez direnean, erosketei eta eskaintzei ematen dieten denbora asko murrizten dielako.

Sistema honek nola hobetzen du beste enpresekiko lehia-kortasuna?

Momentu honetan gure sektorean enpresa gehienak multinazionalak dira, askok erbeste-an daukate burua, eta mundu osoan daukate guk dauzkagun moduko biltegiak. Oso zaila da horrelako enpresen aurrean borrokatzea, finantza arloan oso indartsuak baitira. Guk, ordea, ez dauzkagu abantaila horiek, baina badakigu Euskal Herriko mekanizatzaileak eta makina eraikitzaileak behar dutena: ezaugarri mekaniko zehatzak betetzen duten altzairuak, prezio onenean, eta batez ere zerbitzu azkarra. Hortaz, ezinbestekoa dugu ideia berritzaileak eta diferentzia egiten dutenak ezartzea.

ARRASATEKO UDALAITZ MEDIKO ZENTRUA ERE SARITUA

Arrasateko Udalaitz mediku zentroaren webgunea Gipuzkoako lau onenen artean

Gipuzkoako komunikazio teknologia hobekien erabiltzen duten lau enpresa onenarikoen artean gelditu zen Arrasateko Udalaitz zentroa. Zentru mediku honen webgunean, zentroari buruzko informazioa aurki daiteke. Zentroko erabiltzaileek beren historia kontsultatzeko eta tratamenduari buruzko informazioa eskuratzeko aukera dute bertan. Gainera, hitzorduak webgunearen bitartez programatu eta eskatu ditzakete. Horrela, osasun-zentroko langileek hitzorduak eman eta kontsultei erantzun diezaiokete. Zentroko gerente Paco Ansoategik adierazi digunez: "Aspalditik dena digitalizatzen doa merkatuak halaxe eskatuta; hortaz, beharrezkoa den gauza bat da halako webguneak izatea, beti ere bezeroen erabilgarritasunerako".

Zure negozioaren erakusleioa Interneten

www.goiena.net-eko **blog komertzialak**

www.goiena.net/blogak

/aebpn
/aiastui
/arantxa
/aretxargi
/argi-plastik
/arregi
/atai
/azkarate
/bastida
/briz-asegurak
/BZ-sistemas
/bolusukaldeak
/denetik

/dragon-oriental
/dukiena
/ego
/eguzkigraf
/ekilore
/ekin
/elejalde
/ezkutuorly
/galgorri
/gallastegi
/ganesha
/garaia
/gertu
/gorkataxi

/gorla
/gurea
/guztizeder
/hamaikataberna
/itxaseder
/irudisport
/ixaun
/izeder
/jcracing
/lamaino-etxeberrri
/lorelan
/korozabaleta
/kizkur
/markiegi

/maulanda
/mayte
/merkeopari
/multiopicas
/ohiak
/ogizun
/okipark
/optico
/otzeta
/pando
/perfiar
/puerta-ingles
/richimaier
/tabernaberri

/udalatz
/udalaitz
/urdeki
/ugartearotza
/urbieta
/urko
/vitoria
/zainduz
/ziripot

Eta baita ere:

www.aizue.com
www.amgautoak.com
www.baster-aldejatetxea.com
www.ehmff.com
www.gelatzu.com
www.goikobenta.com
www.haurtxoa.com
www.kizkur.com
www.klorofila.com
www.landaluze.com
www.lilura.com
www.toldoslete.com
www.uxarte.net
www.biark.net



Goiena.net

Debagoieneko OSASUN ZERBITZUAK



AKUPUNTURA

INTEGU

Arrasate / Uarkape 18, behe, ez / 943 77 13 34

ETXEBERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behe / 943 76 60 13

LORENZO M. JOOSTEN

Arrasate / Arrasate Pasealekua 29, Ezk behe / 943 79 29 13

ALBAITARIAK

ARATZ KLINIKA (LAZPIUR ROMAN)

Bergara / Zurradero 6, behe / 943 76 70 67 / 607 48 71 19

ETXEBERRIA JULIO (DEBAGOIENeko ALBAITARI OFIZIALA)

Bergara / 609 54 16 13

ANALISI KLINIKOAK

LABORRA ISABEL

Bergara / Oxirondo 4-1B / 943 76 32 06

BARNE MEDIKUNTZA

IRIGOIEN VICTOR

Bergara / Oxirondo 4-1B / 943 76 32 06

DENTISTAK

AGIRRE HORTZ KLINIKA

Bergara / Ibargarai 9-1B / 943 76 00 23

ARANBURU HORTZ KLINIKA

Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

ARRASATE HORTZ KLINIKA

Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

ARREGI HORTZ KLINIKA

Arrasate / Zerkaosteta 19, behe / 943 79 71 90

ASTIAZARAN SOLOZABAL

Bergara / Iparragirre 1, behe / 943 76 27 95

BENGOA SAN MIGUEL ANGEL

Aretxabaleta / Durana 14, 1. / 943 79 05 57

BERGARA HORTZ KLINIKA

Bergara / Bidekurutzeta 36, behe / 943 76 05 77

CAVIGLIA SILVANA

Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

GOROSABEL J. ALBERTO

Bergara / Fraiskoziuri 5A, 1D / 943 76 56 88

IRIARTE IRURETA ANE MAITE

Arrasate / Iturriotz 7 - 1 / 943 79 69 45

IRIARTE IDOIA

Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65

LOPEZ DE GOIKOETXEA

Arrasate / Alfontso X. Jakintsua 5 / 943 79 17 74

MAZMELA BOLINAGA ENRIKE

Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

SAINZ MALKORRA ANA

Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

DERMATOLOGIA

TAMAYO CONCEPCION

OÑATI / ATZEKO KALEA 6, BEHEA / 620 124 843 / 943 71 61 82

ENTZUMEN ZENTROAK

GAES

Arrasate / Otalora Lizentziaduna 18 / 943 71 27 93

Bergara / Zurradero 10 / 943 76 94 55

INSTITUTO OPTICO - BIOACUSTICA

Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

ITZIAR UGARTE OPTIKA - AMPLIFON

Arrasate / Arrasate Pasealekua 35-37 / 943 08 26 87

ERREUMATOLOGIA

GORASARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA

TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA

Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

FISIOTERAPEUTAK

ANDONI ETA MARIA BASTERRETXE

Arrasate / Garibai etorbidea 6B / 943 77 03 96

ARZAK MIREN

Bergara / Artekalea 1-1H / 943 76 43 71

BASTERRETXE MARIA

Bergara / Artekalea 1-1H / 943 76 43 71

IONE MOÑUX FISIOTERAPIA ZENTROA

Bergara / Burdiñate 2 / 943 76 21 31

UNZUETA IRENE. SAN MARTIN OSASUNDEGIA.

Bergara / Ramon Maria Lili 2 / 943 76 59 39

HOMEOPATIA

AMAIA IRIARTE (MEDIKU HOMEOPATA)

Arrasate / Nafarroa etorbidea 11 / 943 08 11 00 / 695 78 19 21

KIROPRAKTIKA ZENTROA

LARRAÑAGA ANDREA

Arrasate / Erdiko kalea 22, 3. eskuma / 943 79 92 83

LOGOPEDIA

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

MASAJISTAK

ABUIN JOSE LUIS

Arrasate / San Josepe 10, behe D - Kiroldegian

943 77 01 33 / 943 77 16 77

ARANTZABAL SAIOA

Elgeta / Domingo Iturbe 10 / 646 50 00 29

ARANTZETA JUAN MARI

Elgeta / Salbador 28 / 943 76 80 54

AZPEITIA IRUNE

Bergara / Ibargarai 44, behe / 943 76 73 43

ELORTONDO FLOREN

Aretxabaleta / Basabe industrialdea D, z/g / 629 77 85 84

ETXEBERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behe / 943 76 60 13

OPTIKAK

ARRASATE OPTIKA

Arrasate / Kontzezino 6 / 943 79 25 98

BEGIONDO OPTIKA

Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

INSTITUTO OPTICO

Arrasate / Kale Barria 32 / 943 79 71 68

ITZIAR OPTIKA

Oñati / Kale Barria 32 / 943 71 82 88

ITZIAR UGARTE OPTIKA

Arrasate / Arrasate Pasealekua 35-37 / 943 08 26 87

MULTIOPTICAS LARRAÑAGA

Arrasate / J. Carlos Guerra 1 / 943 79 29 95

Bergara / Ibargarai 16 / 943 76 15 75

PORTALOI OPTIKA

Arrasate / Erdiko kalea 10 / 943 79 65 56

ORTOPEDIA

ORTO LAGUN

Arrasate / Kontzezino 2 / 943 79 89 34

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA (ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)

Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

OSTEOPATIA

BENGOA NEREA

Arrasate / Azoka kalea 4 / 659 58 66 89

ETXEBERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behe / 943 76 60 13

PODOLOGOAK

AZPIAZU ARANTZAZU

Bergara / Herri Lagunak z/g / 943 76 41 32

ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA

Arrasate / Erdiko kalea 54, behe esk. / 943 79 97 46

IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA

Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84

OINEZ PODOLOGIA KLINIKA

Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

PSIKIATRA

GALLASTEGI PABLO

Bergara / San Martin plaza 2-1. ezk. / 943 76 26 64

PSIKOLOGOAK

AGIRRE ENARA - PSIKOTERAPEUTA

Antzuola / Olanar etxea 3, MA10 / 670 45 19 62

GARMENDIA LANDER

Arrasate / Obenerreka 2, 7H / 943 79 35 86

NUÑEZ TXOMIN

Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

PSIKOLOGIA - LOGOPEDIA ZENTROA

Bergara / Herri lagunak z/g / 943 76 14 80 / 610 05 99 55

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

UROLOGOAK

LLUCH ALBERTO (UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA)

Arrasate / Ferrerrias 56 / 943 79 44 22

YOGA

AREDHANA YOGA ETA GESTALT PSIKOTERAPIA ZENTROA

Aretxabaleta / Santa Kurtz 24 / 616 96 57 95.

SAMADHI YOGA

Bergara / Masterreka 13, behe / 943 76 11 38 / 639 235 753

Apirilak 11-17

LEIRE KORTABARRIA

Zuon ekitaldien berri iragartzeko, bidali informazioa eguazteneko eguerdia baino lehen.
Posta elektronikoa: kultura@goiena.com
Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12

Kontzertua



OÑATI

> Sorkunek bere bakarkako hirugarren diskoa aurkeztuko du etzi Oñatin

Sorkun & Vice presidentes delako diskoa aurkeztuko du Sorkunek etzi, Oñatiko gaztelekuan, 20:00etan. AEBeta-ko Waxy taldeak ere joko du; talde horrekin dabil bira egiten bakarlarria. Sarrera 5 euro kostatuko da.

Hitzaldia



BERGARA

> Toti Martinez de Lezeak idazle lanaren eta sorginkeriaren gainean jardungo du

Udal Liburutegiaren eskutik, Toti Martinez de Lezeak hitzaldia egingo du eguenean, hilak 17, udaletxean, 19:00etan. Bere libururak zelan idazten dituen azalduko du, eta euskal sorginkeriaren gainean ere hitz egingo du.

Kontzertua



ARRASATE

> The Soulbreaker Company taldeak disko berriko abestiak joko ditu

Gasteizko The Soulbreaker Company-*k The pink alchemist* lana kaleratu du aurten, eta horko abestiak joko ditu gaur, 3.60 aretoan, 23:00etan. Obligaciones taldeak ere joko du gau berean. Sarrerak 8 eurotan salduko dituzte.

Antzerkia

ARRASATE

> Magia eta umore emanaldia izango da gaur lamain

Toño magoak trikimailuz eta umorez betetako emanaldia egingo du gaur, egubakoitza, lamai kafetegian.

Gaur, egubakoitza, gauerdian.

OÑATI

> 'Txitxarra eta inurria' antzezlanerako sarrerak salgai daude

Datorren zapatuan Santa Anan egingo duten *Txitxarra eta inurria* umeendako antzezlanerako sarrerak erosteko aukera dago. Kultura etxean eros daiteke; goizez, bulegoetan, eta arratsaldez, harreran.

Orduategia: goizez, 10:00-13:00; arratsaldez, 16:30-20:30.

ARRASATE

> 'Lorategian' haur antzerkia egingo dute datorren astean

Lorategian delako haur antzerkia egingo dute bihar, zapatua, Amaia antzokian. 1-3 urte arteko umeendako ikuskitzuna da. Emanaldira joateko sarrerak salgai daude www.kutxa.net webgunean eta 943 00 12 00 telefono zenbakian, 4 eurotan. Leku kopuru mugatua dago, 90 bakarrik, gurasoak eta umeak eszenatikian jesarri behar direlako.

Bihar, zapatua, Amaia antzokian, 17:00etan.

Erakusketak

ARRASATE

> Hitz, irudi eta musika erakusketak eta poesia irakurketa

Liburuaren Nazioarteko Egunaren inguruan antolatutako ekintzen artean, *Mugarri estaliak* delako erakusketa eta poesia irakurketa antolatuta du Udal Liburutegiak. Hitz (Castillo Suarez), irudia (Koldo Arnantz) eta musika (Juan Miguel Arzelus) bateratzen ditu erakusketa eta poesia irakurketa horrek.

Bisita orduategia: apirilaren 27ra arte, Kulturateko klustroan; poesia irakurketa, apirilaren 23an, Kulturateko areto nagusian, 19:00etan.

BERGARA

> Fernando Azkargortaren margolanak ikusteko aukera

Fernando Azkargorta margolari bergararraren erakusketa dago Aroztegi aretoan.

Azkargorta (1919-1973) Simon Arrietaren ikasle gogokoena izan zen. Bergarako herriaren izen onaren alde jardun zuen beti. Bere lanak Gasteizen, Donostian, Bilbon... izan zituen ikusgai.

Lanegunak: 18:00-20:30; zapatuak: 12:00-14:00 eta 18:00-20:30; domeka eta jaiegunak: 12:00-14:00.

Musika

ARRASATE

> Udaberriko Musikaldien barruan, hiru kontzertu

Hasiak dira IV. Udaberriko Musikaldia, eta honako kontzertuak daude egunotarako: gaur, egubakoitza, Andrea González gitarra-jolea, Kulturateko areto nagusian, 20:00etan; bihar, zapatua, KUP Abesbatza, parrokiari, 20:00etan; eta etzi, domeka, Zarauzko musika banda, Amaia antzokian, 12:30ean.

Egubakoitzean, Kulturaten, 20:00etan; zapatuan, parrokiari, 20:00etan; eta domekan, Amaian, 12:30ean.

ESKORIATZA

> Show Business eta Sanlo Garage Brothers taldeak

Oñatiko Show Business eta Sanlo Garage Brothers taldeek kontzertua egingo dute gaur, egubakoitza, gauean, Inkernu tabernan.

Gaur, Inkernu tabernan, 22:30ean.

ARETXABALETA

> Sweet Rockers eta Lain taldeek kontzertua egingo dute

Aramaioko Sweet Rockers eta Billabonako Lain taldeek kontzertua egingo dute gaur, egubakoitza.

Gaur, Haizea tabernan, 21:30ean.

BERGARA

> Apirilean Musika programaren barruan, organo kontzertua

Santiago Banda organojolearen kontzertua egongo da gaur, egubakoitza. Kontzertu pedagogikoa izango da: lehenengo, organoak zelan funtzionatzen duen erakutsiko du, eta gero, kontzertua egingo du.

Bihar, zapatua, musika barroko emanaldia izango da: musika eskolako irakasle eta ikasleek osatutako ganbara orkestrak eta kantu irakasleak

Reinhard Keiserren *Pasioa* jokatuko dute. Andoni Sierrak zuzenduko ditu.

Gaur, egubakoitza, Santa Marina parrokiari, 18:00etan; bihar, zapatua, Mariaren Lagundian, 20:00etan.

ARRASATE

> Los Ajustadores taldeak, garage-rock kontzertua

Arabako Los Ajustadores garage-rock estiloko taldeak emanaldia egingo du gaur, egubakoitza, Gure Leku tabernan.

Gaur, egubakoitza, 23:00etan.

ARRASATE

> Rock Privado taldeak kontzertua egingo du bihar, zapatua

Donostiako Rock Privado taldeak -kide bat oñatiarra da- kontzertua egingo du Kajoi tabernan; eguraldia lagun, terrazan izango da.

Bihar, Kajoi tabernan, 20:00etan.

BERGARA

> Disko-jartzaile bat eta reggae musika aste bukaeran Ziripoten

Honako emanaldiak egongo dira: DJ Lalas (Legazpi) gaur, egubakoitza; eta reggae gaua bihar, zapatua, Rude Kanka Soundsystem-ekin (Donostia). Bi emanaldiak 23:00etan hasiko dira.

BERGARA

> The happiness project, Meido eta Loan taldeak, kontzertuan

Gazte batzarrak antolatuta kontzertua egongo da bihar, zapatua.

The happiness project (Benicarlo, Castello) taldeak *A place where the avenues reach the sea* diskoa aurkeztuko du. Rock-and-rolla, hardcorea, popa, metala, musika elektronikoa... bateratzen dituzte.

Meido taldeak rock eta noise estiloa lantzen ditu, batik bat; eta Bilboko metal estiloko

PROPOSAMENA

ELGETA

> Anthony Blakeren emanaldiak ikusmin handia sortu du

Anthony Blake mentalistak berriz txundituko ditu Espaloiko ikusleak bere trikimailuekin, aurten estreinatu duen saio batekin. Komeni da sarrera lehenbailehen erostea, oso agudo dabilta-eta saltzen. Espaloira deituta (943 78 90 85) gorde daiteke sarrera. Hori bai; hasieran saio bat zegoen iragarrita, eta bigarren bat antolatu dute. Sarrerak: 15 euro bazkideek, eta 18, gainerakoek.

Bihar, 22:30ean, eta etzi, 19:00etan, Espaloia antzokian.



OÑATI

> **Diego Moiua oñatiarraren mar-
golanak, erakusketan**

Diego Moiua margolari oñatiarrak bere lan batzuen erakusketa ipini du kultura etxean; surrealismoa eta abstraktismoa landu ditu. Zabalik dago apirilaren 16ra bitartean.

Bisita ordutegia: egunero, 18:30-20:30.

ARRASATE

> **'Libelandula' marrazki eta
poesia erakusketa Harresin**

Maite del Reyk eta Maider Zubillagak *Libelandula* erakusketa ipiniko dute Harresi aretoan datorren martitzenean. Zubillagaren artelanak Del Reyren poesiaren laguntzarekin erakutsiko dituzte.

Maiatzaren 17ra arte egongo da berau bisitatzeko parada.

Bisita ordutegia: astegunetan, 18:00-20:00; zapatu eta jaiegunetan: 12:00-14:00 eta 18:00-20:00.

Lehiaketak

ARRASATE

> **'Sexmetraia 08' film laburren
lehiaketa deitu dute**

Arrasateko Udal Sexologia Zerbitzuak *Sexmetraia 08* lehiaketa deitu du. Helburua da, film laburren bitartez, sexualitatea bizitzeko dauden modu desberdinak kaleratzea eta goraiatzeko. Film laburren gaia da sexualitatea eta horren barruan dauden aukerak. Filmok aurkezteko mugaeguna irailaren 30a da. Lehen saria 1.500 eurokoa da; Sexologia Euskaraz saria, 600 eurokoa.

Aurten, gainera, Sexmugi delako atal berria dago: sakelako telefonoz grabatutako film laburrak, gehienez ere 60 segundokoak. Honako helbidera bidal daitezke: *sexologiazerbitzua@arrasate-mondragon.net*. Atal horretan, 300 euroko saria emango dute.

Argibide gehiago, Sexologia Zerbitzuan (943 25 20 66) edo *www.sexologiazerbitzua.com* webgunean.

Bestelakoak

BERGARA

> **Bertso afaria egingo dute
Hamaika Bertutekoekin**

Poto-Plost bertso eskolak antolatuta, bertso afaria egongo da. Hamaika Bertute ekimeneko Andoni Otamendi eta Iñigo Izagirre etorriko dira. Txartelak Kortazar eta Pol-Pol tabernetan daude salgai.

Gaur, egubakoitza, gaztetxean, 21:30ean.

ESKORIATZA

> **Heziketa fisikoaren gaineko
jardunaldiak, gaur Huhezin**

Jakingarriak aldizkariak antolatuta, *Hezkuntzarik ez, heziketa fisikorik gabe* delako jardunaldiak izango dira gaur. 09:00etan hasiko dira; 09:30etik 17:00ak arte, hitzaldiak eta mahai-inguruak izango dira, hainbat adituren eskutik.

Gaur, egubakoitza, Huhezin.



**La familia
Savages *****

Zuzendaria: Tamara Jenkins.
Aktoreak: Philip Seymour Hoffman, Laura Linney, Philip Bosco.
AEB, 2007.
113 min. 13 urtetik gorakoendako.

Filmaren izenburuak, *La familia Savages*, garbi uzten du zein den istorio horren gai argumentala: senitarteko harremanak. Berrogei bat urteko bi anai-arrebak zahartzaroko dementzia duen aitaz arduratuko beharko dute. Momentu horretan, euren arteko harremanak nahiko urrunduak daude, bai fisikoki, Ameriketako Estatu Batuetan kilometrotrako distantziak oso handiak direlako, bai sentimentuei dagokienez. Egia da istorioa gaur egun kokatzen dela, baina gehiegi zehaztu gabe; horrez gain, bi anai-arrebok txikitan gurasoen partetik jasandako atentzio eza eta, kasu batzuetan, tratu txarrak azaltzen dituzte. Ez dira datu gehiegi ematen, baina argi nabaritzen dira haurtzaroaren itzalak bi pertsonaien izaeran: ez daude ohituta emoziozko loturak izaten, ez dute aurea hartzen, bizitzak ekartzen duenarekin moldatzen ahalegintzen dira: bizi baino gehiago, bizi-rik irauten dute.

La familia Savages komedia dramatiko kontsidera daiteke. Filmaren egitura nahiko zabala da, eta film deskriptiboa da: ez da drama gehiegi azpimarratzen, bizitzaren gertakizunek istorioa zuzentzen dute. Eguneroko gertakizun horiei pertsonaiek duten erantzuteko modua bihurtzen da filmaren ardatz nagusia; pertsonaien nahasketak sentimentalen deskribapena egiten du filmak, hain zuzen ere.

La familia Savages-en, pertsonaiek garrantzi handia dute, eta pertsonaiek pertsona bihurtzen daitezke, aktore onak behar dira. Philp Boscock, aitaren paperean, lan ona egiten du, eta Philip Seymour Hoffman eta Laura Linney antzezleek, agian izar statusa ez badute ere, momentu honetan Ameriketako Estatu Batuetako aktore bikainen artean daude.

Antonio Zabala

Zinema

**ARAMAIO
KULTURA ETXEA**

Cristóbal Molón
Domeka: 17:00.

**ARRASATE
KULTURATE**

Euskarazko film
laburrak
Eguaztena: 19:30.

AMAIA ANTZOKIA

Propiedad privada
(film laburra)
XXY
Eguena: 20:30.

**BERGARA
GAZTETXEA**

La gata sobre el
tejado de zinc
Domeka: 19:00.

AROZTEGI

Euskarazko film
laburrak
Eguena: 20:30.

**ELGETA
ESPALDIA
ANTZOKIA**

La última noche
Eguaztena: 21:30.

**OÑATI
KULTURA ETXEA**

No es país para viejos
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

**EIBAR
UNZAGA**

Las hermanas Bolena
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka:
17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena, martitzena
eta eguaztena: 19:30,
22:15.

**GASTEIZ
GURIDI**

Todos estamos
invitados
17:30, 20:00, 22:30.

El último mago
17:30, 20:00, 22:30.

The contract
18:45, 20:30, 22:30.

Juno
22:30.

Mi monstruo y yo
17:30.

21: blackjack
17:00, 19:45, 22:30.

Retratos del más allá
17:00, 18:45, 20:30, 22:30.

Horton
17:00.

Papá por sorpresa
17:00, 19:45.

La familia Savages
17:30, 20:00, 22:30.

FLORIDA-GURIDI

Betizu eta urrezko
zintzarria
18:00.

Fuera de carta
18:00, 20:15, 22:30.

La banda nos visita
18:00, 20:15, 22:30.

La edad de la
ignorancia
17:30, 20:00, 22:30.

Los falsificadores
18:00, 20:15, 22:30.

Cashback
17:30, 20:00, 22:30.

Cometas en el cielo
19:45, 22:30.

Al otro lado
17:30, 20:00, 22:30.

**YELMO
CINEPLEX-
GORBEIA**

10.000
20:25, 22:35, 00:45.

Casi 300
12:15, 16:30, 18:30, 20:30,
22:30, 00:30.

La noche es nuestra
12:15, 15:45, 18:00, 20:15,
22:30, 00:45.

En el punto de mira
20:20, 22:15, 00:10.

Las hermanas Bolena
12:15, 15:40, 17:50.

El último gran mago
18:20, 20:20, 22:20, 00:20.

No es país para viejos
19:45, 22:05, 00:25.

27 vestidos
12:15, 16:00, 18:10.

Fuera de carta
12:15, 16:00, 18:10, 20:20,
22:30, 00:40.

Las crónicas de
Spiderwick
12:15, 16:25, 18:25.

Despierto
20:35, 22:20, 00:15.

Juno
12:15, 16:45.

Retratos del más allá
12:15, 16:00, 18:00, 20:00,
22:00, 00:00.

Rastro oculto
18:40, 20:40, 22:40,
00:40.

Papá por sorpresa
12:15, 15:35, 17:40.

21: blackjack
12:15, 15:30, 17:45, 20:05,
22:25, 00:45.

Todos estamos
invitados
12:15, 16:15, 18:15, 20:15,
22:15, 00:15.

Mi monstruo y yo
12:15, 16:10.

Como la vida misma
19:50, 21:50, 23:50.

Horton
12:15, 16:05, 18:05.

El territorio de la
bestia
12:15, 16:50, 18:45.

The contract
20:10, 22:10, 00:10.

Gauerdiko saioak, eguba-
koitza eta zapatuan.
Eguerdiko saioak, dome-
kan.
Astelehena, ikuslearen
eguna (jaiegunak izan
ezik).

nire aukera



Irantzu Elortza
Oñatiko liburutegiko
liburuzaina

**"Basque Hotel
gomendatzen dut"**

Jeneralean herrian egoten naiz. Irakurtzeko ere aprobetxatzen dut. Oñatitik, poteoan ibili eta herriko zinemara joaten naiz. Herriko taberna guztietatik ibiltzen gara, baina, gehien gustatzen zaidana Xaguxar da. Taberna txiki bat da, nahiko berezia. Hala ere, bihar zerbait ezberdina egingo dut, egun-pasa joango naiz Iparraldera, Maskarada ikusterera.

Nire plan ideala hiriburu batera joatea da eta bertan asteburu osoa pasa. Museotara joan, giroa ikusi... Hiri bat aukeratzekotan Bilbo aukeratu nuke, asko gustatzen zait.

**Momentu honetan ze liburu
zaude irakurtzen?**

Jokin Muñozen *Antzarraren bidea*. Momentuz asko gustatzen zait. Gomendagarria da, hala ere, batez ere asko irakurtzen dutenendako, apur bat astuna eta luze samarra da-eta. Irakurtzeko ohitura handirik ez duenari kostatu egingo zaio amaitzea.

**Zein da gehien gustatzen
zaizun idazlea?**

Gabriel García Marquez. Bere estiloa, Errealismo fantastikoa, asko gustatzen zait.

**23an liburua eguna da,
zerbait berezia prestatu
duzue egun hori ospatzeko?**

Liburutegiko erakusketa aretoan irakurketa saioa egingo da apirilaren 21etik 25era bitartean. Eskolako umeekin bestelako ekitaldi bereziak egingo dira.

Ze eskaintzen dizu irakurketak?

Apur bat tipikoa da, baina, etxetik irten barik beste errealitate batzuk ezagutzeko aukera eskaintzen dit.

**Ze liburu gomendatuko
zenioke jendeari?**

Basque Hotel, Robert Laxaltena. Euskal emigrante baten semea da protagonista. Mutilaren egoera azaltzen da, gurasoen kultura eta bere kultura berriaren arteko ezberdintasunak.

Eskasa: * Balekoa: ** Ona: *** Oso ona: **** Bikaina: *****

Juno **

AEB, 2007. Zuzendaria: Jason Reitman. Aktoreak: Jennifer Garner, J.K. Simmons.
92 min. 13 urtetik gorakoendako. Juno MacGuff nerabeak bere buruari ezarritako arauak bakarrik jarraitzen ditu. Bizitza zeharo aldatuko zaio haurdun geratzen denean.

El territorio de la bestia ****

Australia, 2007. Zuzendaria: Greg McLean. Aktoreak: Radha Mitchell, Michael Vartan.
97 min. 18 urtetik gorakoendako. Australiar erreportaje bat egiten diharduen kazetaria da Pete. Han, bidaiari talde batekin topo egingo du ibai gurutzatzeko. Dena ondo doa krokodilo erraldoi batek erasotzen dien arte.

Al otro lado ***

Alemania-Turkia, 2007. Zuzendaria: Fatih Akin. Aktoreak: Hanna Schygulla, Patrycja Ziolkowska.
122 min. 13 urtetik gorakoendako.

Sei lagunen bizitzaren zati bat kontatzen du filmak, hainbat topaketa, harreman eta heriotzatik abiatuta.

Pozos de ambición ****

AEB, 2007. Zuzendaria: Paul Thomas Anderson. Aktoreak: Daniel Day Lewis, Paul Dano.
158 min. 13 urtetik gorakoendako. Plainview-k, isilpeko informazio bati esker, mendealdetako herrixka baten petrolio-itaso bat deskubritzen du, eta H.W. semearekin joango da Little Boston-era zorte bila. Han, Eli Sunday apaizaren Eliza dago.

Los falsificadores ***

Alemania-Austria, 2007. Zuzendaria: Stefan Ruzowitzky. Aktoreak: Karl Markovics, August Diehl, David Striesow.
98 min. 13 urtetik gorakoendako. Salomon Sorowitsch faltsifikatzailea naziak 1944an kontzentrazio-esparru batera bidaltzen dutenean, eurekin lan egitea onartzen du biletak faltsutzeko eta horrela gerra finantzatzeko.

Despierto **

AEB, 2007. Zuzendaria: Joby Harold. Aktoreak: Hayden Christensen, Jessica Alba.
84 min. 13 urtetik gorakoendako. Clay Beresford gazte diruduna da, eta bihotz-transplantea egin behar diote. Jack Harper mediku eta lagunaren esku jartzen du bere burua.

**Las crónicas de
Spiderwick *****

AEB, 2008. Zuzendaria: Mark Waters. Aktoreak: Sarah Bolger, Izabella Miko, David Strathairn.
107 min. 7 urtetik gorakoendako. Ama bat eta bere hiru umeak izaki miragarri eta beldurgarri betetako istorio baten sartuko dira.

La noche es nuestra ****

AEB, 2007. Zuzendaria: James Gray. Aktoreak: Joaquin Phoenix, Eva Mendes, Mark Wahlberg.
177 min. 13 urtetik gorakoendako. Bobby Green-en familiakoak poliziak izan dira beti, baina Bobbyk ez du halakorik entzuterik ere nahi.

Klasikoak Aro Garaikidean

LUXUZKO AUTOAK Mercedes eta Porsche autoak berriztatzen dituzte Arrasateko tailer berezian

AEB Han alde batera uzten dituzten autoak eskaintzen dizkigute Jagoba Larrañagak eta Iñaki Letek

BERRIA Orain dela lau hilabete zabaldu zuten tailerra eta lanez gainezka daude; Version Original Clasicos du izena

NEREA MENOR >ARRASATE

Jagoba Larrañagak eta Iñaki Letek autoak konpontzeko tailer mekanikoa zabaldu zuten orain dela lau hilabete. Horrelako tailer asko daude, baina 50eko hamarkadako autoak konpontzen dituztenak gutxi. Eta gutxiago Mercedes eta Porsche markak soilik berriztatzen dituztenak. Version Original Clasicos, deitzen da tailer berezi hori eta Arrasaten dago.

AEBetatik ekarritako 12 auto klasiko dituzte, eta beste bost bidean. "Zaharkituta heltzen dira", dio Larrañagak. "Estatu Batuetan baztertuta lagatzen dituzte, krisiarengatik, agian, eta europar askok ekarri nahi dituzte hona". Pieza denak kentzen dizkiete, txukundu, berriztatu eta autoan sartzeko berriz ere. Oso prozesu luzea da hau, "guk ordu asko sartzen ditugu tailerrean, 2 edo 3 langile bakarrik gara eta uste dut gehiago kontratatu beharko ditugula", esaten digute jabeek.

Ikusten denez, eskaria egon badago. Oraingoan, hiru bezero dituzte inguruetan, bat Bilbon eta

bi Gasteizen. Hainbat eskaera egiteko aukera dagoela azaldu digute. Autoa berriztatu edo dagoen bezala laga dezakete jabeek. Berriztatzeotan, bezeroak autoaren ezaugarri guztiak aukeratu ditzake.

MARKA KLASIKO GUZTIEKIN

Porsche 911 eta Mercedes 190 modeloekin egiten dute lan. Esan digutenez, berriztaketa oso bat jasan dezaketen markak dira. Behar dituzten piezak lortu ahal direlako aukeratu dituzte, baita gustuko dituztelako ere. Larrañagak garai horretako Porsche eta Mercedes bana ditu.

Bi marka hauek bakarrik berriztatzeaz gain, beste batzuekin ere ibiltzen dira. "Norbaitek Roll Royce edo Jaguar klasiko bat nahi izanez gero, guk atzerritik ekartzeko aukera dugu. Gure autoak ekartzeko azpiegitura ona daukagu, kontaktu sendo bat. Horrelakorik ez da askotan aurkitzen eta horrelako auto bat lortu nahi duenarentzat oso irtenbide ona da", dio Larrañagak.



PORSCHE 911 Jagoba Larrañagak eta Iñaki Letek berriztatu berri duten luxuzko autoan.

NEREA MENOR

ahobero

"Kanon digitalak urtero ematen dituen 120 milioi euro huskeria da, Kulturak duen aurrekontuarekin alderatuta"

Eduardo Bautista > SGAEko kidea

Horixe da Espainiako Egile eta Editoreen elkartearen presidentea Eduardo Bautistak asteon esan duena. Irabazi asmorik gabeko elkarte bat horretan pentsatzen egon daiteke?

iturri onetik

Oñatiko Garagardo festa izango da aurten bigarren, uztailaren lehenengo asteburuan

Joan zen urteko arrakasta ikusita, Garagardo festa bigarren aldiz antolatzea erabaki dute Aloña Mendikoek. Jakinarazi dutenez, uztailaren lehenengo aste bukaeran izango da ekimen hori. Alegia, uztailaren 4tik 6ra bitartean. Hala ere, uztailaren 3an ere zerbait egitea pentsatzen ari direla esan dute. Aurten egubakoitzeko gaua eta zapatua "alaitzeko" asmoa dutela ere aurreratu dute.

piperrautsa

Mikel Irizar > www.goiena.net/blogak/piperrautsa

Pulpitorik ez

Aste bukaeran asaldatu egin ninduen Ana Iribarren jarrerak Legebiltzarrean. Gregorio Ordoñez senar erailari oroitarria jartzeko ekitaldian, senperenak eta bi bota zituen. Ibarretxeri esandakoak ez ziren preseski epelak-koldar ere deitu zion, baina onartezina iruditzen zait esaldi hau: "ETAren helburu politikoekin bat egiten dutenak, bat datoz garunean tiro jotzearekin".

Ertz asko ditu esaldiak eta nik toki gutxi. Horregatik bakarrari helduko diot. Gaixorik gaude, eta konplexuz beteta, horrelakoak esateko gai dena mikrofonoaren aurrean eta albistegietan lehen lerroan jartzen dugunok. Pertsona horrek ez du mikrofonoa behar, psikiatra baizik. Oker gabiltza horrelakoei hauspoa ematen. Biktimei elkartasuna bai, psikopatei pulpitorik ez.

ai, ene!



Inoren laguntzarik gabe egiten den ohea iritsi da

Bakarrik egiten den ohea asmatu dute. Mugitzeko arazoak dituztenendako pentsatuta dago. Botoi bati baino ez zaio eman behar.

www.blogactualidad.es/tecnologia

<p>Babes eta erosotasun handiagoa</p> <p>Kanporako saretak</p>	<p>Dekorazio aukera guztiak</p> <p>Estoreak, errezelak eta saretak</p>	<p>Eguzki babes</p> <p>Toldoak</p>	<p>VELUX®</p> <p>gelatza s.l.</p> <p>Zubillaga auzoa 1 OÑATI Tel.: 943 71 63 22 Faxa: 943 78 15 51</p>
--	--	--	--